



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko urtarrilaren 3a

1. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

A SAILA:

**Foru lege proiektuak:**

—10-22/LEY-00007. 2021eko Nafarroako Kontu Orokorraren azterketa eta zentsurari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**10-22/LEY-00007. 2021eko Nafarroako Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 21ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak 2021eko Nafarroako Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko fiskalizazio txostena egin du.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 157.2. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. 2021eko Nafarroako Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko fiskalizazio-txostenaren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Txostena Nafarroako Gobernuari igortzea.

4. Ekonomia eta Ogasuneko Batzordea deitzea, Kontuen Ganberako lehendakariak ager dadin, egindako txostena azaltze aldera.

5. Erabaki hau Kontuen Ganberari jakinaraztea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**2021eko Nafarroako Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina**

**AURKIBIDEA**

Laburpen exekutiboa (4. or.).

I. Sarrera (5. or.).

II. Helburua eta norainokoa (5. or.).

III. Iritzia (6. or.).

III.1. 2021eko urteko kontuei buruzko finantza-auditoretzako iritzia (6. or.).

III.2. Legeria betetzeari buruzko fiskalizazio-iritzia (6. or.).

IV. Iritziaren oinarria (7. or.).

IV.1. Finantza-auditoretzako iritziaren oinarria, salbuespenekin (7. or.).

IV.2. Legezketasunari buruzko iritziaren oinarria, salbuespenekin (8. or.).

V. Auditoretzako funtsezko gaiak (8. or.).

VI. Azpimarra egiteko paragrafoa (8. or.).

VII. Beste gai batzuei buruzko paragrafoa (9. or.).

VIII. Nafarroako Gobernuaren erantzukizuna (9. or.).

IX. Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna (10. or.).

X. Aurreko txostenetan emandako gomendioen jarraipena (11. or.).

1. gehigarria. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomo-  
en kontuen laburpena, 2021eko ekitaldia (12. or.).

2. gehigarria. Foru sektore publikoaren zedarriztea (18. or.).

- 2.1. Foru sektore publikoa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen arabera (18. or.).
  - 2.2. Nafarroako Administrazio Publikoaren sektorea, Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren arabera (22. or.).
  - 3. gehigarria Arau-esparrua (23. or.).
  - 4. gehigarria. Salbuespenei buruzko informazio gehigarria (24. or.).
    - 4.1. Aberaste bidegabearen egoeran kontratatzea (24. or.).
    - 4.2. CAT-SAP sistemen integrazioa (26. or.).
  - 5. gehigarria. Erregularitasunari buruzko fiskalizazioaren oharrak eta aurkitutako beste gorabehera batzuk (27. or.).
    - 5.1. 2021eko Nafarroako aurrekontu orokorrak (27. or.).
    - 5.2. NFKAren etaharen erakunde autonomoen egoera ekonomiko-finantzarioa 2021eko abenduaren 31n (31. or.).
    - 5.3. Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioak (32. or.).
    - 5.4. Langile-gastuak (34. or.).
    - 5.5. Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak (38. or.).
    - 5.6. Transferentzia arruntengatiko gastuak eta kapital- transferentziengatiko gastuak (41. or.).
    - 5.7. Inbertsioak eta ibilgetu ez-finantzarioa (44. or.).
    - 5.8. Zergak, tasak, prezio publikoak eta bes-telako diru-sarrerak (47. or.).
    - 5.9. Beste diru-sarrera batzuk (51. or.).
    - 5.10. Epe laburreko zordunak eta har-tzekodunak (52. or.).
    - 5.11. Diruzaintza (53. or.).
    - 5.12. Zorpetzea eta beste finantza-eragiketa batzuk (54. or.).
    - 5.13. Sozietate publikoak eta fundazio publikoak (56. or.).
    - 5.14. COVID-19arekin lotutako gastuak eta diru-sarrerak (59. or.).
- Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (65. or.).
- Behin-behineko txostena dela-eta aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (66. or.).

## LABURPEN EXEKUTIBOA

Kontuen Ganberak Nafarroako 2021eko ekitaldiko kontu orokorrak fiskalizatu ditu.

Honako hauek dira gure lanaren konklusio nagusiak:

- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen 2021eko abenduaren 31ko urteko kontuek zehatz islatzen dute, alderdi esanguratsuetan, ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitza ekonomiko eta aurrekontuko irudia. Halere, salbuespen batzuk badaude, zerikusia dutenak, funtsean, Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrean jasotako araudia guztiz ez aplikatzearekin; informazioa zergen kobrantzak kudeatzen dituen aplikazio informatikotik kontabilitate-sistema informatikora behar bezala ez transferitzearekin; balantzeko ibilgetuaren zati baten inbentariarik ez egotearekin; eta montepioak sortutako betebeharrak aktuarialak ez erregistratzearekin. Salbuespen horiek behin eta berriz eta antzera agertu ditu erakunde honek urtero, 1981eko kontu orokorrak ikuskatu zituenetik.

- 2021eko ekitaldiari buruzko urteko kontuetan jasotako jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa, egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzeak zaizkion arauekin. Salbuespen gisa aipatzen da indarraldia amaitua duten kontratuekin edo kontratu-euskarririk gabe emandako prestazioengatik ordaindutako gastua, 219,68 milioikoa, guztira.

- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren egoera ekonomiko-finantzarioak 2021ean hobekuntza nabarmena izan du bere adierazle gehienetan, COVID-19aren pandemiaren eraginpean izandako 2020. urtearen aldean, eta 2016an hasitako hoberanzko bidera itzuli da; oraindik ere badago 2.848 milioiko zor esanguratsua, baina 2021ean zorraren zenbatekoa ehuneko 14 murriztu da 2020ko aldean. Zenbateko hori hurrengo urteetan amortizatu behar da, eta hura nabarmenki baldintzatzen dute bai ezarritako egutegiak eta bai finantza-merkatuetako interes tasen gorabehereak ere.

- Finantza-zama 2020an baino handiagoa izan da, batez ere 607 milioiko amortizazioa egin delako; horietatik 370 milioi kitapen aurreratuei dagozkie. Zorra amortizatzeko egutegiak esan nahi du 2028a baino lehen amortizatu beharko dela guztizkoaren ehuneko 57. Epe luzeko zorrari dago-kionez, 2021ean rating agentzia batek Nafarroari "AA-, perspektiba negatiboarekin" kalifikazioa eman dio. Baimendutako gehieneko maila da Estatuaren kalifikazioa kontuan hartuta, zeinak 2022an hobera egin eta "AA-, perspektiba egonkorrekin" kalifikazioa lortu baitu.

- Langileei dagokienez, nabarmendu behar dugu langile finkoen alden eta baje kopuruaren alde garbia negatiboa dela oraindik ere, eta alde nabarmen handitu dela 2020tik; lanpostu huts gehiago daude eta egiturazko beharrak eta behar iraunkorrak aldi baterako langileekin estaltzen dira, nahiz eta lan eskaintza publikoak onetsi diren, dagozkien deialdietan zehaztu beharko direnak. Inguruabar horiek guztiek batera eragin dute enpleguaren behin-behinekotasun indizea ehuneko 53koa izatea 2021eko abenduaren 31n. Uste dugu ehuneko hori gehiegizkoa eta kezagarria dela, eta giza faktorearen halako deskapitalizazio bat dakarrela, besteak beste.

Hori dela-eta, aipatu behar dugu abenduaren 28ko 20/2021 Legearen bitartez presako neurriak ezarri zirela enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko. Hura betetzeko, uztailearen 1eko 19/2022 Foru Legea onetsi da, aipatu legearen ondoriozko egonkortze prozesuak egiteko neurriak buruzkoa. Bertan ehuneko zortziko behin-behinekotasuna jartzen da helburutzat.

- COVID-19aren pandemiak 197,87 milioiko gastua ekarri zuen eta 247,31 milioiko diru-sarrerak. 2020-2022 aldian zehar, txosten honen datara arte, gaixotasun horren kudeaketarekin lotutako gastuak eta diru-sarrerak 457,25 milioikoak eta 434,69 milioikoak izan ziren, hurrenez hurren.

## I. SARRERA

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz eta 2022rako bere jarduketaren programarekin bat, kontu orokorrak fiskalizatu ditu eta aldi berean legeria betetzearen fiskalizazioa egin die Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari (aurrerantzean, NFKA) eta haren mendeko entitateei, 2021eko ekitaldiari dagokionez.

Azterketa lana 2022ko apiriletik iraila bitartean egin du auditoretzako sei teknikarik eta sistema informatikoetako goi mailako teknikari batek eta erdi mailako teknikari batek osatutako lantaldeak, auditore batek zuzenduta. Halaber, Ganberaren zerbitzu juridikoen eta administratiboaren laguntza izan da.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik, eskerrak eman nahi dizkiegu NFKAko, haren erakunde autonomoetako, sozietate publikoetako eta fundazio publikoetako langileei.

Kanpo kontroleko organoen auditoretzari buruzko araudiaren azken aldaketan ondorioz, txosten honek eta 2020ko ekitaldiari buruz eman genuenak egitura desberdina dute zenbait alderditan.

Txosteneko diru kopuruak biribildu egin dira zentimorik ez agertzeko. Datuek beti adierazten dute balio zehatz bakoitza biribilduta, eta ez biribildutako datuen batura. Ehunekoak ere balio zehatzen gainean kalkulatu daude, eta ez biribildutako balioen gainean.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritako-arekin bat, lan honen emaitzak Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari jakinarazi zitzaizkion, alegazioak aurkezteko.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak alegazioak aurkeztu ditu Kontuen Ganberak emandako epean. Alegazio horiek argibideak dira, eta behin betiko txostenari erantsi zaizkio.

## II. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Gure lanaren xedea da gai hauei buruz gure iritzia ematea:

- Ea NFKAren eta haren erakunde autonomoen 2021eko ekitaldiko urteko kontu orokorrek, alderdi esanguratsu guztietan, irudi fidela ematen duten 2021eko abenduaren 31ko ondareari, finantza-egoerari, aurrekontu-likidazioari eta emaitza ekonomikoari buruz, aplikatzekoa den arau esparruari jarraikiz eta, bereziki, bertan jasota dauden kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta -irizpideei jarraikiz.

- Ea 2021eko ekitaldian NFKAk eta haren erakunde autonomoek egindako aurrekontu- eta finantza-jarduerak eta -eragiketak eta kontu orokorretan jasotako informazioa bat datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatu beharreko arauekin.

Gure lanaren norainokoak 2021eko ekitaldiko kontu orokorrak eta 5. gehigarrian adierazitako laginekin zerikusia duten eragiketak biltzen ditu.

Lanaren denbora-norainokoa 2021eko ekitaldiari dagokio, baina beste ekitaldi batzuei buruz beharrezkoak izan diren egiaztapenak egin dira, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

Gure azterketaren norainokoa zehazteko, hau hartu dugu kontuan:

- Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusiaren 2022rako barne kontroleko planean 2021ari buruzko alderdi hauek jaso ziren:

- a) Osasun-horniduren, sendagaien, osasun-itunen, protesien eta prestazioen gastuen etengabeko finantza-kontrola egitea, eta fiskalizaziotik salbuetsitako beste gastu eta kontratu txiki batzuk kontrolatzea (2. eta 6. kapituluetakoa), 613,59 milioi eurokoak, guztira.
- b) Aldez aurreko esku-hartzetik salbuetsitako gastu hauek aztertzea: etxebizitzaren arloko eta eraikuntzaren sustapenaren arloko laguntzak (47,52 milioi), eta pertsona fisikoentzako zuzeneko laguntza ekonomikoak, bermatutako prestazio gisa arautuak (162,50 milioi). Halaber, aztertzea dirulaguntza txiki batzuk, 93,18 milioikoak, guztira, eta kontu-hartzetik salbuetsitako COVID-19 arloko kontratazio espedienteak, 3,94 milioikoak, guztira.

- Nafarroako Parlamentuaren, Arartekoaren eta Nafarroako Kontseiluaren 2021eko urteko kontuak Ganbera honek fiskalizatu ditu.
- Kontuen Ganberaren beraren 2021eko urteko kontuak Andaluziako Kontuen Ganbera fiskalizatzen ari da txosten hau egiten ari den garaian.
- Sozietate eta fundazio publikoen 2021eko urteko kontuak eta legeriaren betetzea auditoretzako enpresa pribatuek ikuskatzen dituzte, Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusiaren tutoretzapean.
- Kontuen Ganberak honako gai hauei dagokien lana egin du edo egiten ari da:
  - a) Eraginkorrak eta efizienteak izan al dira 2017tik 2021era bitartean enplegua pizteko kontratazio-laguntzak?
  - b) Etxe eta saltokietako hondakinak: nola hobetu administrazioen arteko koordinazioa kudeaketa eraginkorrago eta efizienteagoa lortzeko.
  - c) Hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleentzako hezkuntza arreta (2018-2021).
  - d) Gizain, Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundazioa.
  - e) Itzaleko bidesaria (2014-2021).
  - f) Foru Administrazioan Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana inplementatzeko hartutako neurriak.

### III. IRITZIA

Nafarroako Kontuen Ganberak, bera arautzen duen 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion eskumenak erabiliz, NFKAren eta haren erakunde autonomoen kontu orokorrak fiskalizatu ditu. Honako hauek osatuta daude kontu horiek: 2021eko abenduaren 31ko balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoaren kontua, 2021eko aurrekontuko likidazioaren egoera-orria, eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion oroitidazkia. Halaber, aipatu araudiari jarraikiz, 2021ean legeria betetzeari buruzko fiskalizazioa egin diegu NFKAri eta haren mendeko entitateei.

#### III.1. 2021eko URTEKO KONTUEI BURUZKO FINANTZA-AUDITORETZAKO IRITZIA

Gure ustez, "Finantza-auditoretzako iritziaren oinarria, salbuespenekin" atalean azaldutako egitateen eraginengatik ez bada, kontu orokorrek irudi zehatza erakusten dute alderdi esanguratsu guztietan, NFKAren eta haren erakunde autonomoen ondareari eta 2021eko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez. Halaber, haien emaitza ekonomiko eta aurrekontukoak islatzen dituzte, data horretan amaitutako ekitaldiari dagozkionak, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuetako printzipio eta irizpideei jarraituz betiere (lege-esparru hori identifikatzen da oroitidazkiko "Foru Komunitateko Administrazioen kontuen alderdi orokorrak" dokumentuan).

#### III.2. LEGERIA BETETZEARI BURUZKO FISKALIZAZIO-IRITZIA

Gure ustez, "Legezkotasunari buruzko iritziaren oinarria, salbuespenekin" atalean deskribatu ditugun egitateen eraginengatik ez bada eta egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, NFKAren, haren erakunde autonomoen eta haren sozietate eta fundazio publikoen 2021eko ekitaldiko kontu orokorretan jasotako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat dotoz, garrantzizko alderdi guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

#### IV. IRITZIAREN OINARRIA

Gure fiskalizazioa egin dugu kanpo kontroleko erakunde publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera, eta, zehazki, finantza-fiskalizazioari eta legeria betetzearen fiskalizazioari buruzko ISSAI-ES 200 eta 400 arauetan ezarritakoen arabera; halaber, kanpo kontroleko organoen fiskalizazio gida praktikoak erabili ditugu. Arau horien indarrez ditugun erantzukizunak aurrerago deskribatzen dira, gure txosteneko “Kontuen Ganberaren erantzukizunak” atalean (kontu orokorreari eta legeria betetzeari buruzko fiskalizazioarekin lotutako erantzukizunak).

Fiskalizatutako entitatearekiko independenteak gara, kontu orokorreari buruzko gure fiskalizazioan aplikatu behar diren etika baldintzekin eta independentzia babestearen arlokoekin bat etorritik, fiskalizazio publikoko jarduerari buruzko araudiak eskatzen duen bezala.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia eskaintzen du gure finantza- eta legezko tasun-iritzia emateko.

##### IV.1. FINANTZA-AUDITORETZAKO IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPENEKIN

a) Ez dira aplikatzen beren zabaltasun guztiarekin Kontabilitate Publikoaren 2010eko Plan Orokorean jasota dauden kontu, irizpide eta printzipioak, nagusiki zergen, zordunen, tributu-hartze-kodunen eta ibilgetuaren kontabilitate-tratamendu egokia egitekoak. Horrez gain, badaude garrantzi txikiagoko akats batzuk kontuen edo epigrafeen sailkapenean; horiek berekin dakarte diru-sarreraren aurrekontuaren, aurrekontu-emaitzaren, diruzaintzako gerakinaren eta balantzearen likidazioaren egoera-orriaren egitura bat ez etortzea aipatutako kontabilitate-araudian ezarritako eredu-ekin; halaber, ez da aurkeztu ondare garbiaren aldaketen egoera-orririk, ez diru-fluxuen egoera-orririk.

b) Ekitaldian jasotako kobrantzei buruz hirugarrenen kontabilitate osagarrian eta zerga-kudeaketan (CAT) eta SAPGE21 kontabilitate-sisteman dagoen informazioa ez da behar bezala eskualdatu, eta ezin da bereizi kobrantza horiek ekitaldian sortutako diru-sarrerei edo aurreko urteetan sortutakoei dagozkien. Horregatik, 1. eta 2. kapituluetak diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriko diru-bilketa garbiak beste ekitaldi batzuetan sortutako eskubideen kobrantzak izan ditzake.

Horrek, era berean, ondorioak ditu diruzaintzako gerakinetik kobratzeko dauden eskubideen epigrafean eta balantzeko aurrekontu-zordunen epigrafean. Zifra globalak zuzenak izanda ere, ez dago haien osaeraren banakapena arrazoizkoa izatearen ebidentziarik.

c) Ez balantzean ez oroitidazkian ez da informaziorik erregistratu NFKAren eta haren erakunde autonomoen funtzionario aktibo eta pasiboen montepioak sortutako betebeharrak aktuariari buruz. NFKAk egindako azterlan eta balioespenen arabera, montepio horren prestazioak direla-eta 2022-2087 aldian izanen den kostuaren egungo balioa 1.639 milioi konstante ingurukoa da.

d) Egoeraren balantzean, ezin izan dugu lortu ebidentziarik “Ibilgetua” ataleko zenbait osagaien kontabilitate-saldoaren arrazoizkotasunari buruz –saldo hori 1.041,03 milioikoa zen 2021eko abenduaren 31n–, zeren eta hura ez baitago babestuta aplikatu beharreko kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera egoki baloratutako ondasunen inbentario orokor batean.

e) “Aurrekontukoak ez diren zordunak” atalean, “Dirulaguntzen aurrerakinengatiko zordunak” kontua sartu da; kontu horren saldoa 64,32 milioikoa zen 2021eko abenduaren 31n.

Kontu honetan daude jasota araudi aplikagarriaren arabera aurrerakintzat hartzen diren eta onuradunak ondoren justifikatu behar dituen dirulaguntzak. Saldoa ezeztatu egin behar da dirulaguntza emateko baldintzak betetzen direla egiaztatzen denean, orduan egotziko baitzaio gastua emaitzen kontuari.

Ez dago kontu hori kontabilizatzeko prozedura zehatzik, eta ezin izan dugu egiaztatu kasu guztietan haren saldoa murriztu ote den justifikatutako zenbatekoan edo justifikatu gabeko zatian. Hor-taz, ezin dugu zehaztu balantzeko saldo hori zuzena den. Akats hori jada agerian jarri zen Ganbera honek 2020ko ekitaldiko kontu orokorreari buruz egin zuen txostenean.

Ganbera honek ohartarazten du behin eta berriz agertu direla a), b), c) eta d) salbuespenak, erakunde honek 1981eko NFKAren urteko kontuak lehen aldiz ikuskatu zituenetik. Nahiz eta aha-legin handia egin den b) eta d) letretan adieraziko akatsak konpontzeko, horiek ezin izan dira guztiz konpondu honako txosten hau egin den datarako.

**IV.2. LEGEZKOTASUNARI BURUZKO IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPENEKIN**

NFKAko departamentuek Kontu-hartze eta Kontabilitate Zuzendaritza Nagusiari emandako informazioaren arabera, 2. kapituluko –ondasun eta zerbitzuak– gastu arruntaren ehuneko 28 (210,97 milioi), 6. kapituluko –inbertsioak– 8,70 milioi eta 4. kapituluko –transferentzia arruntak– 86.568 euro dagozkie indarraldia amaituta daukaten edo kontratu-euskarri ezagunik ez duten kontratuetan oinarrituta ordaindu diren prestazioei.

**V. AUDITORETZAKO FUNTSEZKO GAIAK**

Auditoretzako funtsezko gaiak dira, gure iritzi profesionalaren arabera, esanahi handiena izan dutenak aztertutako aldiko kontu orokorrei egin diegun fiskalizazioan. Gai horiek kontu orokorren osotasunari buruzko auditoretzaren testuinguruan eta kontu orokorrei buruzko iritzia taxutzerakoan jorratu ditugu, eta ez dugu bereiz azalduko gai horien gaineko iritzirik.

Txosten honetako “Finantza-auditoretzako iritziaren oinarria, salbuespenekin” atalean eta “Legezketasunari buruzko iritziaren oinarria, salbuespenekin” atalean azalduko gaiak salbu, ez dugu gure fiskalizazioan funtsezkotzat jotako inongo gairen berririk ematen.

**VI. AZPIMARRA EGITEKO PARAGRAFOA**

Arreta jarri behar zaio egoera ekonomiko eta finantzarioaren adierazle gehienek 2020ko aldean izan duten bilakaera positiboari, zeina kontu orokorretako oroitidazkiko “Finantza- eta ondare-adi-erazleen azterketa” dokumentuan azaltzen baita. Izan ere, 2020ko ekitaldian nabarmena izan zen COVID-19 pandemiaren eragina. Jarraian adierazleetako batzuen bilakaera erakusten dugu, eta hobekuntza hori ageri dute, are 2019ko datuekin alderatuta:

	(milakotan)				
	2019	2020	2021	Aldea % 2021/2019	2021/2020 aldea (%)
Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa	150863	-203016	468645	211	331
Aurrezki gordina	496971	152785	666714	34	336
Aurrezki garbia	84.920	-202286	-14655	-117	93
Finantza-zorra, kostua amortizatua, biztanleko	4.526	5007	4305	-5	-14
Tributuen diru-bilketa likidua	3.941.132	3627079	4170391	6	15

Baliteke hobekuntza hori baldintzaturik egotea Europako funtsak jaso direlako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismitik (SEM, Next Generation funtsen osagai nagusia), Estatuko funtsak jaso direlako COVID-19a kudeatzeko, eta diru-bilketa hobea izan delako.



## VII. BESTE GAI BATZUEI BURUZKO PARAGRAFOA

- Nafarroak, bere foru-araubidearen indarrez, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean 1990ean sinatutako hitzarmen ekonomikoari jarraituz gauzatzen du bere finantza- eta tributu-jarduera. Hitzarmen hori abenduaren 26ko 28/1990 Legearen bidez onetsi zen.

Hitzarmenak harmonizazio fiskalerako irizpideak ezartzen ditu, bai eta Nafarroak –Foru Komunitateak bere gain hartzen ez dituen Estatuaren zamak direla-eta eta tributuen diru-bilketaren doikuntzetarako– egin beharreko ekarpena kalkulatzeko metodoa ere. Ekarpene hori bost urteko epe-etarako eguneratzen da eta epe horiei aplikatzen zaie.

2020. urtean bosturteko berri bateko oinarritzko ekarpena ezarri behar zen, baina ez zen hala-rik onetsi ez 2020rako ez 2021erako, eta bigarren xedapen iragankorra aplikatu behar izan zen kalkulu horretarako.

2022ko abuztuaren 23an, hitzarmen ekonomikoa negoziatzeko batzordean Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen ordezkariak akordioak lortu ondoren, Ministroen Kontseiluak Estatuaren eta NFKAren arteko hitzarmen ekonomikoa aldatzeko lege proiektua onetsi zuen, eta gero Gorte Nagusietara igorri zuen behin betiko onesteko. Behin gainerako izapideak eginda eta legeak indarra hartuta, hitzarmeneko koordinazio batzordeak ekarpen ekonomikoa, besteak beste, finkatu behar du bai bosturteko bakoitzeko oinarri-urterako bai gainerako urteetarako, eta administrazioei aurkeztu behar die, behar den erabakia har dezaten.

Inguruabar horrek ez ditu aldarazten 2021eko kontu orokorretako datuak, baina ziur aski eragina izanen du 2022ko ekitaldikoetan, Nafarroak Estatuari 2020. eta 2021. urteetan egin beharreko ekarpenaren harira eginen den erregularizazioagatik.

- COVID-19aren pandemiak 2021ean jarraitu du gastuak eta diru-sarrerak sortzen NFKAri eta haren erakunde autonomoei. Zehazki, COVID partidatzat jotzen diren horietan 2021ean kontabilitzatutako gastuak eta diru-sarrerak 197,87 milioioak eta 247,31 milioioak izan dira, hurrenez hurren. Xehetasunak txosten honen 5.14 gehigarrian daude.

Hori dela-eta, Ganbera honek nabarmendu nahi du ezen, txosten honen datara arte, COVID-19arekin lotutako gastuak eta diru-sarrerak hurrenez hurren 457,25 eta 434,69 milioi izan direla, guztira, 2020-2022 aldian.

## VIII. NAFARROAKO GOBERNUAREN ERANTZUKIZUNA

Ekonomia eta Ogasun Departamentua da kontu orokorrak egiteko ardura duena. Halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte entitatearen aurrekontu-likidazioa, ondarea, finantza-egoera eta emaitzak, entitateari aplikatzekoa zaion finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat. Bermatu beharko du, halaber, kontu orokorretan islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatu beharreko araudiarekin.

Haren erantzukizuna da, gainera, beharrezkotzat jotzen dituen barne-kontrolako sistemak ezartzea, bermatu ahal izateko kontu orokorretan iruzurraren edo akatsen ondoriozko oker materialik ez dagoela eta egindako jardueran lege-urratzerik ez dagoela.

Nafarroako Gobernuak 2022ko ekainaren 30eko bilkuran onetsi zuen 2021eko Kontu Orokorre buruzko Foru Lege proiektua, eta Nafarroako Parlamentuari igorri zion. Parlamentuko Mahaia erabaki zuen Kontuen Ganberari igortzea aztertzeko eta bere iritzia emateko; idatzia 2022ko irailaren 8an sartu zen erakunde honetan.

## IX. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Helburutzat dugu arrazoizko ziurtasun bat lortzea, kontu orokorretan, oro har, iruzur edo erroreen ondoriozko akats materialik ez egoteaz, eta kontu horietan islatutako jarduerak, aurrekontu-eta finantza-eragiketak eta informazioa aplikatu behar den araudiarekin bat etortzeaz, arauzkotasunaren fiskalizaziorako gure txostena eman ahal izateko, gure iritzia jasotzen duena.

Arrazoizko ziurtasun hori ziurtasun maila handia da, baina ez du bermatzen kanpo-kontrolako organoen araudiari jarraikiz egindako fiskalizazio batek beti atzemanen dituenik akats materialak edo ez-betetze adierazgarriak. Akatsak iruzurraren edo erroreen ondorio izan daitezke, edo legea ez betetzearen ondorio, eta akats materialtzat jotzen dira kontuen ganbera honen irizpideak aplikatuta, baldin eta zentzuz aurreikusi ahal bada txostenen erabiltzaileen erabaki ekonomikoetan eraginen dutela.

Fiskalizazioaren atal gisa, eta kanpo-kontrolako organoen araudiarekin bat etorriz, gure iritzi profesionala aplikatzen dugu eta eszeptizismo profesionaleko jarrerari eusten diogu auditoretza osoan. Gainera:

- Iruzur edo erroreen eta lege-urratzeen ondorioz akats materialak izateko arriskuak identifikatu eta baloratzen ditugu, auditoretzako prozedurak diseinatzen eta aplikatzen ditugu arrisku horiei erantzuteko, eta auditoretzako ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzia oinarria emateko. Iruzurraren ondoriozko akats material edo ez-betetze bat ez atzemateko arriskua handiagoa da erroreen ondoriozko akats materialaren kasuan baino; izan ere, iruzurra dagoenean tartean izan daitezke kolusioa, faltsutzea, berariazko omisioak, berariazko adierazpen okerrak edo barne-kontrolaren saihestea.
- Fiskalizaziorako beharrezkoa den ezagutza lortzen dugu barne-kontrolari buruz, inguruabarraren arabera auditoretza-prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez.
- Ebaluatzen dugu ea kontabilitate-politika egokiak aplikatu diren eta arrazoizkoak ote diren kontabilitateko zenbatespenak eta kudeaketa organoak horien arabera emandako informazioa.
- Kontu orokorren aurkezpen orokorra, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, emandako informazioa barne, eta ea kontu horiek zehatz irudikatzen dituzten transakzioak eta azpian dauden egitateak.

Entitateko gobernu organoarekin harremanetan aritzen gara gai hauen inguruan, besteak beste: planifikatutako auditoretza-proben norainokoa eta haien egiteko unea, fiskalizazioan aurkitutako gorabehera adierazgarriak, eta fiskalizazioan zehar detektatu ditzakegun barne-kontrolako akats adierazgarriak. Entitateko gobernu organoari jakinarazi zaizkion alderdien artean, zehazten dugu zein izan diren fiskalizazioan garrantzi handienekoak eta, horrenbestez, auditoretzako funtsezko gaiak.

**X. AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA**

Aurreko txostenetan jasotako gomendio garrantzitsu hauek bete dira fiskalizatutako ekitaldian:

a) *Foru Komunitatearen ondasun eta eskubide guztien inbentario baloratu bat egitea, ibilgetuaren kontabilitate-saldoak bermatzeko, Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorren betekizunei jarraituz. Inbentario hori ekitaldiari buruzko oroitidazkiari gehitu edo erantsi behar zaio<sup>1</sup>.*

b) *Ibilgetuaren altak eta bajak kontabilizatzeko irizpide batzuk ezartzea, kontabilitatearen arloko araudi indardunaren arabera, eta haiek irizpide horien arabera erregistratzea<sup>1</sup>.*

c) *Urgentziaz behar diren neurriak ezartzea dauden lanpostu hutsak betetzeko eta enpleguaren behin-behinekotasuna gutxitzeko, araudi indardunaren testuinguruan<sup>2</sup>.*

Aurreko ekitaldietako txostenetan jasotako gomendio garrantzitsu hauek lehengoan diraute:

a) *Foru Komunitatearen Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra urgentziaz onestea eta, halakorik egin ezean, bere zabaltasun osoan aplikatzea Kontabilitate Publikorako Plan Orokorra, 2011ko urtarrilaren 1etik indarrean dagoena.*

b) *NZOren kontabilitate-sistemak egokitzea, horren bidez diru-sarreraren aurrekontuaren garapenari buruzko informazioa lortzeko Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorreko kontabilitate-prozeduren arabera, estatistikako metodoekin prestatutako txostenen bidez lortu beharrean.*

c) *Balantzean islatzea montepioaren araubidekoak diren foru funtzionarioen eskubide pasiboetatik heldu diren betebeharrak.*

d) *Kontabilitate sistema garatzea, zerbitzu publikoen kostua zehazteko informazioa eman dezan.*

e) *Enplegu eskaintzan adieraztea nolako denbora-aurreikuspena dagoen eskaintako lanpostuak betetzeko, eta haietarako dei egitea administrazio publikoetan sartzeari buruzko erregelamenduan ezarritako epeetan.*

f) *Larrialdia dela-eta izapidetu diren kontratazio-espeditente guztiak formalizatzea eta Kontratazioaren Atarian argitaratzea.*

g) *CAT aplikazioa aldatzea, SAPG21 sistema elikatzen duten eta finantzen egoera-orriak egiteko informazio fidagarria ematen duten zergen bilketari buruzko datuak lortzeko, eta, era berean, beste arlo batzuk kudeatzen eta aztertzen laguntzeko, hala nola iruzur fiskalaren aurkako borroka.*

h) *Aztertzea aukerarik ba ote dagoen kontu orokorren oroitidazkian azterketa sakonago bat jasotzeko onura fiskalen bidez lortu nahi diren helburuei eta horien betetze graduari buruz.*

i) *Kontabilitate Zerbitzuak eta Diru-bilketa Zerbitzuak batera lan egitea ekitaldian sortutako eskubideei dagozkien zergen kobrantzari buruzko informazioa hobetzeko eta kontabilitateko egoera-orrien irudi fidagarriago bat islatzeko.*

j) *Dirulaguntzen aurrerakinengatiko zordunak egoki kudeatzeko prozedura homogeen bat prestatzea, balantzean zorren zenbateko zuzena jaso ahal izateko.*

k) *Enpresei eta fundazio publikoei buruz egindako legezketasun-auditoretzetan detektatutako gabeziei konponbidea emateko behar diren kudeaketa- eta kontrol-neurriak ezartzea.*

Gainera, finantza-fiskalizazioaren eta legeria betetzearen fiskalizazioaren emaitza gisa, beste gomendio batzuk jaso dira txosten honen 5. gehigarrian (beste ohar eta aurkikuntza batzuei buruzkoan).

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2022ko azaroaren 17an

Lehendakaria, Ignacio Cabeza del Salvador

<sup>1</sup> Gomendio hau hein batean bete da, txosten honen 5.7 gehigarrian zehazten den bezala.

<sup>2</sup> Gomendio hau hein batean bete da, txosten honen 5.4 gehigarrian zehazten den bezala.

**1. GEHIGARRIA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN KONTUEN LABURPENA, 2021eko EKITALDIA<sup>3</sup>****2021eko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA****2021eko gastuen aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera**

(milakotan)

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako kreditua	Aldak.	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebehargarbiak	Betetakoa (%)	Ordaindutakoa
Langile-gastuak	1.535.736	28542	1564278	1549434	99	1549434
Gastu arruntak ondasun eta zerbituetan	812.330	-21355	790975	743748	94	719533
Finantza-gastuak	61.780	16301	78081	74752	96	74739
Transferentzia arruntak	1.712.136	106089	1818225	1751301	96	1745288
Kontingentzia funtsa	10.563	0	10563	0	0	0
Inbertsio errealak	170.211	37710	207921	169755	82	159159
Kapital-transferentziak	178.682	6614	185296	143600	77	133921
Finantza-aktiboak	27.464	0	27464	25277	92	25277
Finantza-pasiboak	361.618	244999	606617	606617	100	606617
<b>Guztira</b>	<b>4.870.520</b>	<b>418900</b>	<b>5289420</b>	<b>5064484</b>	<b>96</b>	<b>5013969</b>

**2021eko diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera**

(milakotan)

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubide garbiak	Betetakoa (%)	Diru-bilketa garbia
Zuzeneko zergak	1.919.414	0	1919414	2101445	109	2088127
Zeharkako zergak	1.863.383	0	1863383	2074646	111	2053114
Tasak, prezio publikoak eta bestelakoak	108.357	23354	131711	151557	115	111629
Transferentzia arruntak	62461	84831	147292	380698	258	378062
Ondare bidezko diru-sarrerak	6.907	88	6995	2851	41	2464
Inbertsio errealen besterentzea	130	141	271	342	126	342
Kapital-transferentziak	33241	3758	36999	189696	513	172346
Finantza-aktiboak	45223	306728	351951	21796	6	20469
Finantza-pasiboak	831404	0	831404	149439	18	149439
<b>Guztira</b>	<b>4870520</b>	<b>418900</b>	<b>5289420</b>	<b>5072470</b>	<b>96</b>	<b>4975992</b>

<sup>3</sup> Gure txostenak Nafarroako kontu orokorren 2021eko ekitaldiko oroitidazkiaren laburpen bat badauka, Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak egina. Testu osoa hemen kontsulta daiteke:

[http://www.navarra.es/home\\_es/Gobierno+de+Navarra/Presupuesto/Cuentas/Cuentas+2021/](http://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Presupuesto/Cuentas/Cuentas+2021/)

## 2021EKO AURREKONTU EMAITZA

(milakotan)

Kontzeptuak	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Zenbatekoa
1. Eragiketa arruntak	4.711.197	4119235	591962
2. Kapital-eragiketak	190.038	313355	-123317
3. Finantza-aktiboekiko eragiketak	21.796	25277	-3481
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaizta	4.923.031	4457867	465164
II. Finantza-pasiboen alde garbia	149.439	606617	-457178
<b>III. Ekitaldiko aurrekontuaren saldoa</b>			<b>7.986</b>
4. Atxiki gabeko diruzaintza-gerakinarekin finantzaturako betebeharrak aitortuak			265.969
5. Ekitaldiari egotz dakizkikeen finantzaketa-desbideratze negatiboak			19.585
6. Ekitaldiari egotz dakizkikeen finantzaketa-desbideratze positiboak			231.303
<b>V. Ekitaldiko aurrekontuaren saldo doitua (III+4+5-6)</b>			<b>62.237</b>

## DIRUZAINZA-GERAKINA 2021EKO ABENDUAREN 31N

(eurotan)

Kontzeptuak	Zenbatekoa
<b>+ Kobratzeko dauden eskubideak</b>	<b>164.708.068</b>
Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	897.311.513
Bilketa zaileko eskubideak, aurtengo ekitaldia	-593.421.344
Aplikatzekoak diren partidengatiko gutxiagotzea	-101.561.519
Aplikatzekoak diren partidengatiko gutxiagotzea (hirugarrenen kontabilitate laguntzailea)	-41.524.423
Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	7.437.810
Bilketa zaileko eskubideak, aurtengo ekitaldia	-7.299.187
Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	3.951.160
Diru-bilketa zaileko eskubideak	-185.942
<b>- Ordaintzeke dauden betebeharrak</b>	<b>172.434.653</b>
Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	145.267.620
Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	81.796
Aurrekontuz kanpoko gastuak	27.085.237
<b>+ Funts likidoak</b>	<b>330.312.439</b>
<b>Diruzaintza-gerakina, guztira (1)</b>	<b>322.585.854</b>
Toki Ogasunen Funtsari atxikitako diruzaintza-gerakina	32.825.704
Finantzaketaren desbideratze metatu positiboak	249.844.968
PFEZaren % 0,7ari atxikitako diruzaintza-gerakina	1.632.657
Diruzaintza-gerakina: Hondakinen Funtsa	11.268.454
<b>Atxikitako diruzaintza-gerakina (2)</b>	<b>295.571.783</b>
<b>Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina (1) - (2)</b>	<b>27.014.071</b>

## EGOERAREN BALANTZEA 2021eko ABENDUAREN 31n

(eurotan)

AKTIBOA	2021eko ekitaldia	2020ko ekitaldia
<b>A) Ibilgetua</b>	<b>2.877.216.763</b>	<b>3.028.073.326</b>
<b>II. Ibilgetu ez-materiala</b>	<b>26.359.440</b>	-
3. Aplikazio informatikoak	20.801.530	-
4. Bestelako ibilgetu ukiezina	5.557.910	-
<b>III. Ibilgetu materialak</b>	<b>2.182.126.848</b>	<b>2.474.233.833</b>
1. Lursailak eta eraikinak	1.162.817.892	1.627.948.027
2. Instalazio teknikoak eta makineria	83.004.552	79.833.101
3. Tresneria eta altzariak	464.271.720	450.753.063
4. Bestelako ibilgetua	328.794.636	315.699.642
5. Azpiegiturak	113.593.089	-
6. Ekitaldiko ibilgetua	12.493.037	-
7. Ondare historikoko ondasunak	17.151.924	-
<b>IV. Ondasun higiezinak inbertsioak</b>	<b>21.858.268</b>	-
1. Lursailak	76.747	-
2. Eraikuntzak	21.781.521	-
<b>V. Finantza-inbertsio iraunkorrak</b>	<b>646.872.207</b>	<b>553.839.493</b>
1. Epe luzeko baloreen zorroa	550.187.256	550.187.256
2. Epe luzeko bestelako inbertsio eta kredituak	97.625.898	89.327.445
4. (Hornidurak)	-940.947	-85.675.208
<b>C) Aktibo zirkulatzailea</b>	<b>768.144.126</b>	<b>853.526.324</b>
<b>0. Salgai dauden aktiboak</b>	<b>18.408.254</b>	-
<b>I. Izakinak</b>	<b>21.527.255</b>	<b>28.126.206</b>
2. Lehengaiak eta beste hornigai batzuk	21.527.255	28.126.206
<b>II. Zordunak</b>	<b>397.595.388</b>	<b>380.945.405</b>
1. Aurrekontuko zordunak	930.126.155	904.851.782
2. Aurrekontukoak ez diren zordunak	64.389.005	38.575.239
3. Beste erakunde publiko batzuen konturako baliabideak administratzeagatiko zordunak	3.221.237	3.572.448
5. Bestelako zordunak	6.162.913	5.193.175
6. (Hornidurak)	-606.303.922	-571.247.239
<b>III. Aldi baterako finantza-inbertsioak</b>	<b>300.789</b>	<b>297.009</b>
2. Epe laburrerako bestelako inbertsio eta kredituak	287.102	287.102
3. Epe laburrerako eratutako finantza eta gordailuak	13.687	9.907
<b>IV. Diruzaintza</b>	<b>330.312.439</b>	<b>444.157.704</b>
<b>Aktiboa, guztira (A+C)</b>	<b>3.645.360.889</b>	<b>3.881.599.650</b>

<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA</b>	<b>2021eko ekitaldia</b>	<b>2020ko ekitaldia</b>
<b>A) Funts berekiak</b>	<b>438.564.865</b>	<b>146.279.435</b>
<b>I. Ondarea</b>	<b>272.135.631</b>	<b>120.596.839</b>
1. Ondarea	272.135.631	120.596.839
<b>III. Aurreko ekitaldiko emaitzak</b>	<b>-418.057.128</b>	<b>151.538.791</b>
1. Aurreko ekitaldiko emaitzak	-418.057.128	151.538.791
<b>IV. Ekitaldiko emaitzak</b>	<b>584.220.410</b>	<b>-125.856.195</b>
<b>V. Egozteko dagoen ondare-gehikuntza</b>	<b>265.952</b>	<b>-</b>
<b>C) Epe luzeko hartzekodunak</b>	<b>2.594.053.595</b>	<b>3.056.127.859</b>
<b>I. Obligazioen eta bestelako balore negoziagarrien jaulkipenak</b>	<b>1.056.951.777</b>	<b>1.047.336.440</b>
1. Obligazioak eta bonoak	1.056.951.777	1.047.336.440
<b>II. Epe luzeko bestelako zorrak</b>	<b>1.537.101.818</b>	<b>2.008.791.419</b>
2. Bestelako zorrak	1.536.700.582	2.008.385.900
4. Epe luzerako jasotako fidantzak eta gordailuak	401.237	405.519
<b>D) Epe laburreko hartzekodunak</b>	<b>612.742.428</b>	<b>679.192.356</b>
<b>I. Obligazioen eta bestelako balore negoziagarrien jaulkipenak</b>	<b>265.115.342</b>	<b>265.755.557</b>
1. Epe laburreko obligazioak eta bonuak	156.359.508	223.146.429
2. Kreditu-erakundeekin dauden epe laburreko zorrak	108.755.834	42.609.128
<b>III. Hartzekodunak</b>	<b>347.627.086</b>	<b>413.436.799</b>
1. Aurrekontuko hartzekodunak	177.375.572	236.601.796
3. Beste erakunde publiko batzuen konturako baliabideak administratzeagatiko hartzekodunak	9.165.801	10.122.822
4. Administrazio publikoak	4.795.733	4.618.909
5. Bestelako hartzekodunak	148.926.564	157.698.726
6. Epe laburrean jasotako fidantzak eta gordailuak	7.363.416	4.394.546
<b>Ondare garbia eta pasiboa, guztira (A+C+D)</b>	<b>3.645.360.889</b>	<b>3.881.599.650</b>

## 2021EKO EMAITZEN KONTUA

(eurotan)

Zor	2021eko ekitaldia	2020ko ekitaldia
A) Gastuak		
<b>2. Hornidurak</b>	<b>340.032.587</b>	<b>317.867.845</b>
b) Ekitaldiko kontsumoak	340.032.587	317.867.845
<b>3. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk</b>	<b>2.079.856.360</b>	<b>1.965.863.140</b>
<b>a) Langile-gastuak</b>	<b>1.448.307.540</b>	<b>1.369.553.931</b>
a.1) Soldatak eta ordainsariak	1.194.610.807	1.135.898.942
a.2) Gizarte-zamak	253.696.733	233.654.989
<b>b) Gizarte-prestazioak</b>	<b>102.321.450</b>	<b>100.990.495</b>
<b>d) Trafiko horniduretako aldeak</b>	<b>35.056.683</b>	<b>21.091.020</b>
d.1) Horniduren aldea eta kobraezinak diren kredituen galerak	35.056.683	21.091.020
<b>e) Beste kudeaketa-gastu batzuk</b>	<b>408.882.069</b>	<b>403.981.950</b>
e.1) Kanpoko zerbitzuak	404.211.390	400.806.532
e.2) Tributuak	110.622	77.023
e.3) Askotariko gastuak	4.560.058	3.098.395
<b>f) Finantza-gastuak eta antzekoak</b>	<b>69.310.009</b>	<b>58.583.475</b>
f.1) Zorreatik	69.310.009	58.583.475
<b>g) Finantza-inbertsioetarako horniduren aldea</b>	<b>-</b>	<b>11.662.269</b>
<b>h) Ibilgetuaren amortizazioa</b>	<b>15.978.609</b>	<b>-</b>
<b>4. Transferentziak eta dirulaguntzak</b>	<b>1.883.758.429</b>	<b>1.805.102.321</b>
a) Transferentzia arruntak	1.738.957.553	1.662.094.596
c) Kapital-transferentziak	144.800.876	143.007.725
<b>5. Ezohiko galera eta gastuak</b>	<b>16.080.131</b>	<b>99.850.326</b>
c) Ezohiko gastuak	1.490.413	74.518.334
d) Beste ekitaldi batzuetako gastuak eta galerak	14.589.718	25.331.992
<b>Saldo hartzekoduna (aurrezkia)</b>	<b>584.220.410</b>	<b>0</b>
<b>Zorra, guztira</b>	<b>4.903.947.917</b>	<b>4.188.683.632</b>



(eurotan)		
Hartzeko	2021eko ekitaldia	2020ko ekitaldia
B) Diru-sarrerak		
<b>1. Ohiko kudeaketako diru-sarrerak</b>	<b>4.200.413.802</b>	<b>3.682.851.043</b>
<b>a) Tributu bidezko diru-sarrerak</b>	<b>4.187.868.145</b>	<b>3.671.975.015</b>
a.1) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga	1.646.416.737	1.536.729.829
a.2) Sozietateen gaineko zerga	320.390.489	250.234.281
a.3) Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga	56.408.102	61.639.777
a.4) Ondarearen gaineko zerga	36.501.187	40.132.362
a.8) Zuzeneko beste zerga batzuk	41.728.144	39.832.614
a.9) Ondare-eskualdatzeen eta EJDen gaineko zerga	83.131.284	60.013.043
a.10) Balio erantsiaren gaineko zerga	1.461.282.985	1.184.316.818
a.11) Zerga bereziak	530.232.231	485.798.130
a.12) Zuzeneko zerga iraungiak	34.723	27.664
a.15) Zerbitzuak emateko tasak	11.742.264	13.250.497
<b>b) Kotizazio sozialak</b>	<b>1.200.445</b>	<b>1.437.705</b>
<b>c) Zerbitzu-emateak</b>	<b>11.345.212</b>	<b>9.438.323</b>
c.1) Zerbitzuak emateko prezio publikoak	11.345.212	9.438.323
<b>2. Kudeaketa arrunteko beste diru-sarrera batzuk</b>	<b>130.734.194</b>	<b>109.782.862</b>
a) Diru-itzultzeak	21.359.594	10.834.282
b) Salmentak eta zerbitzu-emateak	48.420.977	43.897.688
<b>c) Kudeaketaren ondoriozko beste diru-sarrera batzuk</b>	<b>45.895.580</b>	<b>42.819.385</b>
c.1) Diru-sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk	45.895.580	42.819.385
<b>f) Beste diru-sarrera finantzario batzuk</b>	<b>15.058.044</b>	<b>12.231.507</b>
f.1) Beste interes batzuk	15.058.044	12.231.507
<b>3. Transferentziak eta dirulaguntzak</b>	<b>570.446.830</b>	<b>266.181.889</b>
a) Transferentzia arruntak	380.750.800	245.661.494
b) Kapital-transferentziak	189.696.030	20.520.395
<b>5. Ezohiko irabazi eta diru-sarrerak</b>	<b>2.353.091</b>	<b>4.011.643</b>
a) Ibilgetutik heldu diren etekinak	300.187	18.791
d) Beste ekitaldi batzuetako diru-sarrerak eta etekinak	2.052.904	3.992.852
<b>Saldo zorduna (desaurrezkia)</b>	<b>0</b>	<b>125.856.195</b>
<b>Hartzekoa, guztira</b>	<b>4.903.947.917</b>	<b>4.188.683.632</b>

## **2. GEHIGARRIA. FORU SEKTORE PUBLIKOAREN ZEDARRITZEA**

Foru sektore publikoaren 2021eko zedarritzea bi ikuspuntutatik azter daiteke:


- Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen arabera.
- Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren arabera.

### **2.1. FORU SEKTORE PUBLIKOA, NAFARROAKO OGASUN PUBLIKOARI BURUZKO APIRILAREN 4KO 13/2007 FORU LEGEAREN ARABERA**

Honako hauek dira 2021ean foru sektore publikoa osatzen dutenak, aipatutako 13/2007 Foru Legearen eraginetarako:

- NFKA eta hari atxikitako erakunde autonomoak.
- Nafarroako Parlamentua, eta haren menpeko organoak, hau da, Kontuen Ganbera eta Arartekoa.
- Nafarroako Kontseilua.
- NFKAren eta haren erakunde publikoen sozietate publikoak, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legean ezarritakoari jarraituz.
- NFKAk eta haren erakunde publikoek sortutako fundazio publikoak, baita, pribatuak izanda ere, geroztik publikotzat hartuak izateko baldintzak betetzen dituztenak ere.

Hauxe zen foru sektore publikoaren 2021eko abenduaren 31ko irudikapen grafikoa, kontu orokorretako oroitidazkiaren arabera:



**ERAKUNDE AUTONOMOAK**

- NZO Nafarroako Zerga Ogasuna
- NBI Nafarroako Bertintasunerako Institutua
- E-ENAI Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua
- NOPLOI Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua
- O-NOZ Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua
- NGI Nafarroako Gazteriaren Institutua
- PANA Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentzia
- NEZ Nafarroako Enplegu Zerbitzua
- NAPI Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua
- NKI Nafarroako Kirolaren Institutua

Aurreko irudia aztertuta, honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- 2021eko abenduaren 31n NFKAk 13 departamentu zeuzkan, eta horiei hamar erakunde autonomo zeuden atxikita.

- NFKAk 16 enpresaren kapitalean partaidetzen gehiengoa zeukan aipaturako datan. Ez dago aldaketarik 2020aren aldean. Zuzenean parte hartzen zuen Corporación Pública Empresarial de Navarra SLU (CPEN, aurrerantzean) enpresan, zeinean kapitalaren ehuneko 100 baitzeukan, eta zeharka parte hartzen zuen, CPENen bitartez, 15 entitate hauetan:

Enpresa publikoa	Partaidetzaren ehuneko CPEN	Jarduera ekonomikoa
Centro Europeo de Empresas e Innovación SL (CEIN)	100	Berrikuntza eta ekintzaileak
Ikaskuntza Integralerako Nafarroako Zentroa (CNAI)	100	Hezkuntza eta talentua
Ciudad Agroalimentaria de Tudela SL (CAT)	100	Nekazaritza-elikagaiak
Gestión Ambiental de Navarra SA (GAN)	100	Ingurumena
Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias SA (Intia)	100	Nekazaritza-elikagaiak
Navarra de Infraestructuras de Cultura, Deporte y Ocio SL (NICDO)	100	Azpiegitura tematikoak, kulturalak, aisia eta kirola
Navarra de Infraestructuras Locales SA (Nilsa)	100	Tokiko azpiegiturak
Navarra de Servicios y Tecnologías SA (Nasertic)	100	Administrazio publikoentzako zerbitzuak eta teknologia
Navarra de Suelo y Vivienda SA (Nasuvinsa)	100	Lurzorua eta etxebizitza
Potasas de Subiza SAU (Posusa)	100	Ingurumen jarduera eta industria-sarea birsortzea
Sociedad de Desarrollo de Navarra SL (Sodena)	100	Sustapen ekonomikoa eta finantzaketa
Trabajos Catastrales SA (TRACASA)	100	Katastroa, kartografia
Tracasa Instrumental SL		
Salinas de Navarra SA	76	Gatza eta deribatuak ekoiztea eta merkaturatzea
Start Up Capital Navarra SL	68,46	Enpresak sustatu eta bultzatzea

- NFKAren fundazio publikoak 2021eko abenduaren 31n sei ziren, honako xehetasun honen arabera:

Fundazio publikoa	Xedea
Baluarte	Baluarte jauregian kultur jarduerak sustatzea
Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioa	Kultur Intereseko Ondasunak Kontserbatu eta Zaharbertzeko Fundazioa
Miguel Servet	Ikerkuntza sanitarioaren sustapena
Desgaitasuna duten Pertsonen Laguntzeko Fundazioa (izen aldaketa: Helduen Tutoretzarako Fundazioa)	Pertsona adindunen eta ezgaituen arreta eta tutoretza
Miguel Induráin	Kirola eta ariketa fisikoa sustatu eta garatzea Nafarroan
Gizarte Zerbitzu Publikoak Kudeatzeko Fundazioa-Gizain	Hainbat gizarte zerbitzu publiko kudeatzea, eta zerbitzu horiek zuzenean eman eta gauzatzea

Foru sektore publikoa osatzen duten erakundeen ekonomia- eta langile-datu nagusiak, 2021eko abenduaren 31n, kontu orokorren oroitidazkian sakonduta eta iruzkinduta, honako hauek dira:

- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa:

	Zenbatekoa (milakotan)
Aitortutako eskubideak	5.072.470
Aitortutako betebeharrak	5.064.484
	<b>Pertsona kopurua</b>
Langileak, 2021eko abenduaren 31n	32.090

- Sozietate publiko bateratuak:

(euroak, milakotan, zenbakiekin adierazitakoak izan ezik)

	Ekitaldiko emaitza	Dirulaguntzak Foru Administrazioa	Epe luzeko zorpetzea	Ondare garbia	Enplegatuen batez besteko kop.
Datu bateratuak	8.151	17.264	54.179	666.944	1.3610

- Fundazioak:

(euroak, milakotan, zenbakiekin adierazitakoak izan ezik)

Fundazioak	Ekitaldiko soberrakina	Ondare garbia	Enplegatuen batez besteko kopurua
Guztira sei fundazio publiko	5.508	29.311	513

- Beste entitate batzuk:

(euroak, milakotan, zenbakiekin adierazitakoak izan ezik)

Erakundea	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Foru Ogasunari itzulitako gerakina	Langileak, 2021-12-31n
Nafarroako Parlamentua	14.670.303	11.981.283	2.672.409	70
Kontuen Ganbera	2.493.478	2.473.706	19.772	35
Arartekoa	849.800	757.210	92.590	8
Nafarroako Kontseilua	391.491	284.000	107.491	2

• Nahiz eta 2021ean ez izan foru sektore publikoko entitatea, Ganbera honek azpimarratu nahi du 2022ko maiatzean abian jarri zela Jardunbide Egokien aldeko eta Ustelkeriaren kontrako Bulegoa, zuzenbide publikoko entitate bat, nortasun juridiko berekia duena, bere eskumenak baliatzean administrazioekiko inolako mendekotasun organiko edo funtzionalik gabekoa.

Halaber, 2022ko maiatzean Nafarroako Inbertsio Institutua sortu zen, beste tresna bat Nafarroako garapen ekonomikorako laguntza areagotzeko. Komunitateko ekoizpen sareari babesa, segurtasuna eta bultzada ematea du helburu. Aurreikusita dago 2023an hasiko dela jardunean.

## 2,2. NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN SEKTOREA, AURREKONTU-EGONKORTASUNARI ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNARI BURUZKO APIRILAREN 27ko 2/2012 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA

Kontabilitate nazionaleko terminoetan (EKS'2010), 2021erako honako hauek jotzen dira Nafarroako Administrazio Publikoaren sektorekotzat:

- NFKA eta haren erakunde autonomoak.
- Nafarroako Parlamentua eta haren mendeko erakundeak.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- Nafarroako Hondakin Solidoen Tratamendurako Partzuergoa entitate publikoa.
- Nafarroako Gazteriaren Kontseilua.
- Nafarroako Kontseilua.
- Foru Komunitateko sozietate publikoak, gehienbat merkataritzako diru-sarrerekin finantzatzen ez diren zerbitzuak edo ondasunak ematen edo sortzen dituztenak. Zehazki, 2021erako administrazio publikoen sektoretzat hartzen dira 15 sozietate hauek: CPEN, CNAI, CEIN, CAT, GAN, INTIA, NICDO, NASERTIC, NILSA, SODENA, TRACASA, TRACASA Instrumental, Start Up Capital Navarra, Posusa eta Caviar Per Se; azken hori likidazioan dago.
- Eta fundazio hauek: Baluarte Fundazioa, Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioa, Miguel Servet Fundazioa, Desgaitasuna duten Pertsonen Laguntzeko Nafarroako Fundazioa, CENER Fundazioa, Amado Alonso Fundazioa, Centro de Arte Contemporáneo de Huarte Fundazioa, Nafarroako Osasun Ikerkuntzarako Institutua Fundazioa, Miguel Induráin Fundazioa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Unibertsitate-Sozietatea Fundazioa, Julián Gayarre Fundazioa, Jorge Oteiza Museoa Fundazioa eta Gizain-Gizarte Zerbitzu Publikoak Kudeatzeko Nafarroako Fundazioa.

Horri dagokionez, Ministroen Kontseiluak, 2020ko otsailaren 11n, aurrekontu-egonkortasuneko eta zor publikoko helburuak egokitu zituen administrazio publiko guztientzat, eta urte horretarako ehuneko 0,2ko defizit helburua ezarri zuen autonomia erkidego guztientzat.

COVID-19ak eragindako osasun-, gizarte- eta ekonomia-krisiaren ondoren, Europako Batzordeak eta Europako Kontseiluak Egonkortasun eta Hazkunderako Itunaren babes-klausula aktibatzea onartu zuten 2020ko martxoan. Aktibazio horri esker, Europar Batasuneko estatu kideek atzeratu eta eten egin dezakete krisiaren aurretik finkatutako bateratze fiskalaren bidea. Erabaki horren ondorioz, Kongresuaren Osoko Bilkurak 2020-2021 aldietarako egonkortasunari, zor publikoari eta gastu arauari buruzko hiru zerga arauen aplikazioa etetea erabaki zuen 2020ko urrian, eta etenaldi hori 2023ra arte luzatu da.

2021eko kontu orokorren oroitidazkiak dakarrenez, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa Koordinatzeko Batzordeak, 2020ko urriaren 6an, zerga arau horietarako erreferentzia-balio batzuk ezartzea erabaki zuen, txosten honen 5.3 gehigarrian zehaztu ditugunak, COVID-19aren pandemiak 2020an jarduera ekonomikoan eragindako beherakadaren ondoriozko diru-sarreraren murrizketaren inaktuaren aurrean.

### 3. GEHIGARRIA ARAU-ESPARRUA

Honako hauek osatzen dute, funtsean, 2021erako NFKAri aplikatu dakioken arau-esparrua:

- 13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako foru eraizte berrezarri eta hobetzeari buruzkoa.
- Abenduaren 26ko 28/1990 Foru Legea, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onesten duena.
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa.
- 20/2012 Errege Lege-dekretua, uztailaren 13koa, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzkoa.
- 549/2013 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2013ko maiatzaren 21ekoa, Europar Batasuneko kontu nazional eta eskualde-kontuen sistemari buruzkoa (EKS'2010).
- 17/2014 Errege Lege-dekretua, abenduaren 26koa, autonomia erkidegoen eta toki erakundeen finantza-iraunkortasunerako neurriei buruzkoa.
- 2015eko irailaren 9ko Ebazpena, Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Zuzendaritza Nagusiak emana, zeinaren bidez definitzen baita autonomia erkidegoen zuhertasun finantzarioaren printzipioa, finantza-aktiboak edo abal, berrabal nahiz bestelako berme publikoak edo aurrekontutik kanpoko laguntza neurriak xede dituzten finantza-eragiketei dagokienez.
- 2017ko uztailaren 4ko Ebazpena, Altxorren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiarena, zeinaren bidez definitzen baita autonomia erkidegoen eta toki entitateen zorpetze-eragiketei eta deribatuei aplikatzeko zaien zuhertasun finantzarioaren printzipioa.
- 2017ko abenduaren 5eko Ebazpena, Altxorren Zuzendaritza Nagusiarena, 2017ko uztailaren 4ko Ebazpenaren 1. eranskina eguneratzen duena; uztailaren 4ko ebazpen horren bidez definitzen da autonomia erkidegoen eta toki entitateen zorpetze-eragiketei eta deribatuei aplikatzeko zaien zuhertasun finantzarioaren printzipioa.
- 13/2000 Foru Lege Orokorra, abenduaren 14koa, tributuei buruzkoa.
- 14/2004 Foru Legea, abenduaren 3koa, Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzkoa.
- 11/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, dirulaguntzei buruzkoa.
- 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.
- 14/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ondareari buruzkoa.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, kontratu publikoei buruzkoa.
- 11/2019 Foru Legea, martxoaren 11koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzkoa.
- 20/2020 Foru Legea, abenduaren 29koa, 2021erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena, bai eta hura garatzeko xedapenak ere.
- 944/2012 Foru Agindua, azaroaren 9koa, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilariak emana, Fakturen Erregistroaren funtzionamendua arautzen duena.
- 105/2021 Foru Agindua, irailaren 29koa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak emana, zeinaren bidez onesten baitira Nafarroako Aurrekontu Orokorra eta Balantze Kontuak ixteko eta likidatzeko arauak, 2021eko ekitaldirako, bai eta 2022ko ekitaldikoak irekitzeko arauak ere.
- EHA/1037/2010 Agindua, apirilaren 13koa, Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onesten duena.

**4. GEHIGARRIA. SALBUESPENEI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA****4.1. ABERASTE BIDEGABEAREN EGOERAN KONTRATATZEA**

Ganbera honek 2018ko, 2019ko eta 2020ko ekitaldietako kontu orokorre buruz egindako txostenak salbuespen bat jasotzen zuen, indarraldia amaituta zeukaten kontratuetan oinarritutako prestazioekin lotutako aurrekontu-gastuak egiteari zegokiona. Egoera horren jarraipena egin dugu, departamentuek Nafarroako Gobernu Kontu-hartze eta Kontabilitate Zuzendaritza Nagusiari emandako informazioarekin.

Zehazki, eta informazio horren arabera, honako hauek dira 2021ean eta kasuan kasuko kontratuaren amaieratik 2021eko abenduaren 31ra arte aberaste bidegabearen egoeran ordaindutako prestazioekin lotutako datuak<sup>4</sup>:

Departamentua	2021ean ordaindutako gastua	Kontratuaren amaieratik 2021-12-31ra arte metatutako gastua	Kontratu kop.	Aberaste bidegabea noiztik gutxienez
Osasuna	78.138.227	238.818.485	59	2017/01/01
Eskubide Sozialak	20.347.363	48.493.432	34	2015/04/16
Unib., Berrik. eta Erald. Dig.	9.846.027	9.846.027	13	2021/01/01
Hezkuntza	6.485.746	6.567.554	8	2020/01/01
Lurralde Kohesioa	4.340.005	15.094.513	35	2014/03/02
Lehend., Berd., Funtzio Pub. eta Barnea	1.002.896	1.018.939	8	2020/12/16
Migrazio Politikak eta Justizia	180.402	180.402	1	2021/02/15
Kultura eta Kirola	174.345	281.189	11	2020/01/01
Gar. Ekonomiko eta Enpresariala	103.442	103.442	1	2021/01/01
Ekonomia eta Ogasuna	84.560	143.257	3	2019/01/01
<b>Guztira</b>	<b>120.703.013</b>	<b>320.547.240</b>	<b>173</b>	

Ikus daitekeenez, aberaste bidegabearen egoeran dauden 173 prestazioren kontratu amaieratik 2021eko abenduaren 31ra arte metatutako gastua 320,55 milioikoa da; horietatik, 2021ean 120,70 milioi ordaindu ziren.

Kontratuaren indarraldia amaitua duten prestazio horiek ordaintzea eragin duten arrazoiak askotarikoak dira, eta bat datoz NFKAren 2016ko ekitaldiko kontu orokorre buruzko txostenean adierazi genituenekin (espedienteen hasiera atzeratzea, aurkeztutako errekursoak eta abar).

Osasun Departamentuari dagokio gasturik handiena, bai 2021ekoa, bai kontratua amaitu zenetik metatutakoa: 78,14 eta 238,82 milioi euro, hurrenez hurren, 59 prestazio ordaintzeko, guztira.

Aurreko taulan jasotako zenbatekoetan ez daude sartuta O-NOZen gastu batzuei buruzko datuak, dagozkien kontratuen indarraldia amaituta egon arren edo kontratu euskarririk ez izan arren ordaintzen ari diren osasun-hornidura eta sendagai batzuei dagozkienak. Kontzeptu horiei lotutako 2021eko gastua 98,97 milioikoa izan zen.

2016ko maiatzean, eta Kontu-hartze eta Kontabilitate Zuzendaritza Nagusiaren barne kontrolko jarduketak kontuan harturik, O-NOZek ekintza plan bat ezarri zuen honako helburu honekin: 2020rako erosketa guztiak aplikatzekoak diren kontratazio-arauen arabera esleituta egotea.

Ekintza plan hori 2020an amaitu zen. Urte horretako urtarrilean, Osasun Departamentuak beste plan bat egin zuen, 2022ra artekoa, eta hura Gobernuaren erabaki baten bidez onetsi zen 2021eko urtarrilaren 20an. Izan ere, honako hau esaten da bertan:

*“...Onartzen da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak proposatutako ekintza plana, kontuan izanik COVID-19aren pandemiak sortutako egoerak lizitazio portzentaje handiagoko helburuak planteatzea eragozten duela oraingoz...”*

<sup>4</sup> Aipatutako gastutik, 2021ean, 8,70 milioi aurrekontuaren 6. kapituluaren kontabilizatutako prestazioak dira, eta 86.568 milioi aurrekontuaren 4. kapituluaren kontabilizatutakoak. Gainerako gastua aurrekontuaren 2. kapituluari dagokio.



Egungo egoera, O-NOZek aipatutako ekintza planaren betetzeari buruz emandako datuen araberak, honako hau da: sendagaiekin lotutako gastuaren ehuneko 68an eta protesiekin, instrumentuekin, osasun materialekin, gai kimikoekin eta gasekin lotutako gastuaren ehuneko 33an legez ezarritako prozedurak jarraitu dira, eta gainerakoetan kasuko kontratazio-prozedura aurrera eramateko ekintzak gauzatzen ari dira araudiari jarraituz.

Aurreko ehunekoak planean ezarritakoetatik urrun badaude ere, kontuan hartu behar da COVID-19aren pandemiak jarraipena izan duela 2021ean eta 2022an zehar, eta horrek azaldu leza-keela ezarritako helburuak bete ez izana.

Bestalde, Eskubide Sozialetako Departamentuan eta Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuan ere gastua esanguratsua izan da, hurrenez hurren 20,35 eta 9,85 milioikoa 2021ean.

Beheko taulak bidegabeko aberaste egoeran ordaindutako gastuaren eta hari dagozkion kontratuen kopuruaren bilakaera erakusten du 2020-2021 aldian:

Departamentua	Ordaindutako gastua			Kontratu kop.		
	2020	2021	2021/2020 aldea (%)	2020	2021	2021/2020 aldea (%)
Osasuna	56.592.641	78.138.227	38	60	59	-2
Eskubide Sozialak	8.860.726	20.347.363	130	12	34	183
Lurralde Kohesioa	1.934.879	4.340.005	124	30	35	17
Unib., Berrik. eta Erald. Dig.	530.747	9.846.027	1.755	2	13	550
Kultura eta Kirola	312.001	174.345	-44	11	11	-
Lehend., Berd., Funtzio Pub. eta Barnea	138.631	1.002.896	623	5	8	60
Hezkuntza	132.318	6.485.746	4.802	4	8	100
Ekonomia eta Ogasuna	129.017	84.560	-34	3	3	-
Migrazio Politikak eta Justizia	56.666	180.402	218	1	1	-
Garapen Ekonomiko eta Enpresariala	-	103.442	-	-	1	-
Landa Garapena eta Ingurumena	43.288	-	-	1	-	-
<b>Guztira</b>	<b>68.730.914</b>	<b>120.703.013</b>	<b>76</b>	<b>129</b>	<b>173</b>	<b>34</b>

Aurreko taula aztertuta, honako alderdi hauek azpimarratuko ditugu:

- 2021ean ordaindutako gastu osoa (120,70 milioi) ehuneko 76 hazi da (51,97 milioi) 2020. urtearekin alderatuta.

- Oro har, departamentu guztiek ordaindutako gastua handitu da gutxi-asko, salbu eta Kultura eta Kirol Departamentuarena eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuarena.

Nabarmenki hazi dira Osasun Departamentuaren gastua (21,55 milioi), Eskubide Sozialetako Departamentuarena (11,49 milioi), Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuarena (9,32 milioi) eta Hezkuntza Departamentuarena (6,35 milioi).

- Kasu horretan ordaindutako prestazioen gutzitako kopurua ere ehuneko 34 hazi da 2021ean, 2020ko aldean (173 prestazio, eta 2020an 129 prestazio).

Aurreko guztia ikusita, eta kontuan hartuta departamentuek emandako datuak direla, eta ez dugula aztertu egoera horretan gastu gehiago egon ote daitezkeen, 2021ean ordaindu zen aurrekontu-gastua 219,68 milioikoa izan zen, gutxienez ere, nahiz eta kontratuen indarraldia amaituta egon edo kontratu-oinarririk ez izan (kontuan hartu da taulan ageri den zenbatekoa gehi O-NOZerako aparte adierazitakoa).

#### 4.2. CAT-SAP SISTEMEN INTEGRAZIOA

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak ahaleginak egin dituen arren, oraindik ere arazoak daude, CATen informazio egokia falta delako SAPGE21ek diru-bilketa garbia egoki islatu ahal dezan kontabilitatean. Izan ere, ez ditu bereizten uneko ekitaldiko eta aurreko ekitaldietako eskubi-deek sortutako kobrantzak. Gainera, CATeko datu horiek ez dute aukerarik ematen kobrantzen zenbatekoak printzipalaren, errekaruen eta interesen artean banatzeko.

Hori dela-eta, CATek ematen duen informazioarekin Hitzarmen Ekonomikoaren, Analisi Fiskalen eta Administrazioaren Zerbitzuak egiten duen txostenean uneko ekitaldiko kobrantzei dagokien zenbatekoa azaltzen da, baina ez da bereizten kobrantza horiek uneko urtean edo aurreko urteetan sortutako eskubideetatik datozen. Zifra hori erabiltzen du NFKAren Kontabilitate Atalak zerga bakoitzaren diru-bilketa garbia kalkulatzeko, aurrekontuan islatzen dena.

Aurrekoaz gain, CAT sistemak ez du ematen nahikoa informaziorik zergen kontabilitatea behar bezala islatzeko aurrekontu-likidazioan eta egoeraren balantzean. Hala, eskuragarri dauden datuekin, ezin da bereizketarik egin ekitaldi arruntetako eta itxietako zordunen artean, eta ez da posible zorra geroratzea eman zaien zordunei dagozkien eskubide aitortuak deuseztatzea, indarreko Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrean ezarritako irizpideen kontra.

Zordunak ez dira balantzean jasotzen Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrean ezarritako sailkapenaren arabera, ezta sorrarazi gabeko errekaruak eta interesak ere.

## 5. GEHIGARRIA. ERREGULARTASUNARI BURUZKO FISKALIZAZIOAREN OHARRAK ETA AURKITUAKO BESTE GORABEHERA BATZUK

Ondoren ohar, iruzkin eta argibide gehigarri batzuk jaso ditugu, Ganbera honen ustez fiskalizazio txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitezkeenak.

Era berean, Ganbera honek beharrezkotzat jotzen dituen gomendioak jaso ditugu, NFKAren, haren erakunde autonomoen, haren sozietateen eta fundazio publikoen ekonomia- eta administrazio-kudeaketa hobetzeko.

### 5.1. 2021eko NAFARROAKO AURREKONTU OROKORRAK

2020ko abenduaren 29an, 2021erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 20/2020 Foru Legea onetsi zen, 4.871 milioiko gastuekin, guztira, nahiz eta gastu ez-finantzarioaren muga 3.665 milioitan ezarri zen, Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko Lege Organikoa betetzeko.

2021eko aurrekontuak badu gastuetako partiden artean kontingentzia funts bat, AEFILOren eta Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen eskakizunekin bat etorritik. Funts horrek, hasiera batean, 10,56 milioi euroko zuzkidura du, aurrekontuetan aurreikusitako ezin izan diren premia gerora ezin eta eskatu ahalakoak ez direnei aurre egin ahal izateko.

#### Aurrekontu-aldaketak

Gastuetarako hasierako kredituek ehuneko seiko igoera garbia izan dute (418,90 milioi) aldaketan bitartez, eta kreditu bateratuak 5.289,42 milioikoak izatera iritsi dira.

Honako hauek izan ziren 2021ean onetsitako aldaketak:

Aurrekontu-aldaketak	Diruzaintzako gerakinarekin finantzatuak	Diru-sarrera handi- goekin finantzatuak	Beste gastu batzuk gutxituz finantzatuak
Kreditu gehikuntzak	274.703	93.082	62.448
Kreditua sortzea	19.935	19.090	0
Kreditua sartzea	9.296	0	863
Kreditu-osagarriak	2.795	0	265
Aparteko kredituak	0	0	934
<b>Guztira, 2021</b>	<b>306.729</b>	<b>112.172</b>	<b>64.510</b>

(milakotan)

Aurreko taulan ez dira jaso kreditu-transferentziak (56,99 milioi, guztira), zeren eta eragiketa horiek ez baitute aurrekontu-eraginik kredituen guztizko zenbatekoan.

Kontuen Ganberak, Parlamentuak eskatuta eta indarra duen legeriari jarraituz, legezketasun txostenak egin zituen Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren eskumenekoak diren ekitaldiko aurrekontu-aldaketei buruz. Konklusioa da organo eskudunak onetsi zituela aldaketak, eta onetsitako aurrekontu-araudian ezarritako legezko mugak errespetatu zirela; tartean, finantzaketa-iturrien bi-dezketasunari dagokiona. Ganbera honek txostena egin dien aldaketan, transferentziak barne, guztizko zenbatekoak 543,71 milioi egin zuen.

Bestalde, aurreikusitako kontingentzia funtsa ez zen erabili ekitaldiko inongo gasturik finantzatzeko.

2021eko abenduaren 31n ez dago jasota krediturik ez izatearen atxikipenik.

#### Aurrekontu-likidazioa

2021ean aitortutako betebeharrak 5.064,48 milioi egin dute, eta betetzearen eta ordainketaren portzentajeak ehuneko 96 eta ehuneko 99 izan dira, hurrenez hurren.

Aitortutako eskubide garbiek 5.072,47 milioi egiten dute, eta betetze-maila eta kobrantza-maila ehuneko 96 eta ehuneko 98 dira hurrenez hurren.

Honako alderdi hauek nabarmendu behar ditugu:

- 2021ean gastatutakoaren xedeak eta finantzaketa-iturriak, 100 euro bakoitzeko:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa, 2020	Zenbatekoa, 2021	Finantzaketa-iturria	Zenbatekoa, 2020	Zenbatekoa, 2021
Langileak	32	31	Tributu bidezko diru-sarrerak	80	82
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	16	15	Transferentziengatiko diru-sarrerak	5	11
Transferentziengatiko gastuak	41	38	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste.	1	4
Inbertsio errealak	3	3	Zorpetzea	14	3
Finantza-zama	7	13			
Finantza-aktiboak	1	0			
	100	100		100	100

Ikus daitekeenez, 2021ean gastuaren egiturak, oro har, ez du aldaketa esanguratsurik izan, salbu eta finantza-zaman (zorraren interesak eta amortizazioa), hor gastua ehuneko sei puntu handitu baita, eta transferentziengatiko gastuetan, hiru puntu murriztu baitira.

Finantzaketa-egitura nabarmen aldatu da. Hala, diru-sarrerek (tributu bidezkoak eta ondare bidezkoak) guztizkoan duten pisua handitu egin da, 2020an 80 puntukoa izatetik 2021ean 82 puntukoa izatera igaro baita, eta ekitaldian hitzartutako zorpetzea, berriz, 11 puntu jaitsi da. Transferentzien bidezko diru-sarrerek ere pisu handiagoa hartu dute, ehuneko 5 izatetik ehuneko 11ra igarota. Horren arrazoi nagusia da Suspertze eta Erresilientzia Mekanismitik (SEM, aurrerantzean) diru-sarrerak jaso izana, guztira 174,56 milioi 2021ean (2020an aurreikusi gabeko diru-sarrerak). SEM mekanismoa Europar Batasunak onetsitako Next Generation funtsen osagai nagusia da.


2021eko aurrekontu-gastua, bere helburuari edo egitekoari erreparatuta, honako hau izan zen:

Gastu-politika	ABG, 2020	ABG, 2021	(milakotan)	
			Gutzizko AB-Gen ehunekoak, 2021	2021/2020 aldea (%)
<b>Oinarrizko zerbitzu publikoak</b>	<b>145.233</b>	<b>151.851</b>	<b>3</b>	<b>4,56</b>
Justizia	31.888	33.926	0,67	6,39
Herritarren segurtasuna eta espetxe-erakundeak	97.180	100.353	1,98	3,27
Atzerri-politika	16.165	17.572	0,35	8,71
<b>GASTU SOZIALA (A) + (B)</b>	<b>2.676.661</b>	<b>2.784.129</b>	<b>54,97</b>	<b>4,01</b>
<b>A) Gizarte-babeseko eta -sustapeneko jarduketak</b>	<b>631.401</b>	<b>630.118</b>	<b>12,44</b>	<b>-0,20</b>
Pentsioak	116.393	118.371	2,34	1,70
Bestelako prestazio ekonomikoak	2.647	2.881	0,06	8,83
Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena	388.554	394.643	7,79	1,57
Enpleguaren sustapena	53.306	56.088	1,11	5,22
Etxebizitza eskuratzea eta eraikuntza sustatzea	70.501	58.134	1,15	-17,54
<b>(B) Lehenasunezko ondasun publikoen ekoizpena</b>	<b>2.045.260</b>	<b>2.154.010</b>	<b>42,53</b>	<b>5,32</b>
Osasuna	1.217.628	1.272.659	25,13	4,52
Hezkuntza	770.061	819.308	16,18	6,40
Kultura	57.571	62.044	1,23	7,77
<b>Jarduketa ekonomikoak</b>	<b>426.309</b>	<b>471.657</b>	<b>9,31</b>	<b>10,64</b>
Nekazaritza, abeltzaintza eta elikadura	89.959	91.444	1,81	1,65
Industria eta energia	24.638	70.297	1,39	185,31
Merkataritza, turismoa eta ETEak	21.062	25.831	0,51	22,64
Garraiorako dirulaguntzak	27.522	50.333	0,99	82,88
Azpiegiturak	170.902	162.146	3,20	-5,12
Ikerketa, garapena eta berrikuntza	54.715	57.709	1,14	5,47
Izaera ekonomikoko beste jarduketa batzuk	37.511	13.897	0,27	-62,95
<b>Jarduketa orokorrak:</b>	<b>1.338.792</b>	<b>1.656.847</b>	<b>32,72</b>	<b>23,76</b>
Goi zuzendaritza	19.314	19.231	0,38	-0,43
Zerbitzu orokorrak	98.618	102.945	2,03	4,30
Finantza eta tributu administrazioa	27.544	24.966	0,49	-9,36
Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa	549.464	534.927	10,56	-2,64
Estatuarekiko bestelako hitzarmenak	6.350	5.850	0,12	-7,87
Toki administrazioentzako transferentziak	285.431	290.277	5,73	1,70
Zor publikoa	351.991	678.651	13,40	92,80
<b>Guztira</b>	<b>4.586.995</b>	<b>5.064.484</b>	<b>100</b>	<b>10,41</b>

2021ean, osasunean eta hezkuntzan egindako gastua nabarmentzen da, gastu osoaren ehuneko 25 eta ehuneko 16, hurrenez hurren. Gainera, zor publikoa azpimarratu behar dugu, ehuneko 13 baita, eta Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa eta gizarte-zerbitzuak eta -sustapena, hurrenez hurren ehuneko 11 eta ehuneko zortzi.

2020arekin alderatuta, gehikuntza adierazgarriak izan dira zenbait gastu-politikatan. Hain zuzen, ehuneko 93 (326,66 milioi) handitu da zor publikoa, ehuneko 185 (45,66 milioi) industria eta energia alorreko gastua, ehuneko 83 (22,81 milioi) garraiorako dirulaguntzak, ehuneko sei (49,25 milioi) hezkuntzako gastua, eta ehuneko bost (55,03 milioi) osasun alorrekoa. Bestalde, gastu batzuk murriztu egin dira. Hain zuzen ere, izaera ekonomikoko beste jarduketak batzuekin lotutako gastuak ehuneko 63 (23,61 milioi) murriztu dira; Hitzarmen Ekonomikoa, ehuneko hiru (14,53 milioi); etxebizitza eskuratzeko eta eraikuntza sustatzeko gastua, ehuneko 18 (12,37 milioi); eta azpiegiturekin lotutakoak, ehuneko bost (8,76 milioi).

Aurreko gastu-kategoriak gastu-politiken arabera multzokatuz gero –oinarrizko gastu publikoak, gastu sozialak (gizarte-babeseko eta gizarte-sustapeneko jarduketak eta lehentasunezko izaera duten ondasunen ekoizpena), izaera ekonomikoko jarduketak eta jarduketak orokorrak–, honako hau da 2021eko gastuaren banaketa:



2020. eta 2021. urteen artean aipatutako aldaketak gertatzen badira ere, aipatutako politiken artean gastuaren banaketa-ehunekoak antzekoak dira bi ekitaldietan.

Hurrengo taulak 2020. eta 2021. urteetarako gastuen eta diru-sarreraren aurrekontu-likidazioarekin lotutako adierazle batzuen konparazioa dakar:

(milakotan)			
Adierazlea	2020	2021	2021/2020 aldea (%)
Gastua, guztira	4.586.995	5.064.484	10
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4. kapitulura)	3.952.297	4.119.235	4
Funtzionamendu gastuak (1,2 eta 4. kapituluak)	3.886.663	4.044.483	4
Kapitaleko gastuak (6. eta 7. kapituluak)	311.169	313.355	1
Finantza-eragiketen gastuak (8. eta 9. kapituluak)	323.528	631.894	95
Diru-sarrerak, guztira	4.730.799	5.072.470	7
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5. kapitulura)	4.039.448	4.711.197	17
Tributu bidezko diru-sarrerak (zergak, tasak eta kontrib. bereziak)	3.674.746	4.161.670	13
Tributu bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (ehunekoa)	93	101	9
Tributu bidezko diru-bilketa likidoa*	3.627.079	4.170.391	15
Tributu bidezko diru-bilketa likidoa / BPGa (ehunekoa)	19,14	20,46	7
Kapitaleko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	21.002	190.038	805
Finantza-eragiketen bidezko diru-sarrerak (8. eta 9. kapituluak)	670.349	171.235	-74

\* Diru-bilketa likidotzat ulertzen dira urteko ekitaldian eta itxitaro ekitaldietan eskudirutan egindako kobrantzak gehi formalizazioak eta konpentsazioak ken itzulketak.

Arestiko datu horiek kontuan hartuz, alderdi hauek azpimarratu nahi ditugu:

- 2021ean, gastuak, guztira, 5.064,48 milioi eurokoak izan dira, eta ehuneko hamar (477,49 milioi) handitu dira 2020. urtearen aldean.

- Izaerari erreparatuta, gastu arruntak guztizkoaren ehuneko 81 dira, eta ehuneko lau handitu dira; finantza-eragiketei dagozkienak ehuneko 12 dira, eta ehuneko 95 handitu dira 2020arekin alderatuta, amortizatu direlako zor publikoaren 207,19 milioi eta epe luzeko maileguren 397,74 milioi (horietatik 370 amortizazio aurreratutakoak izan dira); bestalde, kapital-gastuak gainerako ehuneko seia dira, eta aurreko urtekoen aldean ehuneko bat baino ez dira igo.

- 2021eko diru-sarrerak, 5.072,47 milioi eurokoak, ehuneko zazpi (341,67 milioi) igo dira 2020koen aldean.

- Diru-sarrera arruntek (4.711,20 milioi) ehuneko 17 egin dute gora, eta horien barruan, tributu-izaerakoak (4.161,67 milioi) ehuneko 13 igo dira; aldiz, finantza-eragiketen bidezkoak (171,24 milioi) ehuneko 74 jaitsi dira. Bestetik, kapital-eragiketetatik datozenak (190,04 milioi) ehuneko 805 handitu dira.

Azken gehikuntza horren eragileak hauek izan dira, besteak beste: Estatutik SEM mekanismoaren bidez jasotako kapitaleko diru-sarrerak, 124,60 milioi, guztira (ez zen halakorik jaso 2020an); eraikinen birgaitze energetikorako jasotako 18 milioiak (2020an lau milioi jaso ziren); eta 2020an jaso gabe gelditu ziren beste diru-sarrera batzuk, hala nola errepideak berritzeko 15,88 milioiak.

- Tributu bidezko diru-bilketa likidoa 4.170,39 milioikoa izan zen 2021ean, 2020koa baino ehuneko 15 (543,31 milioi) txikiagoa.

Diru-bilketa horrek Nafarroako BPGaren ehuneko 20,46 hartzen du, hau da, 2020an baino ehuneko zazpi gehiago (hasiera batean 20.382 milioi euroko BPGa zenbatetsi da).

## 5.2. NFKAREN ETAHAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2021eko ABENDUAREN 31n

Hurrengo taulan, NFKAren eta haren erakunde autonomoen egoera ekonomiko-finantzarioarekin lotutako adierazle batzuen bilakaera erakusten dugu, 2020. eta 2021. urteetan:

Adierazleak	2020	2021	(milakotan)
			2021/2020 aldea (%)
Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa	-203.016	468.645	331
Aurrekontu-emaiza doitua	249.884	62.237	-75
Aurrezki gordina	152.785	666.714	336
Finantza-zama (3. eta 9. kap.)	355.570	681.369	92
Aurrezki garbia	-202.285	-14.655	93
NFKAren finantza-zorra*	3.310.603	2.847.893	-14
Zorren ehuneko diru-sarrera arrunten gainean	82	60	-27
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	272.828	27.014	-90
Eratutako abalak (saldo bizia)	70.870	63.175	-11
Etorkizuneko ekitaldietarako hitzartutako gastuak	4.126.876	3.701.640	-10

\*Amortizatutako kostua.

Aurreko bilakaeratik, honako hau nabarmendu behar dugu:

- Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa 2021ean nabarmen igo zen 2020arekin alderatuta, ehuneko 331 igo ere. Hain zuzen, 468,65 milioiko balio positiboa izan zuen, eta 2020an, berriz, 203,02 milioiko balio negatiboa. Transferentzien bidezko diru-sarreraren gehikuntzari zor zaio funtsean. Aldiz, finantza-zamaren gehikuntzaren ondorioz, aurrekontu-emaiza doitua ehuneko 75 murriztu zen: 2020an 249,88 milioi izatetik 62,24 milioira pasatu zen.

- 2021eko aurrezki gordina ere nabarmen handitu zen, ehuneko 336 (513,93 milioi) 2020ko aldean, eta 666,71 milioikoa izan zen, diru-sarrera arruntak gastu arruntak baino gehiago hazi zirelako. Finantza-zamaren ehuneko 92 gora egin zuen, 2020an baino 326,30 milioi gehiago amortizatu zirelako, beste arrazoi batzuen artean. Hala ere, aurrezki gordina ehuneko 93 handitu zen 2020ko aldean, nahiz eta oraindik ere balio negatiboa izan zuen, 14,66 milioikoa.

- Finantza-zorra ehuneko 14 murriztu zen 2020ko aldean. Haren zenbatekoa 2.847,89 milioi da, eta diru-sarrera arrunten ehuneko 60 hartzen du; 2020an ehuneko 82 hartu zuen.

- Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina nabarmen murriztu zen, ehuneko 90 murriztu ere, 2020an 272,83 milioi izatetik 2021ean 27,01 milioi izatera pasatuz, egindako zor-amortizazio arreratuaren ondorioz, hein handian.

- Zorren aurrekontu-bilakaera (hitzartutako zorra ken amortizatutako zorra) honako hau da 2012-2021 aldirako, milioitan:

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Hitzartutako zorra	418,86	463,66	492,58	446,94	579,70	498,01	208,06	214,46	648,37	149,44
Amortizatutako zorra	107,26	193,21	296,53	307,23	416,08	293,93	373,15	336,99	289,94	606,62
Zorren aldea	311,60	270,45	196,05	139,71	163,62	204,08	-165,09	-122,53	358,43	-457,18

Zor garbiaren zenbatekoa murriztu egin zen 2012az geroztik, eta 2016an eta 2017an gora egin zuen; balio negatiboak izan zituen 2018an eta 2019an. Hala ere, 2020an lortu zuen baliorik handiena, 358,43 milioi. 2020ko aldean, 2021ean joera aldatu da eta zor garbia berriz ere negatiboa da, amortizazio handia egin zelako.

Ganbera honen aurreko txostenetan adierazi dugun bezala, hitzartutako eta amortizatutako zorren zenbateko horiek nabarmen baldintzatzen ditu zorra amortizatzeke egutegiak, txosten honen 5.12 epigrafean jaso dugunak.

- Etorkizuneko ekitaldietarako hitzartutako aurrekontu-gastuek 3.701,64 milioi euro egiten dute. Horietatik, ehuneko 76 zorren finantza-zamari dagozkio. 2020ko datuekin alderatuta, gastu horiek ehuneko hamar egin dute behera.

Hona kapituluz kapituluko eta urtez urteko xehetasunak:

(milakotan)						
Kapitulua	2022	2023	2024	Gainerako urteak	Guztira	Guzt/g (%)
1 Langile-gastuak	2.765	0	0	0	2765	0
2 Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	155.733	33.934	20.767	5.537	215.972	6
3 Finantza-gastuak	36.542	31.831	29.144	143.058	240.486	6
4 Transferentzia arruntak	66.430	8.077	4.245	2380	81.131	2
6 Inbertsio errealak	103.146	53.443	13.870	11.900	182.359	5
7 Kapital-transferentziak	91.168	53.306	6.364	489	151.327	4
8 Finantza-aktiboak	4.850	2.850	2.850	3.700	14.250	0
9 Finantza-pasiboak	220.179	247.298	242.862	2.103.013	2.813.351	76
<b>Etorkizuneko ekitaldietako gastuak, guztira</b>	<b>680.723</b>	<b>430.739</b>	<b>320.102</b>	<b>2.270.077</b>	<b>3.701.641</b>	<b>100</b>
<i>Ehuneko/urtea</i>	<i>18</i>	<i>12</i>	<i>9</i>	<i>61</i>	<i>100</i>	

Aurreko gastuek ez dituzte jasotzen ez funtzionarioen montepioen betebeharrak aktuarialak, ez itzaleko bidesarrietatik datozen gastuak, ez eta interes aldakorra duten maileguengatik zenbatetsitako interesak ere.

Horri buruz, nabarmendu behar dugu oroitidazkian itzaleko bidesarrietatik heldu diren eta aurreikus daitezkeen ordainketa-fluxuekin lotutako informazioa jaso dela, etorkizuneko gastu-konpromisoetan jaso gabe baitaude, haien zenbatekoa zein den ezin delako jakin<sup>5</sup>. Aurreikuspen horiek oroitidazkiaren kontingentzien atalean jaso dira; honako hauek dira:

(milakotan)						
Azpiegitura	2022	2023	2024	Gainerako	Guztira	
Nafarroako Ubidea, 1. fasea	18.190	18692	19207	258115	314.204	
Nafarroako Ubidearen zabalkuntza, 1. fasea	10.000	13.757	13.946	354.466	392.169	
Donejakue Bideko autobia	54.500	61.656	63.634	203.447	383.237	
Pirinioetako autobia	20.625	24.338	24.947	483.889	553.799	
<b>Guztira</b>	<b>103.315</b>	<b>118.443</b>	<b>121.734</b>	<b>1.299.917</b>	<b>1.643.409</b>	

Iturria: NFKAko urteko kontuen oroitidazkia.

**Laburbilduz**, NFKAren eta haren erakunde autonomoen egoera ekonomiko eta finantzarioak – zeinak 2020 aurreko urteetan hobekuntzaren zantzu argiak zituen, baina urte horretan okerrera egin zuen adierazle gehienetan, COVID-19aren osasun krisiaren ondorioz, neurri handian– hobera egin du adierazle gehienetan, eta, gainera, nabarmen murriztu da finantza-zorra, garrantzizko amortizazioa egin baita.

Azterketa honetan kontuan hartu beharra dago, halaber, zenbateko handi samarra egiten duen zorra badagoela; datozen urteetan amortizatu behar da, eta hura bai ezarritako egutegiak, bai interes-tasen aldeak nabarmen baldintzatzen dute.

### 5.3. AURREKONTU-EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN PRIN-TZIOIAK

COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz, eten egin zen 2020-2021 urteetarako egonkortasunari, zorrari eta gastu-arauari buruzko zerga-arauak betetzea.

2021eko kontu orokorren oroitidazkian jakinarazten denez, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordeak honako erreferentzia-balio hauek ezartzea adostu zuen 2020ko urriaren 6an:

- Ehuneko 2,6ko defizita 2020rako eta ehuneko 2,2koa 2021erako. 2021eko kontu orokorren oroitidazkiaren arabera, ez dago defizitik eta superabita ehuneko 1,36koa da. Beraz, adostutakoa betetzen ari da.
- BPGaren ehuneko 19,6ko zor publikoa 2020rako, eta ehuneko 19,9koa 2021erako. Zor publikoa, 2021eko kontu orokorren oroitidazkiaren arabera, ehuneko 15,19koa da, eta, beraz, adostutakoa betetzen ari da.

<sup>5</sup> Ulertzen da haren zenbatekoa ez dela segurua, zeren eta 2021ean, esate baterako, 110,61 milioi euroko gastuak zenbatetsi ondoren kopuru erreala 66,79 milioikoa izan baitzen.



- Gastu-arauaren kasuan, baimendutako ehuneko 2,9ko erreferentzia-tasa ondorerik gabe geratu zen Kongresuaren Osoko Bilkurak onartutako etetearekin. Nolanahi ere, 2021eko kontu orokorren oroitidazkiak dakarrenez, gastua ehuneko 8,9 handitu zen, eta, beraz, aurreikusitako helburua ez zen bete.

Aurrekoa kontuan harturik, Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren Sektoreak, zeina kontabilitate nazionaleko terminoetan (EKS'2010) mugatuta baitago, 2021ean finantza-iraunkortasunaren printzipioaren arabera eskakizun hauek bakarrik bete behar zituen:

- Merkataritza-zorren iraunkortasuna: hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldiaren adierazleak ez du gainditu behar berankortasunari buruzko araudian finkatutako ordainketarako gehieneko epea. Araudi hori Merkataritza-eragiketarako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legeak ezarri zuen. Oro har, epe hori 30 egunekoa izanen da.

Horri dagokionez, Nafarroako Gobernuak hilerok argitaratzen du adierazlearen balioa Administrazio Publikoaren sektorearen ordaintzeko batez besteko epeari dagokionez.

Hurrengo taulan, 2021eko hilez hileko ordainketaren batez besteko aldia erakusten dugu:

	Ordaintzeko batez besteko aldia (egunetan)
Urtarrila	23,21
Otsaila	22,09
Martxoa	21,53
Apirila	22,32
Maiatza	21,78
Ekaina	20,38
Uztaila	23,50
Abuztua	26,16
Iraila	21,21
Urria	21,99
Azaroa	22,08
Abendua	20,79

Iturria: Nafarroako Gobernuak.

Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren Sektoreak 2021ean merkataritza-zorren iraunkortasun-printzipioa bete zuen, araudian ezarritako epea hilabete bakar batean ere gainditu gabe; egiaztatu dugu ez dela atzerapen esanguratsurik izan hornitzaileei egindako ordainketetan, berandutze-interesengatik gastuak eragin dituenik.

- Zuhurtzia finantzarioa, edo finantza-eragiketek arriskua eta kostua ahal den guztian gutxitzeko bete beharreko baldintzen multzoa; honako honetan gauzatzen da:

a) Finantza-pasiboak edo zorpetzea. Zorpetze-eragiketen gehieneko guztizko kostuak, komisioak eta bestelako gastuak barne, ezin izanen du gainditu Estatuaren finantzaketaren kostua eragiketaren epe ertainean, diferentzial jakin batzuk gehituta, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiaren 2015eko uztailaren 31ko eta 2017ko uztailaren 4ko ebazpenei jarraituz.

Egiaztatu dugu baldintza hori betetzen dela 2021ean gauzatu diren zorpetze-eragiketetan.

b) Abalak, berrabak edo bestelako berme publikoak. Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiaren 2015eko irailaren 9ko Ebazpenari jarraituz, bi muga ezartzen dira EKSren arabera bateratze-perimetroa osatzen ez duten entitateei abalak emateko: alde batek, muga orokor bat, zeinaren arabera abenduaren 31n abalen eta emandako gainerako bermeen zenbatekoak gehi hurrengo ekitaldirako aurreikusitako baimenek ezin izanen baitute gainditu Nafarroaren BPGaren ehuneko 1,5; bestetik, banakako muga bat, zeinaren arabera emandako abal edo berme batek ezin izanen baitu gainditu 25 milioiko edo Nafarroaren BPGaren ehuneko 0,1eko muga.

Ondorio horietarako, Foru Komunitateak, 2021eko abenduaren 31n, abalei eta beste berme bazeu dagokienez, 135 milioiko bolumena du. Abal eta berme horiek Administrazio Publikoaren Sektoretik kanpoko pertsona fisiko edo/eta juridikoei eman zaizkie –sektore hori EKS'2010 delakoaren arabera definituta–; halaber, 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak 57 milioiko abalak emateko aurreikuspenak kalkulatu ditu.

Horrenbestez, 2021ean emandako eta 2022rako aurreikusitako abalen zenbatekoa 192 milioi-koa da; zenbateko horrek Nafarroaren BPGaren ehuneko bat egiten du; portzentajea legeriak aipatzen duen ehuneko 1,5eko mugatik behera dago; hortaz, arau hori bete egin da.

Bestalde, ez dago jasota inongo hirugarrenek banakako zenbatekoetan abalik edo beste bermerik jaso duenik 25 milioiko edo Nafarroaren BPGaren ehuneko 0,1eko mugatik gora.

c) Finantza-aktiboak. Aipatutako irailaren 9ko Ebazpenaren arabera, eta zor publikoaren helburua betetzen ez duten autonomia erkidegoei zuzenduta, azken horiek ezin izanen dute finantza-aktiboen alde garbi positiborik izan ez-betetzearen hurrengo aurrekontu-ekitaldiaren itxieran. Nafarroak 2020an helburu hori bete zuenez, betebeharrak ezin zaio aplikatu 2021eko ekitaldiari.

Laburbilduz, Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren Sektoreak, 2021eko ekitaldian, Hitzarmenaren Koordinazio Batzordean ezarritako erreferentziazko parametroak bete ditu, baita finantza-iraunkortasunaren printzipioari buruz indarrean dauden eskakizunak ere.

#### 5.4. LANGILE-GASTUAK

2021ean, langile-gastuak 1.549,43 milioi eurokoak izan dira; gastu guztien ehuneko 31, hain zuzen. Ehuneko 43 Osasun Departamentuari dagokio; ehuneko 32, Hezkuntza Departamentuari; eta ehuneko 14, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari.

Hauxe da aurrekontuko artikuluen araberrako banaketa:

Aurrekontuko artikulua	(milakotan)		
	Aitorturiko betebeharrak, 2020	Aitorturiko betebeharrak, 2021	2021/2020 aldea %
Goi karguak	4.999	4.949	-1
Behin-behineko langileak	3.012	3.268	8
Lanpostuko ordainsariak	898.123	942.117	5
Langileen ordainsariak	146.258	149.946	3
Kuota, prestazio eta gastu sozialak	333.636	355.922	7
Ordainsari aldakorrak	77.746	82.184	6
Beste ordainsari batzuk	5.284	11.048	109
<b>Guztira</b>	<b>1.469.057</b>	<b>1.549.434</b>	<b>5</b>

2020. urtearen aldean, langile-gastuak ehuneko bost (80,38 milioi) igo ziren. Hauek dira igorren arrazoi nagusiak: COVID-19arekin lotutako kontratazioen gehikuntza (16,93 milioi guztira, lanpostuko ordainsariak, ordainsari aldakorrak eta Gizarte Segurantzaren batuta); aurreko ekitaldietako ordainsaritan 3,15 milioi ordaindu izana Foruzangoko langileei, 3/2021 Foru Legea aplikatuta; O-NOZeko langileen karrerako osagarriaren atzeratzeagatik onetsitako doikuntza, 3,90 milioi egiten duena; eta langile guztien ordainsarien ehuneko 0,9ko igoera orokorra.

#### *Plantilla organikoa eta lan eskaintza publikoa*

NFKAren eta haren erakunde autonomoen 2021eko abenduaren 31ko plantilla organikoa eta langile finkoen eta behin-behineko langileen zerrenda Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariaren ekainaren 13ko 179/2022 Foru Aginduaren bidez argitaratu ziren, 2022ko ekainaren 26ko NAO. Ganbera honek, aurreko txostenetan behin eta berriz egin duen moduan, nabarmentzen du informazio hori atzerapenez argitaratu zela.

2021eko abenduaren 31ko plantilla organikoko lanpostuak 24.630 ziren, 2020an baino 755 lanpostu gehiago. Honako hau da lanpostu beteen eta hutsen azalpena:

Lanpostuak	Administrazio Erroa		Hezkuntza		O-NOZ		Guztira	
	2020	2021	2020	2021	2020	2021	2020	2021
Beterik	4622	4.647	5.513	5872	5.637	5.578	15.772	16097
Hutsik	2136	2.370	2.619	2336	3.348	3.827	8103	8.533
<b>Lanpostuak, guztira</b>	<b>6758</b>	<b>7.017</b>	<b>8.132</b>	<b>8208</b>	<b>8.985</b>	<b>9.405</b>	<b>23875</b>	<b>24.630</b>

Lanpostuen ehuneko 38 O-NOZ dagozkie; ehuneko 33 Hezkuntzari, eta gainerako ehuneko 29a Administrazio Erroari. Lanpostu guztietatik, ehuneko 65 beteta daude eta ehuneko 35 hutsik daude.

2020an eta 2021ean betetako plazen tipologiaren arabera banaketa honako hau da:

Betetako lanpostu mota	2020	2021
Lanpostu ez-oinarrizkoak	140	146
Behin-behineko langileak	140	146
Burutzak	1553	1.541
Oinarrizko lanpostuak	14079	14.410
<b>Betetako lanpostuak, guztira</b>	<b>15.772</b>	<b>16.097</b>

2021ean 16.097 lanpostu bete dira, 2020an baino ehuneko bi gehiago (325 gehiago). 2020arekin alderatuta, oinarrizko lanpostuak izan dute aldaketarik handiena, ehuneko bi igo baitira (331 lanpostu gehiago).

Kontu orokorren oroitidazkian ageri den moduan, 2.275 lanpostu ez dituzte beren titularrek betetzen, hainbat arrazoi tarteko: eszedentziak, burutzengatiko erreserbak, zerbitzu-eginkizunak, prestakuntzaren zatikako zerbitzu bereziak, sakontzea edo ikerketa, eta abar.

Hutsik dauden lanpostuen zerrenda, egoera eta bilakaera, lanpostuen guztizkoari erreferentzia eginda, taula honetan ageri dira:

Kontzeptua	2020	2021
Lanpostuak, guztira	23.875	24.630
Hutsik	8.103	8.533
Lanpostu hutsak lanpostu guztien gainean (%)	34	35
Betetako lanpostu hutsak	5.017	5.569
Betetako lanpostu hutsak lanpostu huts guztien gainean (%)	62	65

2021ean, lanpostu guztien ehuneko 35 hutsik zeuden, eta, horien barruan, ehuneko 65 behin-behinean beteta zeuden. Ehuneko horiek 2020koen parekoak dira.

Egiaztatu dugu ezen plantilla organikoan jasotako datuak eta horri buruz kontu orokorretako oroitidazkian emandako informazioa bat datozela.

Gobernuak, 32 foru dekreturen bidez, plantillaren aldaketak onetsi zituen, 36 lanpostu amortizatuko (Administrazio Erroko 31, Hezkuntza Departamentuko lau eta Osasun Departamentuko bat) eta 767 lanpostu sortzeko (410 Osasun Departamenturako, 281 Administrazio Erroarako eta 76 Hezkuntza Departamenturako).

Egiaztatu dugu aldaketa horiek guztiak plantillan jaso direla.

Lanpostu horiez gain, badira foru dekretu bidez sortzen ez diren beste batzuk ere, hala nola burutzekin zerikusia dutenak, antolaketa-egituraren aldaketen arabera.

2021ean zehar, bederatzi foru dekreturen bidez, lan-eskaintza publiko (LPE) partzial bat onetsi zen, 1.177 lanpostukoa; hona hemen xehetasunak:

LEParen arrazoia eta haren esparrua	Zenbat lanpostu
Berezarpen-tasa:	
Administrazio Erroa	294
Hezkuntza	278
Osasuna	261
Egonkortze-tasa:	
Administrazio Erroa	242
Osasuna	86
Barne-sustapen publikoa:	
Administrazio Erroa	16
<b>2021eko LEPeko lanpostuak, guztira</b>	<b>1.177</b>

Ikus daitekeenez, 1.177 lanpostuetatik, 552 (ehuneko 47) Administrazio Erroari dagozkio, 347 (ehuneko 29) Osasunari, eta gainerako 278ak (ehuneko 24) Hezkuntzari.

Eskaintza horiek onetsi zituzten foru dekretuetan ez zen zehaztu ez aurreikusitako egutegia, ez deialdiak egiteko datak ere. NFKAren web-orrian, berriz, Administrazio Erroaren esparruko lanpostuetarako kronogramaren aurreikuspena erantsi da.

Berrezarpen- eta egonkortze-tasen azterketa

2021eko LEPea berrezarpen-tasa aplikatzearen ondorioz sartu diren lanpostuak aztertu ditugu, eta emaitza zuzena da.

Egonkortze-tasaren aplikazioari dagokionez, egiaztatu dugu behar bezala aplikatu dela 2021ean eta aurreko urteetan.

Azkenik, esan behar dugu oraindik deialdirik egin gabe daudela 2021eko LEPeko 1.012 lanpostu eta 2019ko eta 2020ko LEPetako 263 lanpostu. Hori dela-eta, Ganbera honek adierazi nahi du aipatutako lanpostu horiek egonkortze-tasari dagokion 2022ko LEPea sartu behar direla, uztaillaren 1eko 19/2022 Foru Legearen arabera, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira Nafarroako administrazio publikoetan egonkortze prozesuak gauzatzeko, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz.

Nafarroako administrazio publikoetako langile finkoei eta aldi baterako langileei buruzko azterketa

2017-2021 aldiko langile finkoen alden eta baje kopurua aztertu dugu, lanpostuaren erreserbak kontuan izan gabe (zeren eta ez baitira administrazioetako behin betiko bajak), eta honako hauek dira emaitzak:

	2017	2018	2019	2020	2021	Guztira
Altak:	291	152	375	611	375	1.804
Hezkuntza	228	7	303	500	109	1.147
Osasuna	50	35	32	40	131	288
Administrazio Erroa	13	110	40	71	135	369
Bajak:	766	681	752	620	658	3.477
Hezkuntza	374	319	380	246	322	1.641
Osasuna	242	242	215	234	200	1.133
Administrazio Erroa	150	120	157	140	136	703
<b>Alde garbia (altak-bajak)</b>	<b>-475</b>	<b>-529</b>	<b>-377</b>	<b>-9</b>	<b>-283</b>	<b>-1.673</b>

Alde garbi negatiboa ageri da 2017-2021 aldian, 1.673 pertsonakoa; baina 2020an alde garbi hori nabarmen murriztu zen, eta 2021ean kopurua berriz igo eta 283raino iritsi da.

Halaber, lortu dugu 2017-2021 bitarteko urteetan abenduaren 31n lanean ari ziren langile finkoen eta aldi baterako langileen datua, NFKA osoan data horretan izandako behin-behinekotasunaren indizea<sup>6</sup> lortzeko; honako hauek dira emaitzak:

	2017	2018	2019	2020	2021
Egiazko langileak	28.020	28.834	29.943	31.730	32.090
Langile finkoak	15.368	15.146	15.063	14.674	14.931
Aldi baterako langileak	12.652	13.688	14.880	17.056	17.159
Aldi baterako langileak/egiazko langileak (%)	45	47	50	54	53

Ikusten denez, aipatutako datako behin-behinekotasun indizea nabarmen handitu da aztertutako aldian, eta 2017an ehuneko 45 izatetik 2021ean ehuneko 53 izatera pasatu da. Adierazle horren goranzko joera argia ikusten da, nahiz eta 2021ean balio hori COVID-19aren ondoriozko aldi baterako kontratazioen eraginpean egon daitekeen.

<sup>6</sup> Behin-behinekotasun honek barruan hartzen du premia iraunkorren eta uneko onoriozkoa.

Honako hau da 2019-2021 aldiko urteetan abenduaren 31n lanean ari ziren NFKAko langileen sailkapena, esparruaren arabera:

	Langile finakoak			Aldi baterako langileak			Langileak, guztira			Aldi baterako langileak (%)		
	2019	2020	2021	2019	2020	2021	2019	2020	2021	2019	2020	2021
Hezkuntza	5.535	5.288	5.661	5.416	6.335	6.053	10.951	11.623	11.714	49	55	52
O-NOZ	5.079	4.931	4.895	7.570	8.628	8.885	12.649	13.559	13.780	60	64	64
Erroa	4.447	4.454	4.375	1.896	2.093	2.221	6.343	6.547	6.596	30	32	34
<b>Guztira</b>	<b>15.061</b>	<b>14.673</b>	<b>14.931</b>	<b>14.882</b>	<b>17.056</b>	<b>17.159</b>	<b>29.943</b>	<b>31.729</b>	<b>32.090</b>	<b>50</b>	<b>54</b>	<b>53</b>

Behin-behinekotasun indizeak lehengoan eutsi dio O-NOZen, behera egin du Hezkuntzan eta gora egin du Administrazio Erroan. Horrenbestez, balio orokorra ehuneko 53 da, 2020ko mailaren antzekoa, eta nabarmen altua.

Bestetik, 2017-2021 aldiko langile finakoen adina aztertu dugu, eta honako hauek dira urte ba-koitzeko abenduaren 31n lortutako datuak:

	2017		2018		2019		2020		2021	
	Pertsonak	Guzt/g (%)	Pertsonak	Guzt/g (%)	Pertsonak	Guzt/g (%)	Pertsonak	Guzt/g (%)	Pertsonak	Guzt/g (%)
30 urtetik beherakoak	132	1	154	1	280	2	256	2	315	2
31 eta 40 urte bitarte	2.224	14	2.014	13	1.955	13	1.793	12	1.873	13
41 eta 50 urte bitarte	5.290	34	5.223	34	5.096	34	4.877	33	4.926	33
51 eta 55 urte bitarte	3.493	23	3.416	23	3.299	22	3.213	22	3.119	21
55 urtetik gorakoak	4.250	28	4.336	29	4.431	29	4.534	31	4.698	31
Batez besteko adina	50	-	50	-	50	-	50	-	50	-

Nabarmendu behar dugu 55 urtetik gorako pertsonak ehuneko 30 inguru direla aztertutako al-dian; halaber, 60 urtetik gorako pertsonak 2017an ehuneko 11 izatetik 2021ean ehuneko 13 izatera pasa dira.

**Laburbilduz,** Ganbera honek bere txostenetan behin eta berriz adierazi duen bezala, langile finakoen kopuruak aurreko ekitaldiko mailari eutsi dio, egiturazko premiak eta premia iraunkorrak aldi baterako langileekin betetzen ari dira eta lanpostu hutsen kopuruak gora egin du. Horren on-dorioz, herritarrei zerbitzuak ematen jarraitu behar denez, NFKAko enpleguaren behin-behinekotasun indizeak balio handi eta kezkagarri samarra hartu du. Hala, giza faktorearen nolabaiteko deskapitalizazioa eta plantilla finakoaren zahartzea izan dira ondorioak.

### Langile-gastuaren egiaztapenak

Aztertu dugu ea SAP RRHH aplikazioan (hartan, nominak sortzen dira) kontabilizatutako gastua bat datorren SAPGE'21en eta aurrekontuan erregistratutakoarekin, eta egiaztatu dugu bat datozela nomina osatzen duten ordainsari-kontzeptu guztietako gastuak eta behar bezala kontabilizatuta daudela.

Gainera, NFKAko eta haren erakunde autonomoetako langileek 2021 osoan sortutako nomina-ren ordainsari-kontzeptuen lagina berrikusi dugu, kontuan hartu gabe ikastetxe itunduetako langileak, pasiboen araubidekoak, hilabetez lanpostu edo gradu batetik bestera aldatu direnak, eta hainbat arrazoirengatik hilabete osoan lan egin ez dutenak.

Zehazki, nominako 25 kontzeptu aztertu ditugu<sup>7</sup>, guztira 424.314 erregistrotan jasoak, 20.650 laguni dagozkienak, guztira 245,12 milioi euroko zenbatekoarekin. Zenbateko hori urte osoan NFKAko langileek kontzeptu horiengatik sortutako nominaren guztizkoaren ehuneko 29 da.

Egiaztatu dugu aztertutako langileek egoki jaso dituztela aztertutako ordainsari-kontzeptu guz-tiak, plantillan ezarritakoari jarraituz.

<sup>7</sup> Berrikusitako kontzeptu nagusiak honako hauek dira: maila, destinoa, arriskua, txandakako lana, lanpostua, zuzendaritza-lanpostua, irakaskuntzako lanpostu espezifikoa, eskusibotasuna, bateraezintasuna, lanaldiaren luzapena eta arrisku berezia. Halaber, gradua, antzinasuna eta oinarrizko soldatari lotutako hainbat kontzeptu aztertu dira.

## 5.5. ONDASUN ETA ZERBITZUETAN EGINDAKO GASTU ARRUNTAK

2021eko ekitaldiko ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak 743,75 milioioak izan ziren, eta gastu guztien ehuneko 15 egiten dute; horietatik ehuneko 54 Osasun Departamentuari dagozkio, eta ehuneko 19, berriz, Eskubide Sozialetako Departamentuari. Hona hemen aurrekontuko artikuluen arabera xehakapena eta haren eta 2020koaren arteko konparazioa:

Aurrekontuko artikulua	(milakotan)		
	Aitorturiko betebeharrak, 2020	Aitorturiko betebeharrak, 2021	2021/2020 aldea (%)
Errentamenduak eta kanonak	73.977	49.877	-33
Konponketak, mantentze-lana eta kontserbazioa	19.549	20.886	8
Materiala, hornidurak eta bestelakoak	449.853	470.994	5
Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak	1.650	2.826	72
Argitalpen-gastuak	372	385	3
Osasun laguntzako itunak	62.961	67.701	8
Giz. Zerb. Zorroan bernalutako giz. zerb. kudeatzea	129.537	131.079	1
<b>Gastua, guztira</b>	<b>737.899</b>	<b>743.748</b>	<b>1</b>

Kapitulu honetako gastuak 2020koen antzeko mailan egon dira, eta soilik ehuneko bateko gehikuntza izan dute, hau da, 5,08 milioioak. Nolanahi ere, artikuluek bilakaera desberdinak izan dituzte. Hala, nabarmentzen dira material, hornidura eta bestelako ehuneko bosteko igoera (21,14 milioioak) eta osasun laguntzako itunen ehuneko zortziko igoera (4,74 milioioak). Beste aldetik, errentamendu eta kanonak ehuneko 33 jaitsi dira, batez ere A-12 autobideko kanona murriztu egin delako Iruña-Logroño tartean: 2020an 49,52 milioioak izatetik 2021ean 29,12 milioioak izatera igaro da.

Gastuen lagin baten azterketa

Honako gastu hauetan osaera, 2020koekiko aldea eta sortzapen-printzipioaren aplikazioa aztertutitugu:

Gastuaren deskribapena	Zenbatekoa, 2020	Zenbatekoa, 2021	Aldea (%) 2021/2020
Osasun itunak	62.961.398	67.701.045	8
Itzaleko bidesarien kanonak	68.527.760	42.932.003	-37

Egindako azterketatik, honako konklusio hauek atera ditugu:

- Osasun itunen arloko gastua 67,70 milioioak izan zen, eta ehuneko zortzi egin zuen gora 2020. urtearekin alderatuta, funtsean gora egin zuelako Nafarroako Unibertsitatea Klinikak eta San Miguel Klinikak egindako jardueratik eratorritako gastuak; hurrenez hurren, ehuneko sei (1,38 milioi) gora eta ehuneko 154 (1,8 milioi) gora.

Ohikoa da, fakturak jasotzen diren datarengatik, ekitaldi bateko abenduko gastua hurrengo urteko aurrekontuari egoztea. Hala, 2021eko aurrekontuan 2020tik datorren 5,57 milioio gastua kontabilizatuta dago, eta, era berean, 2022ko aurrekontuan 2021eko ekitaldiko 4,97 milioio gastua erregistratu da.

Hauek dira zerbitzu hori eman duten hornitzaileen kopurua eta fakturatu duten zenbatekoa:

Zenbat hornitzaile	Jasotako zenbatekoa
2	>23 milioi
6	Milioi bat eta bost milioi bitarte
14	100.000 euro eta milioi bat bitarte
211	<100.000

Ikusten denez, osasun-itunak 233 hornitzaileekin egin ziren; horietatik bi 23 milioititik gorakoak dira: San Juan de Dios Ospitalea, 23,18 milioirekin, eta Nafarroako Unibertsitatea Klinikak, 23,40 milioirekin.

- Kanonen aurrekontu-gastua (itzaleko bidesariak) 42,93 milioikoa izan zen 2021ean. Hona hemen xehakatuta:

Kanona	(milakotan)		
	2020	2021	2021/2020 aldea (%)
Donejakue Bideko autobia	49.523	29.121	-41
Pirinioetako autobia	18.991	13.793	-27
Informatikaren arloko elkarte teknikoaren kuotak	8	8	-
Mailegu publikoagatiko ordainsaria	6	4	-29
Musikaren Hiria: jabetza intelektuala	-	6	-
<b>Guztira</b>	<b>68.528</b>	<b>42.932</b>	<b>2</b>

Donejakue Bideko autobiarri eta Pirinioetako autobiarri dagokien zenbatekoa nabarmen jaitsi da, COVID-19aren pandemian trafikoa urriagoa izan delako. Ondorioz, 2020ko ekitaldiko guztizko eta behin betiko likidazioak negatiboak izan dira biak ere, hurrenez hurren 10,35 milioikoa eta 2,38 milioikoa. Aplikatu beharreko emakida-kontratuaren arabera, likidazio horiek hurrengo ekitaldian konpentsatzen dira, eta funtsean horrexegatik jaitsi da bi kontzeptu horien gastua. Badira zenbateko txikiago horren beste arrazoi batzuk, hala nola KPIaren 2020ko aldakuntza 2021ean aplikatuta tarifak 0,5 jaitsi izana, edo trafikoa urritu izana 2020an, datu hori 2021eko konturako ordainketak kalkulatzeko erabiltzen baita.

Aurreko gastu horien euskarri den dokumentazioa aztertuta, ikusten dugu autobiei buruzko partidek 11 hilabeteren fakturazioa jasotzen dutela (urtarriletik azarora), bai eta aurreko ekitaldiko abenduko fakturazioa eta ekitaldi horren likidazioa ere. Hartara, 2021. urteari egotzitako 2020ko gastua 5,65 milioikoa da, eta 2022ko aurrekontuan erregistratutako 2021eko gastua, berriz, 4,56 milioikoa.

#### Kontratazio-espeditenteen lagin baten azterketa

NFKAk, CPENek eta NASERTICEk izapidetutako honako kontratazio-espeditente hauek fiskalizatu ditugu:

Xedea	Mota	Prozedura	Zenbat lizitazio-Adjudikazioaren zentzaile	Adjudikazioaren zenbatekoa	Adjudikazioaren beherapena (%)
Langileen bizi aseguruia, NFKA eta EEAAk (2021/05/01 - 2022/12/31)	Zerbitzuak	Irekia, Europar Batasuneko publikizitatearekin	3	3.847.694	Ez dagokio
Errepideko bidaiari garraio publiko erregularreko Iruña-Tafalla zerbitzuaren emakida	Zerbitzuak	Irekia, Europar Batasuneko publikizitatearekin	2	3.819.250	7,5
Argindar homidura 2022-2023 (CPEN)	Homidura	Irekia, Europar Batasuneko publikizitatearekin	7	2.819.948	1. sorta 5,24 2. sorta 8,06
Eskualdeko eskola jantoki osasungarri eta jasangarriak. 2021-2022 ikasturtea	Zerbitzuak	Irekia, Europar Batasuneko publikizitatearekin	10 lizit. 42 sortatarako	2.443.365	0,39 - 20 (batez besteko beherapena 13,49)
Lizarrako Osasun Barrutiko ikastetxeetako garbiketara (2021 eta 2022)	Zerbitzuak	Irekia, Europar Batasuneko publikizitatearekin	10 lizit. 2 sortatarako	1.463.444	1. sorta 0 2. sorta 4,40
NFKAren eta erakunde autonomoen ibilgailuak konpondu, berrikusi eta mantentzeko esparru akordioa	Zerbitzuak	Irekia, Europar Batasuneko publikizitatearekin	6 sorta	*	-
Nafarroako Gobernuaren telefonia finko banatuko sistemak (Nasertic)	Zerbitzuak	Irekia, Europar Batasuneko publikizitatearekin	2	163.536	15,70
Zentzumen anitzeko eta zentzumeneko estimulazio jarduerak, taldekoak eta terapeutikoak. San José CAIDIS zentroa	Zerbitzuak	Irekia, Europar Batasuneko publikizitatearekin	1	127.241	5,19
Esparru akordioa. Zerbitzuguneen hautaketa (2021)	Homidura	Irekia, Europar Batasuneko publikizitatearekin	4	*	-

\*Esparru akordioa denez, adjudikazio-hartzaileak hautatu besterik ez da egiten, zenbateko globalik ezarri gabe.

Aipatutako kontratazio-espeditenteak aztertuta, ondorioztatu dugu ezen, oro har, aplikatzeko den araudiaren arabera izapidetu zirela eta haiek betetzearen ondoriozko gastuak behar bezala erregistratuta eta kontabilizatuta daudela; halere, honako hau aipatu behar dugu:

- Eskola jantokietako zerbitzuaren adjudikazioari dagozkion baldintza-agirietan balorazio ekonomikoa egiteko formulak ez zituen modu linealean ematen puntuak; horrenbestez, ahalegin ekonomikoak ez zuen beti puntu sari berdina ekartzen.

- Langileen bizi eta heriotza aseguruaren kontratuaren adjudikazioa arautu zuten baldintza-agirietan balorazio ekonomikorako formula lineal bat zegoen, puntuak ematen zituena jasotako eskaintza altuenaren arabera. Ez da efizientea puntuazioa kasu guztietan ematea, horrela prezioari garrantzia kentzen baitzaio gainerako adjudikazio-irizpideen aldean.

- Bidaiarien garraio zerbitzuaren emakidarekin zerikusia duten baldintza-agirietan eta sinatutako kontratuan ez da ageri gutxieneko plantilla bati eta bermatutako gutxieneko lanaldi kopuru bati eutsi behar zaionik prestazioak iraun bitartean.

Halaber, araudian ezarritako epeak gainditu ziren eskaintzak ireki zirenetik kontratua adjudikatu zen arte, adjudikazioa egin zenetik kontratua formalizatu zen arte, eta adjudikazioa Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera igortzean.

- Erregai hartzeko zerbitzuguneen hautaketarako esparru-akordioan izaera sozialeko irizpideak ehuneko 5era heldu ziren, araudian ezarritakoa baino gutxiago.

Kontratu hau nola bete zen aztertzean, ikusi dugu ez zela beti fakturretan jartzen hura egiten zuen pertsonaren nortasun agiri nazionala, baldintza-agirietan ezarritakoaren kontra. NFKAk akats hori onartu du. Hori dela-eta, aipatzekoa da lizitatzaille bat baztertua izan zela bere eskaintzan baldintza hori onartzen ez zuela adierazi zuelako.

*Adjudikazio irizpideak arautuko dituzten balorazio haztatuko formulak diseinatzerakoan, gomendatzen dugu kontuan har daitezela lizitatzailleek aurkeztutako beherapenak, batez besteko beherapenaren irizpidea saihestuz.*



## 5.6. TRANSFERENTZIA ARRUNTENGATIKO GASTUAK ETA KAPITAL-TRANSFERENTZIEN-GATIKO GASTUAK

Transferentzia arruntak

2021ean emandako transferentzia arruntek 1.751,30 milioi euro egin zuten. Aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 35 izan ziren. Gastu horiek ehuneko lau egin zuten gora 2020koekin alderatuta, ondoren erakusten dugun bezala:

Aurrekontuko artikulua	(milakotan)		
	Aitorturiko betebehargarbiak, 2020	Aitorturiko betebehargarbiak, 2021	2021/2020 aldea (%)
Estatuko Administrazioari	549.464	534.927	-3
Fundazioei	12.760	12.454	-2
Enpresa publikoei eta beste ente publiko batzuei	104.180	107.480	3
Beste autonomia erkidego batzuei	0	19	-
Toki entitateei	334.224	340.835	2
Enpresa pribatuei	119.864	172.557	44
Familiei eta irabazi-asmorik gabeko erakundeei	559.197	582.996	4
Kanpora	18	33	83
<b>Guztira</b>	<b>1.679.707</b>	<b>1.751.301</b>	<b>4</b>

Gehikuntza (71,59 milioi) honako hauei zor zaie, funtsean: enpresa pribatuentzako transferentzien gorakadari –ehuneko 44, hau da, 2020an baino 52,69 milioi gehiago–, eta familientzako eta irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako transferentzien hazkundeari (ehuneko lau, 23,80 milioi). Hitzarmenaren ondoriozko ekarpen ekonomikoa dela-eta Estatuari egindako transferentzien ehuneko hiruko murrizketa nabarmentzen da (14,54 milioi gutxiago).

Kapital-transferentziak

2021ean baimendutako kapital-transferentziak 143,60 milioi eurokoak izan ziren. Ekitaldian aitortutako betebehargarbiak hiru egiten dute, eta ehuneko 15eko jaitsiera (25,43 milioikoa) izan zuten 2020koekin alderatuta, ondoren erakusten den bezala:

Kapital-transferentziak	(milakotan)		
	Aitorturiko betebehargarbiak, 2020	Aitorturiko betebehargarbiak, 2021	2021/2020 aldea (%)
Fundazioei	4.518	4.646	3
Enpresa publikoei eta beste ente publiko batzuei	2.115	5.158	144
Toki entitateei	62.785	30.263	-52
Enpresa pribatuei	60.267	51.852	-14
Familiei eta irabazi-asmorik gabeko erakundeei	39.348	51.681	31
<b>Guztira</b>	<b>169.033</b>	<b>143.600</b>	<b>-15</b>

Toki entitateei eta enpresa pribatuei egindako transferentzien beherakadak nabarmentzen dira –hurrenez hurren, ehuneko 52 (32,52 milioi) eta ehuneko 14 (8,42 milioi)–, bai eta familiei eta irabazi-asmorik gabeko entitateei egindakoen ehuneko 31ko gorakada ere (12,33 milioi gehiago).

Udal ikastetxeak eraikitzeke eta haietan obrak egiteko Suspertze Planera egindako kapital-transferentzietako gastua aztertu dugu. Gastu hori 2021ean 4,20 milioikoa izan zen, 2020an baino ehuneko 64 txikiagoa. Egindako azterketatik, gorabehera hauek dira azpimarragarriak:

- Gastu honek ikastetxeak eraikitzeke edo zaharberritzeke proiektuak, obra-zuzendaritza, segurtasun plana eta obrak finantzatzen ditu. Gastu hauei dagozkien kontratuak Hezkuntza Departamentuak lizitatzen ditu.

- Ez da dirulaguntzen deialdirik egiten. Aldiz, egin beharreko obrak plan gidari batean<sup>8</sup> zehazten dira, eta plan hori zenbait ekitalditan zehar gauzatzen da.

<sup>8</sup> Behar denean presako jarduketak egitea ere aurreikusten du plan horrek.

- Gastuok urteko emaitzen kontuan kontabilizatzen dira, egiten ari diren obren egoera balantzean islatu gabe. Baliteke ikastetxe horietan obraren bat gastuaren aurrekontu-ekitaldi berean amaitzea. Dena den, badira beste obra batzuk ekitaldi bat baino gehiago irauten dutenak inguruabar hori balantzean islarik izan gabe.

- Lizitatzaleei puntuazioa emateko erabilitako formula ez da linealki proportzionala. Dena den, adjudikazioaren emaitza ez litzateke aldatuko.

Gure gomendioak:

- Gerora udalak mantendu eta kontserbatuko duen ikastetxe batean egin beharreko obrak hitzarmen batean formalizatzea.

- Gerora udalak mantendu eta kontserbatuko duen ikastetxe bat eraikitzeko eta entregatzeko faseetan kontabilitateko isla egokia zein den aztertzea.

- Adjudikazio irizpideak arautuko dituzten balorazio haztatuko formulak diseinatzerakoan, kontuan hartzea lizitatzaleek aurkeztutako beherapenak, batez besteko beherapenaren irizpidea saihestuz.

### Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa.

Nafarroak, bere foru araubidearen indarrez, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean 1990eko uztailaren 31n sinatutako Hitzarmen Ekonomikoari jarraituz gauzatzen du bere finantza- eta tributu-jarduera. Hitzarmen hori abenduaren 26ko 28/1990 Legean araututa dago.

Hitzarmenak harmonizazio fiskalerako irizpideak ezartzen ditu, bai eta Nafarroak –Foru Komunitateak bere gain hartzen ez dituen Estatuaren zamak direla-eta eta tributuen diru-bilketaren doikuntzetarako– egin beharreko ekarpena kalkulatzeko metodoa ere. Ekarpene hori bost urteko epeetarako ezartzen da eta epe horiei aplikatzen zaie.

2020an beste bosturteko baten oinarritzko ekarpena ezarri behar zen. Ez 2020rako ez 2021erako onartu ez zenez, bigarren xedapen iragankorra aplikatu behar zen. Xedapen horren arabera, bosturtekoaren oinarritzat hartu behar den ekarpena ez bada epe barruan onartzen, zenbatekoa ekitaldi horretarako finkatuko da eguneratze-indizea aplikatuta, adostutako azken bosturteko urte bat balitz bezala.

Aurrekoa kontuan izanda, 2021ean Estatuarentzako behin-behineko ekarpena kalkulatu zen, Nafarroak bereganatutako espetxe-osasunaren arloko eskumenei zegokien zati proportzionala kenduta, uztailaren 6ko 494/2021 Errege Dekretuaren indarrez. Azkenean 534,93 milioiko ekarpena ezarri zen.

Taula honetan erakusten ditugu Hitzarmenarekin zerikusia duten gastuen eta diru-sarreraren 2021eko guztizko zenbatekoak, 2020koekin alderatuta:

	(milakotan)		
Hitzarmena-Aurrekontuko partida	2020	2021	2021/2020 aldea (%)
Estatuarentzako behin-behineko ekarpena	529.583	534.927	1
Estatuarentzako ekarpena. Behin betiko likidazioa	19.882	0	-
<b>Gastu-partiden guztizkoa - Hitzarmena</b>	<b>549.464</b>	<b>534.927</b>	<b>-3</b>
BEZaren ondoriozko doikuntzak	785.795	1.027.452	31
Alkoholaren eta edari eratorrien gaineko zerga bereziengatikoko doikuntza fiskala	-24.125	-27.819	-15
Garagardoaren gaineko zerga bereziengatikoko doikuntza fiskala	4.996	5.094	2
Tabakogaien gaineko zerga bereziengatikoko doikuntza fiskala	5.967	21.876	267
Hidrokarburoen gaineko zerga bereziengatikoko doikuntza fiskala	88.967	103.003	16
<i>BEZarengatikoko eta zerga bereziengatikoko doikuntzak atal honetan, guztira</i>	<i>861.600</i>	<i>1.129.606</i>	<i>31</i>
Diputazioen parte-hartzea Estatuaren tributuetan	100	102	2
<b>Diru-sarreraren partidak, guztira - Hitzarmena</b>	<b>861.700</b>	<b>1.129.708</b>	<b>31</b>

Hitzarmenaren ondoriozko 2021eko guztizko gastuak 534,93 milioi eurokoak izan ziren, eta bat datoz behin-behineko ekarpenarekin. Ekitaldian aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 11 egiten dute.

Hitzarmenean ezarritako egiazko diru-bilketaren doikuntzen ondoriozko diru-sarrerak zeharkako zergei dagozkie (BEZa eta zerga bereziak), eta Hitzarmen Ekonomikoan aurreikusitako formula eta metodoen arabera kalkulatu dira; ehuneko 31 handitu dira 2020ko aldean.

Hitzarmeneko gastuen eta diru-sarreraren 2017-2021 aldiko bilakaera

Hurrengo taulan erakusten dugu Hitzarmeneko gastuek eta diru-sarrerak nolako bilakaera izan duten 2017-2021 aldian:

	2017	2018	2019	2020	2021	(milakotan) 2021/2017 aldea (%)
Estatuarentzako ekarpena	509.175	529.583	529.583	529.583	534.927	5
Sektore elektriko zergengatiko konpentsazioa	1.965	0	0	0	0	-
Estatuarentzako ekarpena. Behin betiko likidazioa	0	0	18.162	19.882	0	-
<b>Hitzarmenaren gastuak, guztira</b>	<b>511.140</b>	<b>529.583</b>	<b>547.745</b>	<b>549.464</b>	<b>534.927</b>	<b>5</b>
BEZaren ondoriozko doikuntzak	889.110	969.918	1.053.354	785.795	1.027.452	16
Fabrikazioaren gaineko zerga bereziengatiko doikuntzak	113.860	52.378	80.501	75.805	102.154	-10
Estatuarentzako ekarpenaren behin betiko likidazioa	128.694	11.481	0	0	0	-
Diputazioen parte-hartzea Estatuko diru-sarreretan	92	93	94	100	102	11
<b>Hitzarmenaren diru-sarrerak, guztira</b>	<b>1.131.756</b>	<b>1.033.870</b>	<b>1.133.949</b>	<b>861.700</b>	<b>1.129.708</b>	<b>-0,2</b>

2021ean Estatuarentzako ekarpena ehuneko bost handitu da 2017koarekin alderatuta.

Diru-sarrerei dagokienez, 2021ekoak ia 2017koen berdina dira, baina haien osagaiek portaera desberdina dute; hala, BEZarengatiko doikuntzak nabarmen hazi dira, ehuneko 16 hain zuzen (138,34 milioi), eta, bestalde, 2021ean ez dago Estatuarentzako ekarpenaren behin betiko likidazioaren kalkuluagatiko diru-sarrera gehigarririk, 2017ean bezala; ordukoak 128,69 milioikoak izan ziren, guztira.

## 5.7. INBERTSIOAK ETA IBILGETU EZ-FINANTZARIOA


2021eko inbertsioak 169,76 milioioak izan ziren –aitortutako betebeharrak guztien ehuneko hiru-, eta ehuneko 82ko betetze maila izan zuten; taula honetan azaltzen da 2020ko gastuarekiko konparazioa:

Aurrekontuko artikulua	Aitorturiko betebeharrak, 2020	Aitorturiko betebeharrak, 2021	2021/2020 aldea %
Lurrak eta ondasun naturalak	557	638	15
Obra publikoak	55.622	77.226	39
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	30.064	34.772	15
Makinak, instalazioak eta tresnak	2.325	3.260	50
Garraio materiala	2.958	2.260	-24
Altzariak eta tresneria	16.205	13.871	-14
Informazioa prozesatzeko ekipamenduak	13.103	9.145	-30
Bestelako ibilgetu materiala	2.857	2.338	-18
Ibilgetu ez-materiala	18.445	26.245	42
<b>Guztira</b>	<b>142.136</b>	<b>169.755</b>	<b>19</b>

(milakotan)

Inbertsioen ehuneko 44 (74,85 milioi) Lurralde Kohesiorako Departamentuari dagokio, eta ehuneko 21, berriz, Osasun Departamentuari (35,43 milioi).

2021eko inbertsioak ehuneko 19 gehiago izan ziren 2020an gauzatutakoak baino; igoera hori 2012koaren parekoa da, hurrengo grafikoan ageri denez:



Kontabilitate eta Aurrekontu Zerbitzuak, Ondare Zerbitzuarekin elkarlanean, inbentarioa aztertu eta eguneratzeko prozesua egin du honako ibilgetuaren epigrafeei buruzko hauetatik: lurralde, eraikuntzak, Ondare Historikoko eraikuntzak, lurretako inbertsioak, eraikuntzetako inbertsioak, egiten ari diren eraikuntzak eta salgai dauden aktiboak.

Gainera, zerbitzuak elementu horien birsailkapena egin zuen Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorreko azpiegituraren arabera, eta zehaztu zituen elementu bakoitzari aplikatu beharreko amortizazio irizpideak, aztertutako osagaiei zegokien amortizazioa kalkulatu.

Aزتutako epigrafeen amaierako zenbatekoa 1.189,32 milioi izan zen.

Prozesu hori aztertu ondoren, Ganberak uste du prozesua zentzuzkoa dela, oro har, eta balantzean islatutako zenbatekoak egokiak direla eta aipagai dituzten elementuen irudi zehatza ematen dutela. Hala ere, honako hau azpimarratu nahi dugu: Ondare Zerbitzuak 2021 aurreko elementu batzuei egindako altetan ez zen bereizten zein zati zen lursaila eta zein zegokien eraikuntzei. Nahiz eta zenbait kontutan azpiatalak egin diren eraikuntzen zatiari soilik dagokion amortizazioa zuzkitu ahal izateko, beharrezkoa litzateke horrelako osagaien etorkizuneko altetan bi zatia bereiztea amortizazioaren kontabilizazioa errazteko.

*Gomendatzen dugu ibilgetuaren altetan eraikuntzei dagokien zatia eta lursaila dagokiena bereiztea, beharrezkoa den kasuetan, haien amortizazioa behar bezala zuzkitu ahal izateko.*

Kontratazio espedienteen lagin baten azterketa

NFKAren, Nasuvinsaren, Nilsaren eta CENER fundazioaren inbertsioen adjudikazio espedienteen eta 2021ean ekarri dituzten gastuen lagin bat aztertu dugu. Hona diru-sarrerara horiek zehaztuta:

Xedea	Prozedura	Zenbat lizitzaile	Adjudikazioaren zenbatekoa	Adjudikazioaren beherapena (%)
N-121-A errepidea 2+1 bide bihurtzea 10+500 KPtik (Olabeko zeharbidea) 22+500 KPra	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik gora	7	8.962.446	20
Alokatzeko babes ofizialeko 27 etxebizitza. Los Tilos pasealekua z.g., Azucarera, Tuter (Nasuvinsa)	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	3	3.672.162	7
Haize-sorgailuen saiakuntzetarako laborategia handitzea (CENER fundazioa)	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	4	2.664.554	9
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu berri baten obrak Agoitzen	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	4	2.389.610	14
Akoplamendu inдукtiboko plasmaren bidezko masa-espektrometro (ICM-MS) baten hornidura, ematea eta instalazioa	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	3	72.200	39
Fiteroko HUA birmoldatzea (Nilsa)	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	9	2.003.400	23
Tutera ekialdeko (Santa Ana) osasun etxeko soloko eta beheko solairuak zaharberritzea	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	6	1.537.995	26
Egiturazko birgailte lanak AP-15 - Nafarroako Autobidearen gaineko zubian, Iruñeko Ingurubidean (PA-30, 0+300 KP)	Larrialdia	1	951.299	-
40 haizagailuren hornidura eta instalazio mekanikoa, Belateko eta Almandozko tuneletako aireztatze sistemak berritzeko	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik gora	2	1.049.117	10
Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuaren esparru akordioan sartutako hardware ekipamendua	Simplifikatua	3	470.000	9
Larruazalean zeharreko balbula aortikoak. Nafarroako Ospitaleguneko Hemodinamika Zerbitzua	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik gora	2	5.902.000	0
Kontrolagailuaren eta haren softwarearen hornidura, pala-bankuaren kontrol eta jarduketa sistemarako (CENER fundazioa)	Negoziatua Lizitazio deialdirik gabe	1	199.200	-

Oro har, aipatutako kontratuak adjudikatzeko espedienteak araudiaren arabera izapidetu dira eta haiekien zerikusia duten 2021eko gastuak behar bezala kontabilizatuta daude. Hala ere, gora-behera hauek azpimarratu behar ditugu:

- CENER fundazioak, laborategia handitzeko obra adjudikatzeko, balorazio ekonomikorako formula lineal bat erabili zuen, lizitazio prezioaren beherapenik aurkeztu ez zuten eskaintzei ere puntuazioa ematen ziena.

Bestalde, adjudikatutako zenbatekoaren ehuneko hamarreko behin betiko bermea eskatu zuen fundazioak, araudian ezarritako ehuneko lauko muga gaindituta.

- Aurreko fundazioak ez duen kontraturik egin pala-bankuaren jarduketa eta kontrol sistemarako softwarea eta kontrolagailua erosteko. Oinarri bakarra eskari-orri bat izan zen.

- 2021eko urrian, Azpiegitura Berrien Zerbitzuak proposatu zuen N-121-A errepidearen eraldaketarekin zerikusia zuen kontratuan aldaketa bat egitea, proiektuan aurreikusitako unitateen gehikuntza eta murrizketa zekartzana, bai eta beste unitate berri batzuk onestea ere, beren prezioekin; aldaketa horretarako 3,18 milioiko gastu gehigarria onetsi behar zen (adjudikazio zenbatekoaren ehuneko 29), kontratuko urtekoak doitu behar ziren eta hiru hilabetez luzatu behar zen gauzatze epea.

Proposamen teknikoan, egileari egozteko moduko proiektuko akats edo hutsunetzat jo zitezkeen desbideratzeen zenbateko ekonomikoa kalkulatu zen: guztira, 1,75 milioi (BEZa barne), hau da, kontratuaren adjudikazio-aurrekontuaren ehuneko 16. Proiektua egiteko kontratuan ezarri zen bidezkoak zirela proiektuko akatsengatiko kalte-ordainak baldin eta zenbatekoaren ehuneko 20tik gorako desbideratzeak gertatzen baziren. Beraz, ez zen bidezkoa izan kalte-ordaina erreklamaztea.

Proposamen teknikoak kontratua aldatzeko justifikazioa bilatu zuen aplikatzekoa den kontratazio-araudiaren 114.3.a) apartatuan, hots, entitate adjudikatzaile arduratsu batek aurreikusi ezin dituen inguruabarrak gertatzeari buruzkoan. Aldaketa-proposamen horrek aldeko txosten juridikoa jaso zuen.

Hala ere, Kontu-hartzailera Orokorrak eragozpen-ohar etengarria egin zuen aldaketa horri buruz, esanez espedientearen azterketatik ezin zela ondorioztatu, oro har, halako aldaketak justifikatzeko moduko ustekabeko inguruabarrak gertatu zirenik. Adierazi zuen, gainera, akats gehienak eta obra berrien beharra agerian jarri behar ziratekeela proiektuaren beraren azterketa batean eta hasierako baldintzak betetzen ote ziren egiaztatzeko obrak hasitakoan bertatik bertara egin zen egiaztatzen batean.

Eragozpen-oharrari erantzunez, Azpiegitura Berrien Zerbitzuak adierazi zuen proposatutako aldaketa gehienak ezin izan zirela detektatu obraren exekuzio fasera arte. Halaber, obrak zirela-eta errepideko bide segurtasuna kolokan zegoela eta eragozpen-oharraren ondoren obrak geldiarazi egin beharko zirela azpimarratu zuten.

Nafarroako Gobernuak desadostasuna ebatzi zuen gobernu erabaki baten bidez. Lurralde Kohesiorako Departamentuaren alde egin zuen, haren erabakia justifikatuz honako puntu hauetan:

a) Organo kudeatzailearen txostena. Bertan, azalpen tekniko luze batean adierazten da nola kontratua aldatzea justifikatuz jotzen den, aurreikusi ezin ziren inguruabar batzuk gertatu direlako ezustean, gehienak obra fasean detektatuak.

b) Egiten ari den obraren egoera. Trafiko handiko errepide batean egiten ari da, eta errepide horretako bide segurtasuna kolokan dago.

c) Aldaketari uko egin eta beste lizitazio bat egiteak ekarriko lukeen gailak. Izan ere, gauzatutako obraren inbentarioa egin behar litzateke, eta gauzatu gabe dauden unitateen prezioa aztertu; ziur aski prezioak gora egiten luke, materialen egungo gailak erabiliko materialen eskala-ekonomiarengatik.

d) Beste lizitazio bat eginez gero, obra amaitzeko urte eta erdiko atzerapena aurreikusten da.

## 5.8. ZERGAK, TASAK, PREZIO PUBLIKOAK ETA BESTELAKO DIRU-SARRERAK

Zergak

2021eko ekitaldian zergengatik aitortutako eskubide garbiek 4.176,09 milioi egin zuten. Eskubideen guztizkoaren ehuneko 82 egiten dute.

Ondoren, eskubide horiek erakusten ditugu, zerga-figura desberdinetarako, bai eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa ere:

(milakotan)			
Aurrekontuko artikulua	Aitortutako eskubide garbiak, 2020	Aitortutako eskubide garbiak, 2021	2021/2020 aldea (%)
PFEZa	1.538.518	1.644.320	7
Sozietateen gaineko zerga	250.234	320.390	28
Egoiliar ez direnen errenta	-1.788	2.097	217
Ondarea	40.132	36.501	-9
Oinordetzak eta dohaintzak	61.640	56.408	-8
Banku-gordailuen gainean	5.590	6.092	9
Energia-ekoizpenaren balioaren gainean	30.173	29.329	-3
Saltoki handiak	1.545	2.372	54
Loterietako eta apustueta sariak	2.525	3.936	56
<b>1. Zuzeneko zergak</b>	<b>1.928.569</b>	<b>2.101.445</b>	<b>9</b>
BEZa	1.184.317	1.461.283	23
Zerga bereziak	461.484	498.935	8
Kontsumoen gaineko beste zerga berariazko batzuk	-5	-	-
Aseguru primen gaineko zerga	21.748	28.782	32
Ondare eskualdaketak	47.348	65.216	38
Egintza juridiko dokumentatuak	12.665	17.915	41
Joko-jarduerak	1.844	1.894	3
Berotelegi-efektuko gas fluordunak	727	620	-15
<b>2. Zeharkako zergak</b>	<b>1.730.128</b>	<b>2.074.645</b>	<b>20</b>
<b>Zergak, guztira</b>	<b>3.658.697</b>	<b>4.176.090</b>	<b>14</b>

Azterketa egin ondoren, honako alderdi hauek nabarmentzen ditugu:

- Zergengatik aitortutako eskubideak ehuneko 14 igo dira 2020ko aldean, 3.658,70 milioitik 4.176,09 milioira; zerga-figura gehienek izan dute gehikuntza neurri handiagoan edo txikiagoan.

- Hiru zerga-figura garrantzitsuenei dagozkien eskubideek gora egin dute: PFEZak ehuneko zazpi (105,80 milioi), sozietateen gaineko zergak ehuneko 28 (70,16 milioi) eta BEZak ehuneko 23 (276,97 milioi).

Igoera horien arrazoi nagusietako bat da ekonomia normaltasunera itzuli dela, COVID-19ak 2020an izan zuen inaktuaren ondoren.

- BEZari dagokionez, kontuan hartu behar da ea zerga horrengatik aitortutako eskubideak Nafarroaren zuzeneko kudeaketatik datozen edo Estatutik datozen, Hitzarmen Ekonomikoan zerga-figura horri buruz ezarritako doikuntzak direla-eta. Hona diru-sarrera horien jatorria banakatuta:

(milakotan)						
Aitortutako BEZa	2019		2020		2021	
	Zenbatekoa	Ehunekoa	Zenbatekoa	Ehunekoa	Zenbatekoa	Ehunekoa
Zuzeneko kudeaketa	290.065	22	398.522	34	433.831	30
Hitzarmeneko doikuntza	1.053.354	78	785.795	66	1.027.452	70
<b>BEZa, guztira</b>	<b>1.343.419</b>	<b>100</b>	<b>1.184.317</b>	<b>100</b>	<b>1.461.283</b>	<b>100</b>

Ikusten den bezala, aitortutako eskubide gehienak Hitzarmeneko doikuntzen ondorioz sortu dira; 2021ean, Nafarroako Zerga Ogasunaren BEZaren zuzeneko kudeaketa jaitzi egin da, eta 2020an BEZarengatik eskubide guztien ehuneko 34 izatetik ehuneko 30 izatera igaro da.

Bestalde, 2021eko ekitaldiaren itxieran konpentsatu beharreko BEZa 69,95 milioikoa da, eta itzulketa eskatzeko eskubidea edo zenbateko horren konpentsazioa egitekoa lau urteren buruan iraungitzen da (itzulketa hurrengo ekitaldiko urtarrietik aurrera eska daiteke). BEZ hori CAT kontu batean jasotzen da. "BEZ orokorra" izena dauka kontuak, eta ez da kontabilitate orokorrean islatzen. Aurrekontuari egozten zaio itzultzen edo konpentsatzen denean, baldin eta konpentsaziotik

NFORi ordaindu beharreko saldo bat ateratzen bada. Oroitidazkian, ez da kontu horri buruzko informaziorik ematen.

- CATetik kudeatutako itzulketak –eskudirukoak nahiz konpentsaziokoak izan–, orokorrean aurrekontu-likidaziora aldatu direnak, 1.409,59 eurokoak izan dira; kopuru hori ehuneko bi handiagoa izan da 2020koa baino. Itzulketen izaerari erreparatuta, haien ehuneko 83 eskudirukoak izan dira.

Ondoren, 2021eko zerga garrantzitsuenen itzulketak azaltzen ditugu, aurreko ekitaldikoekin alderatuta:

(milakotan)		
Zergen itzulketa	2020	2021
BEZa, zuzeneko kudeaketa	1.074.217	1.086.632
PFEZa	210.206	239.853
Sozietateen gaineko zerga	83.250	59.882

Azken urteetan gertatu den bezala, zuzenean kudeatutako BEZa da itzulketa bolumen handiena sortzen duena: guztizkoaren ehuneko 71.

- Kontu orokorren oroitidazkiak informazioa dakar zerga-onuren exekuzioari buruz; honako hau da haren laburpena:

(milakotan)			
Zergak	Aurrekontua 2021eko onura fisk.	Emaizak, 2021	Gauzatze ehunekoa
PFEZa	401.249	412.460	103
Sozietateen gaineko zerga	120.276	106.998	89
Ondarea	30.962	31.153	101
Egoiliar ez direnen errenta	4.754	1.303	27
Oinordetzak eta dohaintzak	9.520	10.306	108
<b>1. Zuzeneko zergak</b>	<b>566.761</b>	<b>562.220</b>	<b>99</b>
BEZa	774.321	897.916	116
Zerga bereziak	71.552	65.161	91
Aseguru primen gaineko zerga	9.421	10.978	117
Ondare eskualdaketak eta egintza juridiko dokumentatuak	6.604	8.219	124
<b>2. Zeharkako zergak</b>	<b>861.898</b>	<b>982.274</b>	<b>114</b>
<b>Onura fiskalak, guztira</b>	<b>1.428.659</b>	<b>1.544.494</b>	<b>108</b>

Oroitidazkiak dakarren informazioaren arabera, 2021eko onura fiskalak 1.544,49 milioikoak dira; zenbateko hori ehuneko zortzi handiagoa da aurreikusitakoa baino. Oroitidazkian ez da datu-rik ematen onura fiskal bakoitzarekin lortu nahi diren helburuei eta horiek bete izateari buruz.

Halaber, Ganbera honen txostenetan azken urte hauetan aipatu bezala, adierazgarria da onura fiskal horiek, 2021eko ekitaldian, onura fiskalik ez balego izan genituzkeen aitortutako eskubide garbien ehuneko 27 izatea.

*Gomendatzen dugu oroitidazkian BEZ orokorra izeneko kontuari buruzko informazioa ematea.*



Zerga iruzurraren kontrako borroka

Nafarroako Zerga Ogasunak Ganbera honi emandako informazioaren arabera, 2011tik 2021era zerga iruzurraren aurkako borrokak diru-sarrerara hauek sortu ditu:

(milakotan)

Ekitaldia	Tributuen kudeaketa	Ikuskapena	Tributu arloko bestelako jard.*	Guztizko zenbatekoa	Indizea
2011	52.045	38.808	-	90.853	100
2012	58.648	69.499	-	128.147	141
2013	57.358	37.826	-	95.184	105
2014	56.137	28.681	-	84.818	93
2015	50.992	45.610	8.129	104.731	115
2016	58.774	46.142	19.363	124.279	137
2017	94.408	33.586	20.984	148.978	164
2018	88.961	53.993	27.154	170.108	187
2019	93.514	38.536	23.487	155.537	171
2020	56.782	27.154	74.380	158.316	174
2021	55.447	53.375	11.480	120.302	159

\* 2015ean hasi zen bestelako tributu jarduketaren kontaketa.

Zerga iruzurraren aurkako borrokak sortutako diru-sarrerak gorabehera nabarmenak izan dituzte, eta 2014an izan dute balio txikiena. Geroztik, ordea, gora egin dute. 2021ean 120,30 milioio-koak izan dira, 2020an baino ehuneko 24 apalagoak. Nafarroako Foru Ogasunaren oroitidazkiak dioenez, hau izan liteke beherakada horren arrazoa: “...laguntzaren, prebentzioaren eta informazio bilketaren arloetan lortutako emaitza hobeei borondatezko betetzea sustatu dute eta alderantzizko eragina izan dute erregularizazioan...”.

Taula honetan, 2020ko eta 2021eko ekitaldietako iruzurraren aurkako jarduketak alderatu ditugu, xehetasun handiagoz, NFOren oroitidazkian jasotako informazioaren arabera:

(milakotan)

Zerga iruzurraren kontrako borroka	2020		2021	
Ikuskapena	Jarduketa kop.	Zenbatekoa	Jarduketa kop.	Zenbatekoa
Ikuskapen aktak	3.636	15.356	4.856	16.875
Zehapen espedienteak	1.543	6.071	1.702	6.406
Erantzukizun zibila, delituengatik	25	1.045	2	18.439
Ikuskapenak eragindako erregularizazioak	17	760	24	9.360
Kreditu fiskalak deuseztatzea	80	3.922	63	2.293
<b>Ikuskapena, guztira</b>	<b>5.301</b>	<b>27.154</b>	<b>6.647</b>	<b>53.375</b>
Zergen kudeaketa	Likidazioen kop.	Zenbatekoa	Likidazioen kop.	Zenbatekoa
BEZa	6.924	10.817	5.977	7.747
PFEZa	3.730	5.739	3.925	4.899
Sozietateen gaineko zerga	769	4.847	954	3.585
Gainerako zergak	2.020	6.085	1.819	12.499
Zehapenak	27.505	10.557	17.715	8.869
Epez kanpoko aitortpenen errekarquak	4.171	1.123	5.734	1.886
Errekerimenduak	7.185	3.082	8.055	2.600
Kudeaketak eragindako diru-sarrerak	7.486	14.532	6.550	13.362
<b>Tributu-kudeaketa, guztira</b>	<b>59.790</b>	<b>56.782</b>	<b>50.729</b>	<b>55.477</b>

2021ean, ikuskapen arloko jarduketak ehuneko 25 gehiago izan dira 2020an baino (1.346 gehiago), eta horrek ehuneko 97ko eragin positiboa (26,22 milioio-koa) izan du sortutako diru-sarreretan. Tributuen kudeaketari dagokionez, 2020an baino 9.061 likidazio gutxiago egin dira 2021ean, eta sortutako diru-sarrerak ehuneko bi (1,33 milioi) txikiagoak izan dira aurreko urtekoak baino.

Diru-sarrera horiek sortu izanak ez du esan nahi zenbateko horiek kobratu direnik. Arestian aipatu dugun bezala, CATen diseinuan eta tributuen kudeaketarako eta kontabilitaterako erabiltzen diren aplikazio informatikoen artean dauden arazoak direla-eta, ezin dugu identifikatu zerga iruzurraren aurkako borrokan detektatutako kopurutik zenbat diru bildu den egiazki.

Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk

Tasak, prezio publikoak eta aitortutako bestelako diru-sarrera garbiak 151,56 milioikoak izan dira 2021. urtean. Ekitaldiko eskubide guztien ehuneko hiru egiten dute, eta honako kontzeptu hauei dagozkie:

(milakotan)

Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	Aitorturiko eskubide garbiak, 2020	Aitorturiko eskubide garbiak, 2021	2021/2020 aldea %
Tasak	13.250	11.742	-11
Prezio publikoak	51.238	57.694	13
Ondasunak saltzea	2.126	2.108	-1
Eragiketen itzulketak	9.445	21.323	126
Beste diru-sarrera batzuk	53.959	58.690	9
<b>Guztira</b>	<b>130.018</b>	<b>151.557</b>	<b>17</b>

Kapitulu honen osagairik aipagarriena prezio publikoen bidezko diru-sarrerei dagokie: 57,70 milioikoak izan ziren, eta horien artean nabarmentzekoak dira osasun zerbitzuak eta gizarte zerbitzuak emateagatiko diru-sarrerak, 55,44 milioi egiten dutenak.

Bestetik, tasen bidezko diru-sarrerak 11,74 milioikoak izan ziren, eta horietatik 7,30 milioi joko-jardueratik heldutako tasei dagozkie.

Honako hauek dira "bestelako diru-sarrerak" izendapenaren pean sartzen diren kontzeptu nagusiak: isunak eta zehapenak, 19,90 milioi; ginkarguak, 16,16 milioi, eta berandutza-interesak, azkenik, 8,50 milioi.

Eragiketen itzulketan sartzen da, beste kontzeptu batzuen artean, ekitaldi itxietako eragiketen itzulketa, zeinak 15,03 milioi egiten baitu. Zenbateko hori aztertuta, egiaztatu dugu arrazoizkoa dela, justifikatuta dagoela eta behar bezala kontabilizatu dela, aplikatzekoa den araudia betez. Errenta bermatua dela-eta bidegabeki jasotako diru kopuruen itzulketa onesten duten ebazpenek, ordea, ez dute behar adina zehazten nola kalkulatu den zenbatekoa, eta baliteke horrek ulertzeko zailtasuna sortzea interesdunei.

*Bidegabeki jasotako diru-sarreren itzulketari buruzko ebazpenetan, gomendatzen dugu zenbatekoa nola kalkulatu den zehaztea, interesdunak errazago ulertzeko.*

## 5.9. BESTE DIRU-SARRERA BATZUK

Transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak

Transferentzia arrunten eta kapital-transferentzien bidezko diru-sarrerak 380,70 eta 189,70 milioioak izan ziren, hurrenez hurren, ondoren azaltzen dugun bezala:

(milakotan)

Aurrekontuko artikulua	Aitortutako eskubide garbiak, 2020	Aitortutako eskubide garbiak, 2021	2021/2020 aldea (%)
Estatuko Administrazio Orokorren transferentzia arruntak	227.397	356.211	57
Fundazioen transferentzia arruntak	236	178	-25
Enpresa publikoen eta beste ente publiko batzuen transferentzia arruntak	154	97	-37
Toki entitateen transferentzia arruntak	1.270	2.007	58
Enpresa pribatuen transferentzia arruntak	216	194	-10
Familien eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen transferentzia arruntak	201	35	-83
Kanpotik datozen transferentzia arruntak	14.358	21.976	53
<b>Transferentzia arruntak, guztira</b>	<b>243.831</b>	<b>380.698</b>	<b>56</b>
Estatuko Administrazio Orokorren kapital-transferentziak	9.042	152.475	1.586
Enpresa publikoen eta beste ente publiko batzuen kapital-transferentziak	41	0	-
Toki entitateen kapital-transferentziak	3.453	1.396	-60
Enpresa pribatuenak	0	114	-
Familien eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen kapital-transferentziak	6	0	-
Kanpotik datozen kapital-transferentziak	7.978	35.711	348
<b>Kapital-transferentziak, guztira</b>	<b>20.520</b>	<b>189.696</b>	<b>824</b>

Transferentzia arrunten bidezko diru-sarrerek ehuneko 56 egin dute gora (136,87 milioi) 2020koekin alderatuta, eta arrazoi nagusia da Estatutik jasotakoak ehuneko 57 handitu direla (128,81 milioi gehiago). Hain zuzen ere, 59,25 milioi gehiago jaso ziren COVID-19ari aurre egiteko, eta 49,96 milioi jaso ziren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismitik (2020an ez zegoen halakorik).

Kapital-transferentzien bidezko diru-sarrerak ehuneko 824 hazi ziren (169,18 milioi gehiago), eta arrazoi nagusia, berriz ere, Estatutik SEMen bitartez jasotako 124,60 milioiko diru-sarrerak dira, 2020an ez baitzen halakorik izan. 2020an jaso ez ziren beste diru-sarrera batzuk ere izan ziren 2021ean, hala nola errepideak berrizatzeko 15,88 milioiak edo ETEen birgaitze energetiko-rako sei milioiak.

Honako transferentzia hauen gauzatzea aztertu dugu:

(milakotan)

	Aitortutako eskubide garbiak 2021	Diru-bilketa garbia, 2021
Estatuaren kapital-transferentzia N121A errepidea zaharberritzeko	15.000	0
Estatuaren transferentzia arrunta eskualdatutako zerbitzu eta diru-sar- rengatik	1.578	1.578

Egindako azterketatik ondorioztatu dugu ezen errepidea zaharberritzeko jasotako transferentziaren espediente izapidetzerakoan aplikatzekoa den araudiari jarraitu zaiola, zenbatekoak ezarritako epeetan jaso direla eta NFKAK betebeharrak bete dituela txosten hau egin den datara arte. Zehazki, 2022ko urtarrilean kobratutako dirulaguntza horren aurretik hamar milioiko beste bat jaso zen 2019an helburu bererako, eta 2021ean justifikatu da. 2021ean jasotakoa justifikatzeko epea hiru urtekoa da, jasotzen denetik hasita.

Transferentzia horrekin lotuta egindako gastuak 12,85 milioioak dira 2022ko urriaren 1ean.

Eskualdatutako diru-sarrerak eta zerbitzuak direla-eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak Estatutik jasotako transferentzia arruntari buruz honako hau adierazi behar dugu:

- Diru-sarrera hori Nafarroak eskumen-eskualdatze baten ondorioz jasotzen dituen funtsei dagokie, abuztuaren 1eko 1327/1997 Errege Dekretua dela medio, zeinak handitzen baititu Estatuko Administrazioak Nafarroako Foru Komunitateari nekazaritzaren arloan eskualdatutako zerbitzuei

atxikitako baliabideak, Nekazaritza Bermatzeko Espainiako Funtsekoak (NBEF) gehituz. Hona hemen 2012-2021 aldian partida horrek izan duten exekuzioa:

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Jasotako zenbatekoa	507.556	471.030	473.385	475.752	480.726	490.132	500.547	0	0	1.577.949

- 2019an eta 2020an ez zen batere diru-sarrerarik jaso kontzeptu horrengatik, Estatuko Kontu-hartzaitza Nagusiak eten egin zielako transferentzia hori bai Nafarroari bai EAeri, justifikaziorik ez zuela iritzita. NFKAtik adierazi digute ez dakitela nondik datozen eta nola kalkulatu diren funts horiek, eta, aipatutako urteetan jasotzeari utzi zitzaionean, ez zitzaiola Estatuari diru kopururik erreklamatu.

- 2021ean jasotako zenbatekoak 2019ko, 2020ko eta 2021eko zenbatekoak biltzen ditu, eta EAJ-PNV talde parlamentarioak 2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorrei egindako zuzenketa bati esker jaso dira. Zuzenketa horretan eskatu zen “*erregularizatu daitezela kupoaz kanpoko eskualdatze-kostuengatik finantzia-fluxuak 2019., 2020. eta 2021. urteetarako*”. Zuzenketa hori onetsi egin zen, eta Nafarroa ere barruan hartzen zuen.

*Gomendatzen dugu ekarpenaz kanpoko eskualdatze-kostuak direla-eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak urtero jasotzen dituen diru-sarreraren kontrola eta jarraipena egitea.*

## 5.10. EPE LABURREKO ZORDUNAK ETA HARTZEKODUNAK

### Zordunak

2021eko abenduaren 31n, hartzekodunen saldoa 397,60 milioikoa zen, eta honako hauei zegokien:

	(milakotan)		
Zordunak	2020/12/31	2021/12/31	2021/2020 aldea (%)
Aurrekontuko zordunak	904.852	930.126	3
Aurrekontuko ez diren zordunak	38.575	64.389	67
Beste ente publiko batzuen baliabideetako zordunak	3.572	3.221	-10
Bestelako zordunak	5.193	6.163	19
Kaudimengabeziatarako zuzkidura	(571.247)	(606.304)	6
<b>Zordunak, guztira</b>	<b>380.945</b>	<b>397.595</b>	<b>4</b>

Aurreko taula aztertuta, honako alderdi hauek azpimarratuko ditugu:

- Aurrekontuko zordunak dira osagai garrantzitsuenak, eta, funtsean, kudeaketa arrunteko egoeran, premiamendu-bidean edo tributu-zorra geroratuko egoeran dauden tributu-zordunak dira.

2021eko abenduaren 31n saldoa 930,13 milioikoa zen, eta haren ehuneko 65 kaudimengabeziei zegokien (606,30 milioi euro). Hauxe da banaketa:

	(milakotan)		
Aurrekontuko zordunak	2020/12/31	2021/12/31	2021/2020 aldea (%)
Departamentuetako zordunak	13.146	30.752	134
Zordunak: ohiko kudeaketa	220.372	200.687	-9
Luzapena eman zaien zordunak	67.035	65.538	-2
Premiamendu bideko zordunak	576.657	627.430	9
Egoera berezietako zordunak	13.818	9.603	-31
Erosketak itzultzeagatik zordunak	447	675	51
<b>Zordunak, guztira</b>	<b>891.475</b>	<b>934.685</b>	<b>5</b>
Sortu ez diren korrituak eta errekarquak	13.377	-4.559 <sup>9</sup>	-134
<b>Aurrekontuko zordunak, guztira</b>	<b>904.852</b>	<b>930.126</b>	<b>3</b>

<sup>9</sup> Kontu hau erregularizatu egin da, Ganbera honek 2020ko kontu orokorrei buruzko txostenean emandako gomendio bati jarraituz.

Aurrekontuko zordunen 2021eko saldo orokorra aurreko ekitaldikoa baino ehuneko hiru (25,27 milioi) handiagoa da, baina kontzeptuz kontzeptuko bilakaera desberdina izan da. Azpimarratzekoa da premiamendu-bideko zordunen ehuneko bederatziko (50,77 milioiko) igoera, bai eta departamentuetako zordunen ehuneko 134ko igoera ere (17,61 milioikoa), eta, bestalde, kudeaketa arrunteko zordunen ehuneko bederatziko jaitsiera (19,69 milioikoa).

- “Beste zordun batzuk” xehatzeari dagokionez, nabarmentzekoa da CATen formalizatzeko dauden eragiketen kontua (CATen eta kontabilitatearen arteko lotura-kontua); 5,38 milioiko saldoa baitu. Ganbera honek aurreko txostenetan ohartarazi duenez, zenbateko hori ez dago behar bezala inarrituta.

### Epe laburreko hartzekodunak

Epe laburreko hartzekodunen saldoa, obligazioen eta beste balore negoziagarri batzuen jaulkipenari dagozkionak jaso gabe, 347,63 milioikoa da 2021eko abenduaren 31n, eta honako hauei dagokie:

(milakotan)			
Epe laburreko hartzekodunak	2020/12/31	2021/12/31	2021/2020 aldea (%)
Aurrekontuko hartzekodunak	236.602	177.376	-25
Beste entitate batzuen konturako baliabideak administratzeagatiko hartzekodunak	10.123	9.166	-9
Administrazio publikoak	4.619	4.796	4
Bestelako hartzekodunak	157.699	148.926	-6
Epe laburreko fidantzak eta gordailuak	4.394	7.363	68
<b>Epe laburreko hartzekodunak, guztira</b>	<b>413.437</b>	<b>347.627</b>	<b>-16</b>

Hartzekodun horiek ehuneko 16 (65,81 milioi) egin dute behera. Osagai garrantzitsuena aurrekontuko hartzekodunak dira, zeinak guztizkoaren ehuneko 51 baitira eta ehuneko 25 jaitsi baitira (59,23 milioi) 2020koekin alderatuta.

Jada adierazi dugunez, bere horretan jarraitzen du CATen eta SAPGE21en arteko loturaren arazoak, eta horren ondorioz bi aplikazioen arteko informazio trukea ez da egokia. Hori dela-eta, zergen itzulketagatiko aurrekontuko zordunen eta beste hartzekodun batzuen ataletako emaitzak lortzeko, kontabilitateaz kanpoko doikuntza egiten da CATen zordunei eta hartzekodunei buruz dagoen zerga-informazioarekin. 2021ean, doikuntza orokorra 136,24 milioi eurokoa izan zen.

### 5.11. DIRUZAINNTZA

2021eko abenduaren 31ko diruzaintza 330,31 milioikoa zen, eta honako kontu mota hauetan zegoen:

(milakotan)			
Kontzeptua	Saldoa 2020-12-31n	Saldoa 2021-12-31n	2021/2020 aldea (%)
Diru-sarreraren kontu bereziak	16.449	15.011	-9
Diru-bilketarako kontu murriztuak	95.042	91.380	-4
Kontu korrante operatiboak	332.667	223.921	-33
<b>Guztira</b>	<b>444.158</b>	<b>330.312</b>	<b>-26</b>

Diruzaintzako saldoak ehuneko 26 (113,85 milioi) jaitsi dira, eta jaitsiera hori ia osorik zor zaio kontu operatiboetako saldoaren beherakadari, 108,75 milioi egin baitu behera, batez ere zor publikoaren amortizazioa dela medio, jada aipatu duguna.

Egindako banku-zirkularizazioa aztertu dugu, eta ondorioztatu ahal dugu saldoak justifikatuta daudela eta sinadura baimenduak zuzenak direla, oro har.

## 5.12. ZORPETZEA ETA BESTE FINANTZA-ERAGIKETA BATZUK

Zorpetzea

Foru Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zorpetzea 2.847,89 milioi eurokoa zen 2021eko abenduaren 31n, kostua amortizatuta, eta honako modalitate hauei zegokien:

			(milakotan)
Nafarroako Gobernuaren zorra	2020/12/31	2021/12/31	2021/2020 aldea (%)
Nafarroako Zor Publikoa	1.047.336	1.056.952	1
Epe luzeko maileguak finantza-entitateekin	1.980.353	1.510.593	-24
Epe luzeko maileguak sektore publikoarekin	17.157	15.232	-11
<i>Epe luzeko zorpetzea (A)</i>	<i>3.044.847</i>	<i>2.582.777</i>	<i>-15</i>
Nafarroako epe laburreko zor publikoa	206.200	139.995	-32
Epe laburreko maileguak finantza-entitateekin	27.743	99.760	260
Epe laburreko zorrak sektore publikoarekin	1.684	1.835	9
Zor publikoaren epe laburreko interesak	16.947	16.364	-3
Maileguen epe laburreko interesak	13.182	7.161	-46
<i>Epe laburreko zorpetzea (B)</i>	<i>265.756</i>	<i>265.115</i>	<i>-0,2</i>
<b>Zorpetzea, guztira (A+B)</b>	<b>3.310.603</b>	<b>2.847.893</b>	<b>-14</b>

Hona hemen azpimarratuko ditugunak, azterketa egin eta gero:

- Zorpetze osoa ehuneko 14 murriztu da 2021ean (462,71 milioi gutxiago), 2020. urtearekin alderatuta.
- 2021ean, zor publikoak zorpetze osoaren ehuneko 43 egin du; 2020an, berriz, ehuneko 38 egiten zuen.
- Finantza-entitateekiko epe luzeko maileguak nabarmen murriztu dira, ehuneko 24 hain zuzen ere, 2020an 1.980,35 milioi izatetik 2021ean 1.510,59 milioi izatera igarota (469,76 milioi gutxiago).
- Egiaztatu dugunez, beren indarraldiaren arabera epe luzeko mailegutzat sailkatu behar ziren mailegu batzuk, 21 milioi guztira, epe laburreko mailegu gisa agertzen dira.
- 2021ean itundutako zorpetzearen eta guztizko zorpetzearen motaren arabera batez besteko interes-tasa honako hau da:

(milakotan)

Zorpetze modalitatea	Itundutako zorpetzea, 2021	Batez besteko interes tasa 2021	Zorpetzea, guztira 2021/12/31	Batez besteko interes tasa
Nafarroako Zor Publikoa	150.000	0,25	1.196.947	1,97
Finantza-entitateen maileguak	-	-	1.260.353	0,79
Europako Inbertsio Bankuaren maileguak	-	-	350.000	1,23
Gizarte Segurantzaren mailegua	-	-	9.279	-
Beste sektore publiko baten maileguak	-	-	7.789	0,07
<b>Zorra, guztira</b>	<b>150.000</b>	<b>0,25</b>	<b>2.824.368</b>	<b>1,34</b>

2021ean, zorraren batez besteko interes-tasa orokorrak behera egin du 2020koarekin alderatuta: ehuneko 1,63tik ehuneko 1,34ra.

- NFKAren zorraren guztizkotik heldu den finantza-zamaren bilakaera (aurrekontuaren 3. eta 9. kapituluak) hurrengo taulan erakusten da, diru-sarrera arrunten gainean egiten duen ehunekoaren ondoan.

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Finantza-zama (milioiak)	300,54	401,48	415,74	519,98	384,80	469,45	412,05	355,57	681,37
Indizea	100	134	138	173	128	156	137	118	227
Diru-sarrera arrunten gainean (%)	9	12	13	15	10	12	10	9	14

Finantza-zamak ehuneko 227 egin du gora aztertutako aldian, egin den zor-amortizazioaren ondorioz. Aztertutako aldi osoan, diru-sarrera arrunten gaineko pisu erlatiboak ehuneko bederatzitik ehuneko 14ra igo da.

• Hurrengo taulan erakusten dira zorraren guztizkoa datozen ekitaldietan amortizatzeko dauden aurreikuspenak:

(milakotan)

Ekitaldia	Amortizatu beharreko zenbatekoa, guztira	Ehunekoa	Ehuneko metatua
2022	220.174	7,8	7,8
2023	247298	8,8	16,6
2024	242784	8,6	25,
2025	269673	9,6	34,8
2026	221958	7,9	42,7
2027	92753	3,3	46
2028	294935	10,5	56,5
2029	250033	8,9	65,4
2030	116867	4,2	69,6
2031	189481	6,7	76,3
2032	114000	4,1	80,4
2033	126984	4,5	84,9
2034	32000	1,1	86
2035	159850	5,7	91,7
2037	65665	2,3	94
2038	43000	1,5	95,5
2040	74574	2,7	98,2
2044	49469	1,8	100
<b>Guztira</b>	<b>2.811.498<sup>10</sup></b>		

Ikusten denez, zorraren erdia (ehuneko 56,5) 2028 baino lehen amortizatu behar da.

• Zor publikoaren jaulkipena fiskalizatu dugu. Guztira 150 milioikoa da, eta gure azterketaren emaitza zuzena da.

• 2022ko martxoan, rating agentzia batek Nafarroako epe luzeko zorrari kalifikazio hau eman zion: “AA-, perspektiba egonkorrekin” (baimendutako gehieneko maila, Estatuaren balorazioa kontuan hartuta). Kalifikazioa hobetu egin da, aurreko ekitaldian “AA-, perspektiba negatiboarekin” izan baitzen.

• 2021ean, NFKAk zenbait maileguren kitapena aurreratu zuen, 370 milioikoak, guztira, Analistas Financieros Internacionales (AFI) aholkularitza enpresak proposatutako jarraibideak aintzat harturik, eta horrela 23 milioi inguru aurreztu zituen.

#### Emandako abalak

• Foru Komunitateak emandako abalen saldoa 63,18 milioikoa zen abenduaren 31n, eta honako hauei zegokien:

(milakotan)

Emandako abalak	Saldoa 2020-12-31n	Saldoa 2021-12-31n	Aldea (%) 2021/2020
Zailtasunak dituzten enpresak eta inbertsiorako laguntzak	1.203	965	-20
“Nafarroa Abala” programa	838	322	-61
Club Atlético Osasuna	17.917	13.668	-29
NICDO-Los Arcosko zirkuitua	9.432	6.736	-24
Sodena-Europako Inbertsio Bankua	41.489	41.489	-
<b>Guztira</b>	<b>70.879</b>	<b>63.180</b>	<b>-11</b>

Guztizko saldo bizia ehuneko 11 jaitsi da (7,70 milioi gutxiago), eta nabarmentzekoa da Club Atlético Osasunari dagokion saldoaren beherakada (4,25 milioi).

2021ean ez zen abalak gauzatzearen ondoriozko gasturik izan.

Zenbateko horri gehitu behar litzaizkioke Gizarte Segurantzarekiko mailegu baten 9,28 milioi eta Estatuak emandako aurrerakin batzuen 3,59 milioi, Europako Gizarte Funtsaren kofinantzaketa bati dagozkionak. Ez dakigu zein izanen den zenbateko horien amortizazio-data.

Sodenarentzako abala eratu zen sozietate horrek Europako Inbertsio Bankutik jasotako mailegu bat bermatzeko, enpresa txiki eta ertainek Moderna Planaren esparruan egiten dituzten inbertsio proiektuak finantzatzera bideratua. Printzipalaren gaineko abal bat da (100 milioi), bai eta abala gauzatzeko unean Sodenak entitate horri finantzaketa-kontratuko edozein kontzepturengatik (interesak, komisioak, zamak eta abar) zor diezaiokkeen edozein zenbatekoren gainekoa ere. Gainerako abaletan, NFKAK soilik maileguaren printzipala dela-eta erantzuten du.

### 5.13. SOZIETATE PUBLIKOAK ETA FUNDAZIO PUBLIKOAK

#### Sozietate publikoak

Ondoren, Foru Komunitateko sozietate publikoei buruzko datuak ematen ditugu, kontu orokorren oroitidazkian bildutako informazioaren arabera:

(milakotan, zenbakiekin adierazitakoak izan ezik)

Sozietatea	Ekitaldiko emaitza	Foru Adminis- trazioaren diru- laguntzak(1)	Ekarpenak CPEN (2)	Epe luzeko zorpe- tzea (3)	Ondare garbia	Enplega- tuen batez besteko ko- purua
CEIN	221	1029	-	22	1503	52
CNAI	30	-	60	-	134	24
CAT	2.840	-	-	76	52.904	3
GAN	90	323	-	2	3.757	112
Intia	-294	7.536	-	27	3.635	194
Nasertic	768	464	-	-	11.767	114
Nasuvinsa	1.110	3.939	1.700	22.291	247.009	144
NICDO	-6.331	1.873	-	4.046	64.849	61
Nilsa	-	-	-	-	902	50
Potasas de Subiza SAU	1.862	-	-	-	8.244	-
Salinas de Navarra SA	2.060	-	-	-	19.558	73
Sodena	-4.808	2.067	12.500	27.684	72.192	23
Start Up Capital Navarra SA	-163	-	-	-	934	-
Tracasa	317	-	-	-	10.704	56
Tracasa Instrumental	450	33	-	-	22.679	442
CPEN	12.550	-	-	-	477.998	13
<b>Guztira (4)</b>	<b>10.702</b>	<b>17.264</b>	<b>14.260</b>	<b>54.149</b>	<b>998.769</b>	<b>1.361</b>

(1) Zutabe honetako datu batzuk ez datoz bat NFKAK bere oroitidazkian emandakoekin; hemen jasotako datuak NFKAK sozietateei eman dizkien dirulaguntzei buruzkoak dira, sozietateek haiek emaitzeara noiz egotzi dituzten kontuan hartu gabe.

(2) Ez da sartu CPENek INTIARI egindako ez-diruzko ekarpen bat, 830.000 euro egiten duena.

(3) Zorpetzean, ez dira sartu taldeko enpresekiko eta enpresa elkartuekiko zorrak.

(4) Bateratu gabeko datuak.

CPENen enpresa taldearen osaera honako hau da, kontabilitate-bateratzearen ondorioetarako:

CPEN taldearen osaera	2020	2021
Menpekoak-Sozietate publikoak	16	16
Elkartuak eta talde anitzekoak	13	11
<b>Parte hartutako beste batzuk</b>	<b>56</b>	<b>59</b>

Enpresa taldeak bi sozietate galdu ditu, elkartutzat eta talde anitzekotzat jotzen direnen kasuan, 2021ean ez baitira sartu Organización de la Patata del Pirineo Occidental Sociedad Agraria eta Sentil 2000 SL; eta hiru sozietate gehiago bildu ditu, parte hartutako beste batzuen kasuan.



Honako hauek dira Nafarroako enpresa publikoen sektorearen 2021eko adierazle nagusiak eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa:

CPEN taldearen adierazle bateratuak	2020	2021	(milakotan) 2021/2020 aldea (%)
Ondare garbia	656.107	666944	2
Epe luzerako zorrak	58.355	54179	-7
Pasibo arrunta	61.198	89404	46
Maniobra-funtsa	286.260	266339	-7
Eskudirua eta bestelako aktibo likidoak	123.739	137554	11
Negozio-zifraren zenbateko garbia	144.297	187738	30
Negozio-zifraren ehunekoak, NFKArekin batera egindakoa	36	32	-10
NFKAtik jasotako kapital-dirulaguntzak <sup>(1)</sup>	5.212	2560	-51
NFKAtik jasotako ustiapeneko dirulaguntzak	17.516	14704	-16
Langile-gastuak	64738	69.716	8
Ustiapeneko emaitza	1.607	15239	848
Ekitaldiko emaitza bateratua	-7.714	8151	206
Sozietate nagusiari esleitutako emaitza	-8.342	7708	192
Hirugarrenei emandako abalak eta bermeak <sup>(2)</sup>	66.269	40507	-39
CPENeko Administrazio Kontseiluko ordainsariak	7	6,65	-5
CPENeko goi zuzendaritzako ordainsariak <sup>(3)</sup>	16	93	481
Goi zuzendarien batez besteko kopurua <sup>(2)</sup>	10	12	20

(1) Zerga-eraginaren aurretiko zenbatekoa.

(2) Solilik menpeko enpresei dagokienez, bateratzean integrazio orokorraren bidetik sarturik.

(3) 2020ko urriaren 1ean zuzendari nagusi bat sartu zen CPENen (haren eginkizunak Administrazio Kontseiluak betetzen zituen)

Datu horiek aztertuta, honako alderdi hauek azpimarra ditzakegu:

- 2021eko epe luzeko zorrak ehuneko zazpi txikiagoak dira aurreko ekitaldikoak baino, eta 54,18 milioi egiten dute guztira.
- 2021eko pasibo korrontea ehuneko 46 handitu da 2020koarekin alderatuta, eta 89,40 milioi-koa izatera iritsi da.
- NFKAtik 2021ean jasotako dirulaguntzak 17,26 milioi eurokoak dira, 2020koak baino ehuneko 24 txikiagoak.
- Ekitaldiko emaitza bateratuak eta sozietate nagusiari esleitutakoak hobera egin dute nabarmen 2021ean, ehuneko 206 eta ehuneko 192 hazi baitira, hurrenez hurren, eta balio positiboa izan dute, 2020an negatiboa izan ondoren.

Sozietate publikoek urteko kontuen auditoretza aurkeztu dute, eta guztiek aldaketarik gabeko iritzia dute.

2022an enpresa publikoek legeria betetzeari buruzko auditoretza egin dute 2021eko ekitaldiari dagokionez. Auditoretza hori kanpoko enpresa pribatu batek egin die. Auditoretza horien helburuak izan dira honako alderdi hauek egiaztatzea: Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen betetzea, zorpetze- eta abal-eragiketei dagokienez; obrei, hornidurari, zerbitzuei eta obra publikoen eta zerbitzuen emakidei aplikatzekoa zaien kontratazio-araudiaren betetzea; langileen kontratazioei eta ordainsari-sistemei buruzko araudiaren betetzea; egin diren kontraprestaziorik gabeko diru-emaitzei buruzko araudia betetzea; Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legean jasotako bestelako legezko betekizunak betetzea eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legea betetzea. Auditoretza horien emaitzak<sup>11</sup> honako hauek dira:

- a) Zorpetze-eragiketei dagokienez, ondorioztatzen da aplikatzekoa den araudia bete dela.
- b) Kontratazio publikoari dagokienez, ondorioztatzen da aztertutako 112 espedienteetan oro har aplikatzekoa den araudia bete dela, nahiz eta garrantzi txikiko 11 gorabehera antzeman diren.

11 Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusian berrikusten ari diren auditoretza-txostenetan jasotako emaitzak erakusten dira.

c) Langileen kontratazioak eta ordainsari-sistemak aztertuta, konklusioa da araudia bete egiten dela, oro har. Halere, hiru salbuespen aipatzen dira: batek zerikusia du sozietate baten kontratazioan berrezarpen-tasaren muga gainditzearekin, beste bat sozietate bateko zuzendarien ordainsariei dagokier, eta hirugarrena sozietate bateko ordainsarien igoera orokorrari buruzkoa da.<sup>12</sup>.

d) Kontraprestaziorik gabeko diru-emateei buruzko araudia betetzeari dagokionez, ondorioztatzen da aplikatzekoa den araudia bete dela.

e) Bestelako legezko betekizunak betetzeari dagokionez, ondorioztatzen da aplikatzekoa den araudia bete dela.

Halaber, Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusiak, 2020ko ekitaldiari dagozkion legezketasun-txostenak berrikusi ondoren egin zuen laburpen-txostenean, Sodenari buruzko txostenaren gehigarri bat sartu zuen, sozietate horrek, Albyn sozietateak eta Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak egindako akordio bati buruzkoa; akordio horren helburua izan zen Nafarroako ETE, mikroETE eta langile autonomoentzako maskaren erosketa kudeatzea. Gehigarri horretan aipatzen diren akatsak ikusirik, Ganbera hau kudeaketa hori fiskalizatzen ari da.

### Fundazio publikoak

Hurrengo taulan fundazio publikoen 2021eko datu agregatu batzuk eta haien eta 2020koen arteko alderaketa erakusten ditugu:

(milakotan, zenbakiekin adierazitakoak izan ezik)

Adierazlea	2020	2021
Ondare garbia	3.284	3.485
Epe luzeko zorra	6.801	5.797
Jardueraren beraren ondoriozko diru-sarrerak	17.678	19.163
Nafarroako Gobernutik jasotako dirulaguntzak	10.920	10.555
Langile-gastuak	11.300	12.393
Eskudirua eta bestelako aktibo likidoak	8.833	9.368
Maniobra-funtsa	7.876	7.248
Ekitaldiko soberakina	410	222
Goi karguen kopurua (A)	5	5
Gainerako enplegatuen batez besteko kopurua (B)	267	270
Langileen kopuru osoa (A+B)	272	275

Fundazioen urteko kontuei auditoretzak egin zaizkie, eta horietan guztietan hau da iritzi mota: aldatu gabe. Bestalde, Baluarte fundazioari buruzko auditoretza-txostenak haren ondare garbi negatiboaz azpimarratzeko paragrafo bat dakar. Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuak dagoeneko berariaz adierazi du finantza-laguntza emanen diola, ordaintzeko betebeharrak eta konpromisoak bete eta bere eragiketen jarraipena bermatu ahal dezan.

Enpresa publikoekin gertatzen den bezala, 2022an amaitu zen legeria betetzeari buruzko 2021eko auditoretza, enpresa publikoentzat deskribatuta dauden helburu berberekin, diru-laguntzak ematen dituzten fundazioen kasuan araudia betetzearena gehituta. Auditoretzen emaitzak<sup>13</sup> honako hauek dira:

a) Zorpetze-eragiketegi dagokienez, ondorioztatzen da aplikatzekoa den araudia bete dela.

b) Kontratazio publikoer dagokienez, ondorioztatzen da aplikatzekoa den araudia bete dela, nahiz eta salbuespen bat aipatu fundazio batean: kontratu bat luzatu egin zen, kontratuan luzape-nik aurreikusita egon gabe.

c) Langileen kontratazioak eta ordainsari-sistemak berrikustetik ondorioztatzen da, oro har, araudia betetzen dela, baina hiru salbuespen aipatzen dira hiru fundaziotan: bik zerikusia dute ordainsarien igoerarekin, eta beste batek kontratazio mugagabe batean berrezarpen-tasa gainditzearekin.

d) Kontraprestaziorik gabeko diru-emateei eta dirulaguntzei buruzko araudia betetzeari dagokionez, ondorioztatzen da aplikatzekoa den araudia bete dela.

<sup>12</sup> Sozietate horrek lansari-handitzea egin behar izan zuen bere jarduerarako aplikatzekoa den hitzarmen sektoriala dela-eta.

<sup>13</sup> Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusian berrikusten ari diren auditoretza-txostenetan jasotako emaitzak erakusten dira..

e) Bestelako legezko betekizunak betetzeari dagokionez, ondorioztatzen da, oro har, aplikatze-koa den araudia bete dela, nahiz eta aipatu behar den fundazio baten webguneak ez duela jasotzen Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen zenbait artikulutan ezarritako informazio guztia.

#### 5.14. COVID-19AREKIN LOTUTAKO GASTUAK ETA DIRU-SARRERAK

2020ko martxoan agertu zenetik, COVID-19aren pandemiak funts publikoen gastu garrantzitsua eragin du eta eragiten jarraitzen du. Ganbera honek 2020ko martxotik abendura bitarteko gastuak eta diru-sarrerak aztertu zituen 2021eko apirilean argitaratu zuen txosten batean.

Estatuak autonomia erkidegoei eskatu zien informazioa igor zezatela pandemia kudeatzeko egindako gastuei buruz. Horretarako, NFKAk aurrekontuko partida berariazkoak sortu zituen gastu horiek kontabilizatzeko eta informazioa Estatuari igorri ahal izateko.

COVID partidetan kontabilizatutako gastuak eta diru-sarrerak 197,87 eta 247,31 milioikoak izan ziren, hurrenez hurren, 2021ean. Jasotako finantzaketa-soberakinaren bidez egin zaio aurre COVID-19aren krisiak aurrekontuan izandako eraginari; batez ere, 2020an sortu zen finantzaketa-defizitari -37,60 milioi- eta zorpetzearen ondoriozko finantza-zamari. Behean erakusten ditugu gastu eta diru-sarrera horien xehetasunak.

##### COVID-19arekin lotutako gastuak

COVID-19 gisa identifikatutako aurrekontu-partidetako gastuak 197,87 milioikoak izan ziren 2021ean, honela banatuta:

Gastu-kapitulua	Aitortutako betebeharrak, 2020	Aitortutako betebeharrak, 2021	2021/2020 aldea (%)
Langileak	44805218	61752295	38
Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	70.484.065	39.160.254	-44
Finantza-gastuak	78.275	0	-
Transferentzia arruntak	72.058.514	92.895.833	29
Inbertsioak	14.828.507	4.051.575	-73
Kapital-transferentziak	15.715.221	6.518	-100
Finantza-aktiboak	7.000.000	0	-
<b>Guztira</b>	<b>224.969.800</b>	<b>197.866.475</b>	<b>-12</b>

Aurreko taula aztertuta, honako alderdi hauek azpimarratuko ditugu:

- 2021eko guztizko gastuak 2020koak baino ehuneko 12 (27,10 milioi) txikiagoak dira, baina gastu-kapituluen bilakaerak desberdinak dira.
- Langile-gastuak 61,75 milioikoak dira, 2020koak baino ehuneko 38 handiagoak. Hona xehetasunak:

Kontzeptu ekonomikoa	Aitortutako betebeharrak, 2020	Aitortutako betebeharrak, 2021	2021/2020 aldea (%)
Aldi baterako lan-kontratudunen ordainsariak	23.491.003	35.042.969	49
Gizarte segurantzak	8.169.143	14.142.015	73
Ordezkapenentarako kontratatutako langileen ordainsariak	4.679.688	2.850.734	-39
Jaiegunak	1.620.852	2.134.832	32
Produktibitate-osagarria	3.731.565	1.729.137	-54
Langile finkoen ordainsariak	251.468	1.519.955	504
Ordainsari pertsonalak (gradua, antzinatasuna, etab.)	622.161	1.175.675	89
Gaueko lana	888.153	880.040	-1
Txandakako lana	657.709	826.545	26
Aurreko ekitaldietako langileen ordainsariak	-	742.062	-
Guardiak	409.953	393.432	-4
Lanpostu erreserbatuetarako kontratatutako langileen ordainsariak	2.763	110.265	3891
Sakabanatze geografikoarengatik osagarria	64.994	78.179	20
Kapitazio-osagarria	50.215	57.825	15
Lanbide-karreraren ordainsariak	6.918	44.672	546
Aparteko orduak	158.633	23.958	-85
<b>Guztira, oro har</b>	<b>44.805.218</b>	<b>61.752.295</b>	<b>38</b>

Nahiz eta 2021eko gastuak 16,95 milioiko jaitsiera izan 2020koaren aldean, kontzeptu ekonomikoen araberako bilakaera desberdinak izan dira. Hala, aldi baterako kontratatutako langileen ordainsariak ehuneko 49ko igoera garrantzitsua izan dute, baina aparteko orduen ordainsariak eta produktibitateko osagarria, esaterako, hurrenez hurren ehuneko 85 eta ehuneko 54 jaitsi dira.

Gastuaren ehuneko 74 Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari dagokio, eta ehuneko 24 Hezkuntza Departamentuari. Gainerako ehuneko bira lau departamenturen artean banatuta dago.

Gastu horrek barruan ditu ordainsari motaren bat jaso duten 5.210 pertsonaren nominak. COVID-19 gisa identifikatutako kontratuak aztertuta, egiaztatu dugu 448.673 euro kontabilizatu direla, gutxienez ere, COVID-19 gisa identifikatuta ez dauden aurrekontuko partidetan.

• COVID-19aren kudeaketarekin zerikusia duten ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak 39,16 milioikoak izan dira 2021ean, honela banatuta:

Kontzeptu ekonomikoa	Aitortutako betebeharrak, 2020	Aitortutako betebeharrak, 2021	2021/2020 aldea (%)
Produktu kimikoak eta laborategikoak	14.017.539	9409281	-33
Osasun laguntzako itunak	8.585.045	7.324.894	-15
Kontsumitzeko osasun alorreko materiala	23.492.140	4.959.438	-79
Garbiketa eta txukuntasuneko zerbitzuak	1.789.775	4.061.914	127
Farmakoak	1.996.050	1.726.837	-13
Gizarte zerbitzu bermatuen kudeaketa	4.646.102	1.511.811	-67
Garbiketarako eta txukuntasunerako materiala	2.363.003	1.187.048	-50
Eskola jantokiak	-	1.186.984	-
Eskola garraioa	761.435	1.130.049	48
Instrumentuak eta tresna txikiak	3.228.254	979.233	-70
Ikuztegi-zerbitzuak	136.447	846.415	520
Publizitatea eta propaganda	1.120.399	723.057	-35
Segurtasun zerbitzuak	257.861	412.821	60
Eraikinen errentamenduak	-	392.753	-
Hondakinen kudeaketa	327.338	341.018	4
Gas medikoak	205.458	327.763	60
Hirugarrenek egindako bestelako lanak	1.042.478	324.178	-69
Telekomunikazio zerbitzuak	296.406	310.765	5
Osasun arloko garraioa	635.294	303.387	-52
Programen eta lizentzien errentamenduak	497.182	301.895	-39
Altzariak alokatzea	153.556	241.116	57
Bestelako gastu askotarikoak	1.591.396	239.209	-85
Azterlan eta lan teknikoak	190.778	215.850	13
Bestelako garraio gastuak	156.543	143.251	-8
Elikadura	428.043	62.969	-85
Jantziak	265.305	16.405	-94
Beste kontzeptu batzuk (2020an 13 eta 2021ean 10)	648.237	479.913	-26
Bestelako hornidura osagarriak	1.021.540	-	-
Informatika zerbitzuak	630.461	-	-
<b>Guztira, oro har</b>	<b>70.484.065</b>	<b>39.160.254</b>	<b>-44</b>

Gutzizko gastuak ehuneko 44 behera egin badu ere, kontzeptuen araberako gastuek bilakaera desberdina izan dute. Hala, produktu kimikoak eta laborategikoak eta kontsumitzeko osasun alorreko materialak hurrenez hurren ehuneko 33 eta ehuneko 79 jaitsi dira, baina garbiketa eta ikuztegi zerbitzuek ehuneko 127 eta ehuneko 520 egin dute gora.

Gastuaren ehuneko 76 Osasun Departamentuari dagokio; ehuneko 13, Hezkuntza Departamentuari; eta ehuneko lau, Eskubide Sozialetako Departamentuari. Gainerako ehuneko zazpita sei departamenturen artean banatuta dago.

Osasun Departamentuaren gastua osatzen duten kontzeptu nagusiak laborategiko produktu kimikoak, osasun alorreko itunak eta kontsumitzeko osasun alorreko materiala dira. Txosten honen datan, Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusia osasun alorreko itunak berrikusten ari da; beraz, bai produktu kimikoak eta laborategikoak bai kontsumitzeko osasun alorreko materiala fiskalizatu ditugu. Eginiko azterketan oinarriturik, honako **ondorio** hauek atera ditugu:

a) COVID-19 gisa sailkatutako aurrekontu-partidetan erregistratutako gastuaren osagaiak hauek dira: batetik, birus horren tratamendurako baino erabiltzen ez diren zenbait materialen kontabilitateko idatzohar automatikoak (antigeno-test eta abarrenak); bestetik, COVID-19 partidetan erregistratzen ez diren arren, gaixotasun horren ondorioz askoz gehiago kontsumitzen diren beste material batzuen eskuzko idatzoharrak (eskularru, mantal eta abarrenak). Azken material horiek Estatuak hala adierazita sartzen dira COVID-19 gastuan.

b) Laborategiko produktu kimikoen kasuan, gastua 16 hornitzailearen artean banatzen da, baina hiruk gastuaren ehuneko 92 hartzen dute (ehuneko 44, ehuneko 37 eta ehuneko 11).

Osasun alorreko materialean eta kontsumitzeko materialean egindako gastua barreiatuagoa da eta 73 hornitzailearen artean banatzen da; hornitzaile batek gastuaren ehuneko 32 hartzen du, beste batek ehuneko hamar, eta gainerako 71 hornitzaileen zenbatekoak ehuneko zazpitik beherakoak dira.

c) Produktu horiek erosteko erabilitako prozedurak kategoriatan sailkatzen dira SAP-MM moduluaren arabera: *lehiaketa publikoa* (kontratazio araudiari jarraituz egindako adjudikazioak), *adostutako prezioak* (aberaste bidegabearen egoeretan ezarritako zenbatekoak edo hornitzaileekin negoziatu edo hitzartutakoak material berrietarako, katalogoen berrikuspenetarako etab.), eta *ohiko eskabideak* (ez kontratu-oinarririk ez adostutako preziorik gabe egiten direnak).

Jarraian erakusten dugu zer prozedura bete den bai produktu kimikoetako gastuan, bai kontsumitzeko osasun alorreko materialetako gastuan:

	Lehiaketa publikoa		Adostutako prezioa		Ohiko eskabidea		Guztira
	Zenbatekoa	Guzt/g (%)	Zenbatekoa	Guzt/g (%)	Zenbatekoa	Guzt/g (%)	
Produktu kimikoak	582.437	12	512509	11	3568348	77	4663294
Osasun alorreko materiala	3.291.931	35	172753	2	5910930	63	9375614

Aipatutako kontzeptuak erosteko prozedura erabiliena ohiko eskabidea izan zen: laborategiko produktu kimikoetako gastuaren ehuneko 77 eta osasun alorreko materialaren ehuneko 63. Lehiaketa publikoa osasun alorreko materialetako eta produktu kimikoetako gastuaren ehuneko 35ean eta ehuneko 12an erabili zen, hurrenez hurren. Adostutako prezioak erabili ziren produktu kimikoetako gastuaren ehuneko 11rako eta kontsumitzeko osasun alorreko materialeko gastuaren ehuneko birako.

NFKAk eta IdisNA fundazioak adjudikatutako kontratu hauek aztertu ditugu:

Xedea	Mota	Prozedura	Zenbat lizitatzailerak	Adjudikazioaren zenbatekoa	Adjudikazioaren beherapena (%)
COVID-19a. Maskara kirurgikoen hornidura. O-NOZ	Hornidura Larrialdia <sup>14</sup>		20	2848710	Ez zen lizitazio preziorik izan
Erreaktiboak. CliniMACS Prodigy ekipamendua (IdisNA fundazioa)	Hornidura	Lizitazio deialdirik gabeko prozedura negoziatua	1	110111	-
COVID-19a. Maskara kirurgikoen hornidura. Ekonomia eta Ogasun Departamentua	Hornidura	Murriztua: erosketa sistema dinamikoa	27	62191	84,32

Aipatutako bi kontratazio-espeditentak aztertuta, ondorioztatu dugu ezen, oro har, aplikatzen den araudiaren arabera izapidetu zirela, nahiz eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuak maskarak erostearekin zerikusia duten honako alderdi hauek aipatu behar diren:

a. Kontratazioa arautzen duten pleguek ez dituzte jasotzen eskaintza bat baxuegitzat jotzeko baldintzak.

b. Honako kasu hauetan gairatzen dira araudian ezarritako epeak: erosketa sistema dinamikoan parte hartzeko eskaerak ebaluatzeko garaian; eskaintzak ireki ondoren kontratuak esleitzeko garaian; eta behin kontratuak esleituta, horiek formalizatzeko garaian.

<sup>14</sup> Erosketa hau 2020an egin zen, baina espeditente administratiboaren formalizazioa 2021ean burutu zen.

• COVID-19arekin zerikusia duten transferentzia arruntetako gastuak 92,90 milioikoak izan dira 2021ean, honela banatuta:

Kontzeptu ekonomikoa	Aitortutako betebeharrak, 2020 garbiak	Aitortutako betebeharrak, 2021 garbiak	2021/2020 aldea (%)
Transf. arruntak beste enpresa pribatu batzuei	39.915.850	66491150	67
Toki entitateentzako transferentzia arrunten funtsa	11.500.000	-	-
Transf. arruntak familia eta banakoei	7.732.911	13.504.014	75
Transf. arruntak enpresa publikoei	4.345.222	1.060.000	-76
Transf. arruntak nekazaritza enpresei	2.935.943	2.075.246	-29
Transf. arruntak unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei	2.884.342	8.344.837	189
Bestelako transf. arruntak toki entitateei	1.626.529	745.302	-54
Transf. arruntak Nafarroako Unibertsitate Publikoari	750.000	500.000	-33
Transf. arruntak beste erakunde publiko batzuei	269.292	6.750	-97
Transf. arruntak fakultate eta unibertsitate-eskolei	80.150	-	-
Transf. arruntak irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuei	15.000	168.534	1.024
Transf. arruntak merkataritza enpresei	3.275	-	-
<b>Guztira, oro har</b>	<b>72.058.514</b>	<b>92.895.833</b>	<b>29</b>

Kapitulu honetako gastuak ehuneko 29 igo dira 2020koen aldean (20,84 milioi gehiago). Arrazoi nagusia da enpresa pribatuentzako transferentzien ehuneko 67ko gehikuntza (26,58 milioi gehiago).

Enpresa pribatuentzako transferentziak honako hauetan gauzatu dira, funtsean: autonomo eta enpresentzako zuzeneko laguntza batzuk, Estatuak onetsiak, COVID-19 pandemiari erantzunez enpresen kaudimena sustatzeko ezohiko neurriei buruzko martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege-dekretuaren bidez, zenbait baldintza ezarrita, 47,94 milioikoak, guztira; eta turismoan eta ostalaritzan diharduten ETEentzako dirulaguntzak, 15,50 milioikoak, guztira.

Horri dagokionez, adierazi behar dugu txosten honen datan Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusia Estatuak onetsitako zuzeneko laguntzak fiskalizatzen ari dela; turismoan eta ostalaritzan diharduten ETEentzako dirulaguntzak Ganbera honek aztertu zituen 2021eko irailean argitaratutako txostenean<sup>15</sup> eta ondorioztatu zuen ezen dirulaguntzak kontrolatzeko prozeduretako eta oinarri dituzten informazio sistemetako kontrol mailek behar adinako konfiantza maila eragiten zutela haiek behar bezala gauzatu eta kontabilizatuko zirela bermatzeko.

Familia eta norbanakoentzako transferentziei dagokienez, errenta bermatura bideratutako zenbatekoa nabarmentzen da: 11,43 milioi, guztira, hau da, guztizko gastuaren ehuneko 85.

Errenta bermatuaren gastuak 2019-2021 aldian nola eboluzionatu duen aztertu dugu, kontuan izanda 2020ko eta 2021eko ekitaldietan bi aurrekontu-partidatan kontabilizatu dela, behean azaltzen den moduan:

	Gastua, 2019	Gastua, 2020	Gastua, 2021	(milakotan) 2021/2020 aldea %
<i>Transferentzia arruntak:</i>				
<i>Errenta bermatua</i>	103.087	108465	99.341	-8
<i>COVID errenta bermatua</i>	0	5.999	11427	90
<b>Gastua, guztira</b>	<b>103.087</b>	<b>114.464</b>	<b>110768</b>	<b>-3</b>

2020an aurrekontu-partida bat sortu zen COVID-19aren ondorioz errenta bermatura bideratutako gastua kontabilizatzeko. Ganbera honek jada 2021eko apirilean pandemiaren kudeaketari buruzko txostenean adierazi zuen bezala, Eskubide Sozialetako Departamentuak maiatzean eta ekainean ez zien inongo diru kopururik egotzi COVID-19 partidei, eta, ordutik aurrera, prestazio horren onuradun berriei zegokien gastua partida horietan erregistratu zuen, prestazioaren arrazoia COVID-19a izan ala ez.

<sup>15</sup> Fiskalizatutako deialdia 2020ko ekitaldikoa izan zen, eta 2021eko ekitaldi honetako antzekoa izan zen.

COVID-19aren ondorioz diru-sarrera horren beharra izanen zuten familien gehikuntzaren zentzatespenak egin ziren 2021erako, eta horren arabera hornitu zen aurrekontu-partida, goiko taulan ageri den exekuzioarekin. Hori dela-eta, aipatuko dugu ezen, 2022an, jada ez dagoela COVID-19aren ondoriozko errenta bermatuarekin lotutako partidarik.

- COVID-19arekin zerikusia duten inbertsioen gastuak 4,05 milioioak izan dira 2021ean, honela banatuta:

Kontzeptu ekonomikoa	Aitortutako betebehargarbiak, 2020	Aitortutako betebehargarbiak, 2021	2021/2020 aldea (%)
Informazioa prozesatzeko ekipamenduak	6.990.988	2297643	-67
Ekipamendu medikoak	574.607	727.199	27
Eraikinak	1.827.088	451.971	-75
Beste altzari eta ekipamendu batzuk	1.939.131	394.446	-80
Aplikazio informatikoak	252.663	66.193	-74
Instalazioak	45.044	58.080	29
Bulegoko ekipamendu eta altzariak	52.874	33.583	-36
Material teknikoa	159.567	14.350	-91
Ibilgetu ez-materiala	2.986.545	8.110	-100
<b>Guztira, oro har</b>	<b>14.828.507</b>	<b>4.051.575</b>	<b>-73</b>

Gastu horiek ehuneko 73 jaitsi dira 2020ko aldean (10,78 milioi gutxiago), eta kontzeptu ekonomiko guztiek egin dute behera. Osagai garrantzitsuenak informazioa prozesatzeko ekipamenduak dira (chromebook-ak, funtsean), guztizkoaren ehuneko 57 hartzen baitute.

Ganbera honek 2020ko chromebook erosketak fiskalizatu zuen (5,04 milioi, guztira) COVID-19aren kudeaketari buruz egin zuen txostenean, eta gorabeherarik antzeman ez zuenez, beste gastu mota bat aztertu da; hain zuzen ere, COVID-19ak sortutako beharreatatik eguneko zentro bateko hiru modulu eraiki eta ekipamenduz hornitzeko adjudikazioa (834.290 euro, guztira) eta exekuzioa aztertu ditugu.

Aurreko espedientea aztertuta, ondorio gisa esan dezakegu aplikatu beharreko araudiari jarraituz izapidetu zela, larrialdiko espediente gisa, 2020an (baina formalizazio administratiboa 2021ean egin da), ekitaldi horretan gauzatu zela osorik, eta eragin zuen gastua behar bezala kontabilizatuta dagoela.

- Azkenik, Ganbera honek adierazi nahi du 2022an ere jarraitu dela COVID-19aren ondoriozko gastuak kontabilizatzen. Txosten honen datan 34,41 milioioak dira, honela xehakaturata:

Gastu-kapitulua	Aitortutako betebehargarbiak 2022
Langileak	26.816.315
Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	2.383.931
Transferentzia arruntak	5.208.685
Inbertsioak	1.828
<b>Guztira</b>	<b>34.410.759</b>

2021. urtean, txosten honetan zehar adierazi bezala, zorra amortizatu da (606,52 milioi), baina ezin daiteke esan gastu horren zatiren batek zerikusia ote duen COVID-19arekin.

#### COVID-19aren kudeaketarekin lotutako diru-sarrerak

COVID-19arekin lotuta eta aurrekontu-partidetan halakotzat identifikatuta dauden diru-sarrerak 247,31 milioioak dira 2021ean, xehakapen honen arabera:

Diru-sarreren kapitulua	Aitortutako eskubidegarbiak, 2020	Aitortutako eskubidegarbiak, 2021	2021/2020 aldea (%)
Tasak eta prezio publikoak	23.845	709.132	2.874
Transferentzia arruntak	186.392.563	246.603.369	32
Kapital-transferentziak	956.807	-	-
<b>Guztira</b>	<b>187.373.215</b>	<b>247.312.501</b>	<b>32</b>



Aurreko taulako datuak aztertuta, honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- 2021eko guztizko diru-sarrerak ehuneko 32 igo dira 2020koen aldean (59,94 milioi gehiago), transferentzia arrunten bidezko diru-sarreraren 60,21 milioiko gehikuntzarengatik, funtsean.

- Transferentzia arruntak 246,60 milioikoak dira, eta bi aurrekontu-partida hartzen dituzte: 192,94 milioiko partida bat, COVID-19ari aurre egiteko Estatutik jasotako zenbatekoari dagokiona, 2020an onetsi zen itzulketarik gabeko funtsaren arabera; eta 53,63 milioiko partida bat, horiek ere Estatutik jasoak, autonomo eta enpresei zuzeneko laguntzak emateko, COVID-19 pandemiari erantzunez enpresen kaudimena sustatzeko ezohiko neurriei buruzko martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege-dekretuaren babesean. Azken transferentzia horren harira, aipatuko dugu Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusia laguntza horiek fiskalizatzen ari dela a posteriori.

- Tasa, prezio publiko eta beste diru-sarrera batzuen kapituluan, hirugarrenean, lortutako diru-sarreretatik ehuneko 66 dagozkio 2021ean ezarritako isun eta zehapenei eta ehuneko 16 bidegabeki jasotako diru kopuruen itzulketei, nominan egindakoei.

**Laburbilduz**, 2020-2022 aldian, COVID-19aren ondoriozko gastuak, txosten honen datara arte, 457,25 milioikoak izan dira, eta diru-sarrerak, berriz, 434,69 milioikoak.



**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK**

Kontuen Ganberak 2021eko ekitaldiko kontu orokorrei buruz egindako txostenean adierazten da, Osasun Departamentuko kontratazioa dela-eta, hark 2022. urtera arteko ekintza plana egin zuela eta Gobernuaren 2021eko urtarrilaren 20ko Erabakiaren bidez onetsi zela plan hori.

Izan ere, honako hau esaten da erabakian:

“...Onartzen da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak proposatutako ekintza plana, kontuan izanik COVID-19aren pandemiak sortutako egoerak lizitazio portzentaje handiagoko helburuak planteatzea eragozten duela oraingoz...”.

Plan hori 2020ko urtarrilean egina zen. Kontuen Ganberak berak txostenean ohartarazten duenez, plan horretan ezarritako helburuak urrun gelditu badira ere, kontuan hartu behar da “...COVID-19aren pandemiak jarraipena izan duela 2021ean eta 2022an zehar, eta horrek azaldu lezakeela ezarritako helburuak bete ez izana”.

Gutziz bat gatoz baieztapen horrekin, eta elementu batzuk gehitu nahi dizkiogu, pandemia hasi zenetik hiru urte hauetan aurre egin diegun zailtasunen garrantzia nabarmentzen dituztenak, hala nola merkatuen ezegonkortasuna, etenik ez duena, eta ez pandemiagatik beragatik bakarrik, baizik eta energiaren krisiagatik eta inflazioagatik ere bai, Ukrainako gerra tarteko, beste arrazoi batzuen artean. Horren guztiaren ondorio dira prezioen igoera orokorra, hornidurak garaiz lortzeko zailtasuna, etengabeko stock hausturak, prezioak berrikusteko zailtasunak direla-eta hornitzaileek luzapenei uko egitea (horrek asko laburtzen du kontratuen indarraldia), eta,aldi berean, lizitatzeko zailtasunak, prezioen ezegonkortasun handia ikusita hornitzaileak ez direlako aurkezten lehiaketetara edo beren eskaintzak erretiratzen dituztelako.

Kontratazio administratiboa prozesu korapilatsu bilakatu da, eta tramitazioak luze jotzen du. Horrela zaila da plan egokia egitea, ezin direlako aurrez zehaztu zenbait kontu, iragarri ezinezko egoerak, botere adjudikatzaileen kontrolpean ez dauden aldagaien arabera gerta daitezkeenak edo ez.

2020-2022 aldirako planak garrantzitsuenak iruditu zitzaizkigun gaiei heltzen zien. Horien artean nabarmentzen dira osasun laguntzako langileen parte-hartzea eta plantillaren eta egituraren dimentsioak aldatzea.

COVID-19aren pandemiak, bat-batean agertu zenean 2020ko martxoaren hasieran, kontratazioa geldiarazi zuen, eta ezarritako plana aurrera eramatea eragotzi du. Merkatuen hausturaz gain, osasun laguntzako langileek beren arreta osoa jarri behar izan zuten COVID eta ez-COVID osasun laguntzan eta, gainera, dedikazio handia behar izan duten beste plan batzuetan, hala nola O-NO-Zeko lan eskaintza publiko zabala, edo INVEAT plana Europako Funtsen kargura.

Oro har, pandemiak erakutsi eta nabarmendu du beharrezkoa dela plantillen dimentsioak aldatzea, zenbait kasutan plantillak handituz, erosketaren kudeaketa eraginkorra lortu nahi bada. Larrialdi egoerak areagotu baino ez ditu egin arazo horiek. Pandemiak erakundea estutu du, plangintza gehigarri baten kudeaketa egokiarekin bateraezinak diren muga arriskutsuetaraino estutu ere, eta, gainera, galarazi egin du hobera egiteko planteamendu eta teknikei heltzea, ekintza planean proposatzen zen bezala.

Hala ere, COVID-19aren pandemiak sortutako egoeraz harago, uste dugu agerian jarri dela aldian behin egiten diren plan hauek ez direla gai halako egoera bat konpontzeko. Izan ere, arazoari konponbide koordinatua eman behar zaio hainbat alderditatik, legegintzarena barne. Horri guztiari plantillen etengabeko mugikortasun egoera gehitu behar zaio, etorkizun hurbilean ziur aski areagotu egingen dena, martxan jarri den egonkortze prozesu handiaren ondorioz.

Iruñean, 2022ko azaroaren 9an

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailea:  
Gregorio Achutegui Basagoiti

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA DELA-ETA AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA**

Eskerrak ematen dizkiogu Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaile-ari, aurkeztu dizkigun alegazioengatik. Alegazio horiek behin-behineko txostenari eransten zaizkio eta hori behin betikotzat ezartzen da, jotzen baita egindako fiskalizazioaren azalpen bat direla alegazio horiek, eta ez dutela haren edukia aldatzen.

Iruñean, bazterrean ageri den egunean

Lehendakaria, Ignacio Cabeza del Salvador



